



Larruazala eta printzesa

SEBASTIÀ ALZAMORA

itzulpena:

Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

SEBASTIÀ ALZAMORA

larruazala eta printzesa

Josep Pla Saria 2005

itzulpena:

Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

*Zein da zu egin zauden sustantzia,
hamaika itzal arrotz erakartzen dituen?*

Shakespeare

Incipit fabula

edo

Gizon erreña

Puppak esan zuen:

—Zure galderaren erantzuna emakumezko baten izena da: Maria.

Eta izen hura ahoskatzean belo zalantzarri batek, ilun-modukoak, estali zizkion begi handiak, zimurrez eta betazalen nekeak inguratuak. Baina bat-batean begirada apaldu eta intxaurrendozko mahaiaren azaleran kontzentratu zen ostera, zeinaren gainean, oso altzairu zorrotzeko espatulagisako bat erabiliz, hedatua zeukan emeki higatzen ari zen larruazala. Alboko beste mahai baten gainean liburua osatzeko hari-paperen pleguak zeuzkan sakabanatuta. Sukaldeko distirak eta sabaiko habe batean esekitako olio-lanparak herabetasunez erauzten zuten, arratsarekin, Puppa zahararentzat tailer eta bizitoki zen artzain-bordaz jabetu zen ilunpe astuna. Miresmenez ikusten nuen halako argi xumearen babesean hain zeregin delikatuak egiten behatzen nuen erabakimena. Baina bera eroso sentitzen zen nonbait: Puppak kezkatu eta erritmo onean egiten zuen lana, bere lanabesak inguruan zabalduta. Tresna haietako batzuk ezagunak egiten zitzaizkidan, jakina; beste batzuk, ordea, erabat ezohikoak, eta mehatxu-aire bat nabaritzen nuen. Bere eskuetan zertarako balioko ote zuten, mentalki asmatzen jolasten nintzen: mailuak, xixelak, aiztoak, pintzelak, baina baita era eta neurri askoko ontziak eta treskak, niretzat zurda ezezagunezko brotxak, gubiak, tolestaileak, basa eta buztinezko ontziak, sokak eta kolore guztietako hariak, lodiak eta luzeskak, esku-zerrak eta inoiz ikusi gabeko eztenak, toxikotzat neuzkan likidoz betetako azpilak eta identifikatzen ez nituen tinduak, metalezko xaflak eta txirbilak, era guztietako egurrezko ziriak, orratzak, iltzeak, tatxetak eta hebillak, aizkora ttikiak, kartaboiak eta konpasak, guraizeak, paperak eta paperak nonahi, pleguetan tolestuak edo tiratan ebakiak. Gogoan daukat une batez hankaondoari erreparatu eta sor eta gor geratu nintzela, neureganatuz, nire begien aurrean Puppak higatzen zuen larruazala nire ezkerreko hankakoa zela.

Sukaldeko sutegi gainean bi eltze zeuden. Bat, egostekoa zen, eta haren barruan, Puppak azaldu zidanez, ura, irina, almidoia, alunbre-harria hautsean eta trementina irakiten ari ziren, dena ondo nahastu eta astiro egosten jarria liburua kolatzeko ur-ahia egiteko. Bestea, buztinezkoa, lau litro ozpinez bete zuen eta, haren baitan, burdina-zati zaharrek eta burdinazko sulfato pixka batek flotatzen zuten: zopa astun hartatik tapetako azala jaspeatzeko tindua aterako zen, eta hari ere desatsegin irizten nion. Kolore horiko geruza bat eman behar zion alde aurretik, eta prest zeukan pote batean anilina urarekin nahastuta. Usain betegarriegi eta pixka bat narkotikoarekin eraso egiten ziguten lurrin ugaria isurtzen zuten eltzeek; bere aldibereko bor-borra izan zen une batez isiltasuna aldatzen zuen doinu bakarra, non Puppa isildu ondoren sartu ginen, niri ezein ihardespén bururatu gabe. Alabaina, gizon haren adats zuri-zurian (lan egiteko, mototsean biltzen zuen), edo agian gorputz adindun baina oraindik sendoan, bere konpainian konfiantza sentiarazten zidan halako duintasun bat antzematen zen. Ez dakit hark konpartitzen zuen sentazio hura; edozein moduz, ez zuen kontuan hartu beharreko inolako arriskurik ikusten ni bezalako elbarri batengan. Luzaroan egon ginen horrela, hainbeste arrangura ematen zidan larruazal ondu hartan okupatuta bera, eta ni eserita, bi eltzeen bor-borrari beha, kanpotik haizetearen txistu suminak, elurraren pean eta abiatu zen ekaitzaren oldarraren eraginez okertutako zedroen adaburuen intziriak iristen zitzaizkigularik.

Bai, neguko gau luze eta gordina izan zen hura: gaurko prestatzen ari dena bezalakoa, ez da, adiskideak? Ongi, elurrak ez badigu gure etxeetara itzultzen uzten, hemen tabernan aterperik onena izango dugu, ez duzue uste? Emaidazue beste garagardo-txarro bat! Edo ardo berokoa, berdin dio: nire adinean atsegin gutxi daude, eta, oraindik disfrutatu ahal ditudanen artean, edatea da nire kuttunena. Egia da, edatea gustatzen zait, eta zuek, adiskideak, gustukoa al duzue gaurkoa bezalako gauetan nik istorio hau azaltzea? Nola? Zuk eta arasaren alboan eserita dagoen hark ez duzuela sekula entzun? Ados; orduan, eta gainerakoei ez bazaizue inporta, hasierara arte atzeratu eta xehe-xehe azalduko dut: ez da kontakizun luzeegia ere! Baina bitxia bada... Zuek adi egon nire txarroa uneoro hustu ez dadin, eta nik azalduko dizuet nolatan bihurtu nintzen begien

aurrean daukazuen erren hau, eta ezbehar honen ondorioz, nola izan nintzen Pupparen eta Mariaren istorio enigmatikoaren parte. On egin!

Gazte nintzelarik, duela urte asko, beti izan naizen bezain txiro nintzen ordurako, eta marmol-harrobi batean harri-txikitzen irabazi behar nuen soldata, Pilsenetik ez urrun. Egun malapartatu batean, negua hurbil eta goizeko hotza bizargile baten labanak bezala mozten hasia zelarik, harrobiaren hondoan nengoen ni, mineralaren pieza lodiak mazo baten kolpez txikituz. Lan hura nekoso zen: marmolezko plaka eta bloke handiak atera behar ziren, mailuarekin eta xixelarekin itsatsita zeukaten zaborra garbitu, eta gero, gizon bat baino astunagoak ziren mazo haiek erabiliz, zati ttikiago bihurtu eta, eskuekin eta txirriekin lagunduz, ontzietan batu, harrobiko maldan goraino herrestan eramateko. Han goian, harri haiek denak olan batzuen barruan sartu eta, gurdietan kargatuz, biltokietaraino eramaten ziren, eta hola egun osoan, goizalbatik eguzkia etzan eta areago, elurretan zein euripean.

Beraz, hantxe nengoen ni hotzez akabatzen, mazo lodiarekin ekinean, eta hara non, goikoak entzuten ditut alarma-hotsak egiten eta nire atzean sekulako zalaparta. Burua biratu nuen, baina bat-batean kolpe bortitz bat jaso nuen bete-betean kopetan: hainbeste, non konortea galdu eta naizen beste luze jausi nintzen. Gero jabetu nintzen txirrika baten soka erdi usteldua apurtu egin zela, eta beraz, bazterrera iristeko puntuan nengoelarik, goraino kargaturiko ontzia zeraman guztiarekin irauli eta, eduki osoa harrobian behera labaindu zen lubizi baten gisara. Azkarregi gertatu zen dena, jausia ni bete-betean harrapatu eta lurperatuta utz nazan ekiditeko: orduak behar izan zituzten nire lankideek harkaitz haien guztien azpitik ateratzeko, konbentzituta hilik aterako nindutela. Harriduraren harriduraz konprobatu zutenean ez zela hola izan, gurdi haietako baten barruan agudo ipini eta, uztartuta zeuden bi mandoek ahal izan zuten azkarren, herririk hurbilenara eraman ninduten.

Begiak ireki nituenean ohartu nintzen, albaitari baten etxeko portxe azpian kokatutako koltxoi baten gainean luze nengoela, albaitari hura zelarik ni artatzeko topatu ahal izan zuten mediku baten antzekoena. Bazirudien saralearen eta abere-gorotzaren sunda sakon eta hotzak nire sudurra bete eta, zuzenean eta oinarriaraino, burmuinean sartzen zitzaidala, zeinak, iltze bat sartuta baneuka bezala, burrunba egiten zuen. Bularrak eta saiheskiek ere min handia ematen zidaten, baina zalantzarik gabe minik intentsioa ezkerreko hankatik zetorkidan, nondik su-uhinak sortzen zitzaizkidan gerria eta sabela bizkarrezurreraino hartuz. Odolaren zapore bero eta gozoa sentitzen nuen aho barruan, eta, non nengoen galdetzeko hura irekitzen saiatu nintzenean, jabetu nintzen nire hortzekin itotzen ari nintzela, apurtuta baitzeuden marmolezko printzak bezala. Gorroek eta eztulek konbultsionatzen nindutelarik, besoak indarrez kateatu eta sokaz lotzen zizkidan gizonezko baten eskuak nabarmendu nituen. Jarraian, albaiteroaren hatzek ahoa ireki zidaten zatar irristakor batzuekin egindako pilota batekin-edo butxatzeko, eta azkenean, taloi-azpian egurrezko zati bat kokatzen arduratu zen, hanka airean mantentzera behartuz eta, era horretara, minaren suzko uhin haien intentsitatea areagotzen zitzaidalarik. Ezin nuen besterik egin; izatez, apenas lortzen nuen sudurretik arnasa hartzea. Harrobiko lankide baten ahotsa entzun nuen, murmurikatuz: “hilko dik, ezin izango dik jasan”. Hori nork esan zuen asmatzen saiatu nintzen, begirada lausotua behartuz. Ez nuen inor identifikatu, baina, aldiz, metalezko objektu bat antzeman nuen, eguerdiko argi gaizberaren islarekin nire gainean distiratsu. Aizkora baten orria zen. Orduan ulertu nuen zer zen: desesperaturik, altxatu eta ihes egin nahi nuen, baina ezein mugimendu egin baino lehen, albaiteroaren indar osoarekin jaitsi zen aizkora. Karraska siniestroa entzun zen, eta gero nire hankaren kolpe ahula, portxeko lurrean babesik gabe eroriz, nire gorputzetik betiko bananduta. Haluzinaturik, zatarra ahotik jaurti eta txerriak hilketan bezala marru egitea lortu nuen, baina albaiteroak berehala isilarazi ninduen egur-labe piztutik burdina bat atera eta zaurian ezarriz, isurtzen zitzaidan odol-jarioa eten eta kauterizatzeko. Argi dago hiltzat hartzen nindutela, beraz ez zegoen alde handirik larriki zaurituta hiltzen uztearen edo modu drastikoan artatzen saiatzearen artean.

Ostera galdu nuen konortea, eta, ondotik gogoratzen dudana da begiak ireki eta aurrez aurre egin nuela topo azal fin, begi ilun handi, ezpain haragitsuko emakume batekin. Gogoratzen dut baita ere, ezkerreko hanka gurutzatzen zidan oso oinaze intentsoak eta ereizio bikain baten ustekabeko bulkadak torturatzen nindutela: nire lehen bulkada, begiesten zidan aurpegi serafiko hura besarkatu, jantziak atera eta han bertan, edozein izanda nengoen tokia, fornikatzekoa izan zen. Eta beraz, nire besoak, baldres, aurpegi hartarantz luzatu eta lizunkeriaren bat bota nuen, baina hura, irribarre lasaiaz, pixka bat apartatu eta biratu egin zen norbaiti esateko: "biziko da". Orduan konturatu nintzen monjen komentu batean iratzarri nintzela. Ohantze batean etzanda nengoen gela, soila eta lehorra, olioeko kriseilu batek argizatuta zegoen, nahikoa nire aingeruaren soslai bereizteko, abituz berdin jantzia ateko atalasean, zimurtu eta dardarti, zegoen zaharra ez bestelakoa. Hondoko pareta belzten zuten itzalen artean egurrez tailatutako santokristo bat nabarmentzen zen, hodei desatsegin bat bezala, eta une hartan hotzikara arrotza sortu zidan. Albaiteroaren terapiatik bizirik irten nintzela harriturik, eta nirekin zer egin ez zekitelarik, nire lankideek Gure Jaunaren zerbitzarien esku uztea erabakiko zuten.

Eriondoko egun lasai batzuk jarraitu ziren, zeinetan nire mutilazioaz jabetzen saiatu (hanka, ikusi ahal duzue, ia iztondo parean moztu zidaten), eta makuluarekin lagunduz ibiltzen saiatzen nintzen, paseo luze eta patxadatsuak egiten komentuko patioaren inguruan, maiz sor Concepciónekin batera, horixe baitzen bere bizitza erlijiosoan nire aingeruari inposatu zioten izena. Ordura arte ezezaguna zitzaidan galaitasunez arduratu zen nitaz: muinoiko zauria gazekin, talko-hautsekin eta iodo-tinturaz artatzen zidan, indarrak eta kolorea errekupeztatzen zidan salda bikainak prestatzen zizkidan, eta, ahizpak, otoitzera deituak izan ohi zirenean, maitinetan naiz bezperetan, berak erregu egiten zuen nire errekupeztazio arin eta osoaren alde. Hunkituta neukan eskuzabaltasun hark, nahiz eta agian ez —eta lotsa sentitzen nuen—, bere abituaren oihal latzen azpian iradokitzen ziren biribiltasunek, delikatuak baina irmoak eurak, aztoratzen nindutenek bezainbeste.

Bere karitatearen oparia egin ez ezik, nire egonaldi behartua letra batzuen hastapenak irakasteko baliatzea erabaki zuen sor Concepción. Bazkal ostean, komentuaren hondoa zegoen ikasgela xume batera gidatzen ninduen, eta han pupitre batera eserarazita, mezaliburu eta biblien aurrean, gure hizkuntzari dagozkion zeinu-konbinazio arraroak deszifratzen irakasten saiatzen zen. Esan beharra daukat asko kostatzen zitzaidala, eta, saiatu arren, soilik monja berezi haren usain, ahots eta gorputzean kontzentratzea lortzen nuen. Egun batean, nire ezgaitasunarekin lotsatuta, liburuetatik urrunduta bizi izana deitoratu nuen, eta heldua izanda, zenbateraino zail ikusten nuen nire analfabetismo osoaren langa apurtzea. Hainbeste non, esan nuen, egun haietara arte ez nuen ezein liburu ukitu izana gogoratzen. Orduan sor Concepción modu bitxian egin zuen irribarre, eta aditzera eman zuen oso posible zela liburuarekin kontaktua izatea, nahiz eta nik jakin ez. Hitz haiekin zer esan nahi izan zuen galdetu nionean irribarre ezohiko hura marraztu, etenaldi luze bat egin, eta, azkenean, sekretu bat azaltzen duen aire misterioitsuarekin, Pappa zaharrari buruz mintzatzen hasi zitzaidan.

Inork ez zekien ezer ziur, eta berak ere ez zuen inoiz hura ikusteko beta eduki, baietsi zuen sor Concepción, baina kontua zen Papparen izena ahoz aho zebilela Pilseneko herritarren artean, hura iritsi zen egunaz geroztik. Urte pare bat lehenago gertatu zen, gogoratzen zuen monjak, eta ikusi izana ziurtatzen zuten batzuek: itxura basatiko gizona, soilik begiradarekin beldurra sortzeko gai. Sor Concepción, orde, uste zuen deskripzio haiek berriak besterik ez zirela, eta nahiago zuen pentsatu ezen, beste erreferentziarik ezean, jendeak mamu bat asmatzea erabaki zuela. Segurua zena zen, abandonatutako artzain-txabolara batean instalatu zela, aldirietan, eta udal-hiltegitik eta inguruetako baserri batzuetatik abere-larru batzuk ekarrazten zituela bertara. Larru-sortak eramateko txabolara iritsi ziren gazteak bat zetozen fantasia gutxi-askorekin holako eszena bat deskribatzen: txabolako atera iritsi, eta luzaroan jotzen zuten, erantzunik jaso gabe. Harik eta goiz ala berant aurkitzen zuten arte, heldulekutik zintzilik atearen alboan, larruzko poltsa bat zilarrezko pieza batzuekin, zeinen balioa larruena baino askoz handiagoa zen. Orduan sorta ate ondoan utzi, poltsa txanponekin hartu eta etorri ziren lekutik aldentzen ziren, izututa. Pixka

bat geroago ausartagoren bat txabolarainoko bidea berregiten ausartzen bazen, konprobatzen zuen larruak ataritik jasoak izan zirela.

Jakina, behin eta berriz espekulatzen zen zer egiten ote zuen Puppak larru haiekin guztiekin. Gustu guztietarako iritziak zeuden, zioen sor Concepciók, baina berak uste zuen liburuak egiten zituela. "Liburuak"?, galdetu nuen harriduraz. Modu zoragarrian irribarre eginda, erantzun zidan huraxe zela jende guztiak egiten zion galdera bere ustea formulatzen zuenean. "Bai, liburuak", errepikatu zuen irribarre egiteari utzi gabe. Eta erantsi zuen: "Liburuetatik aldenduegi bizi gara denok, nire ahizpak ere bai, hemen, komentu barruan, ematen du liburuekiko beldur direla... Garrantzitsua da haiek gu babes gaitzaten uztea, garrantzitsua da gure larru hilkorra liburuen azalean dagoen zera iraunkorarekin blaitzen lagatzea".

Eta isildu egin zen. Aitortu beharra daukat ez nuela ulertu zertaz ari zen, baina intuitzen hasia nintzen zer esan nahi zuen lehenago liburuekiko nire kontaktu inkontzientea aipatu zidanean. Orduan nire ezkerreko hanka...? Bai, aditzera eman zidan sor Concepciók, hanka moztu zidaten egun berberean erreklamatu zion Puppak albaiteroari, eta hark bere hartan eraman zuen txabolara, zatarretan bilduta, bildots sakrifikatua balitz bezala. Eta are beste xehetasun bat erantsi zuen: txabolako heldulekutik zintzilik zegoen larruzko poltsaren barruan albaiteroak ez zituen zilarrezko pieza ohikoak aurkitu, baizik urre trinkoko eskukada zabal bat.

Ez nuen inolako iruzkinik egin, baina sinistu iezadazue, arratsalde haren ondotik, ezin izan dut ondo lo egin. Gauetan amets artegek eraso egiten zidaten, eta izerdi-patsetan esnatzen nintzen, bihotzak bular barrutik jauzi egingo zidalakoan. Hartaz pentsatze hutsarekin larrimina datorkit, baina ziur ardo beroak berotuko duela. Ekar iezadazue beste txarro bat! Hainbeste hitz, ahoa lehortzen zait, nahiz eta zuek ez bazarete nekatzen, ni entzunda istorioko azkenera iristea agintzen dizuet, zeinari buruz, zintzo izate aldera, oraindik ez dut ezein azalpenik aurkitu. Behar bada, hainbeste urte pasata, zuek lagundu ahal didazue... Halaz guztiz, eguraldiak ez digu beste ezertara gonbidatzen: entzuten al dituzue haizetearen marru eta txistuak? Entzuten al duzue zer indarrarekin jotzen dituen euriak leihoetako beirak? Ikusten al duzue, haien tartetik, zein belztasun sarri eta sumina? Konturatzen al zarete tabernariaren katua nola paseatzen den artaga hara eta hona, sutondoan makurtuta egon ordez? Ez, hau ez da une egokia zuen etxeetara itzultzeko, eta bitartean ezingo zenuten taberna honetako babesa baino ezer hoberik aurkitu, bere sukaldea ezpalez beteta beroa eta sua eginez, eta espiritu onak gordetzen dituen bere haritzeko kupelekin. Eta, esatea zilegi bekit, nire konpainia umilarekin: herbal honenarekin, jada aguretuta itxaronaldiak irauten duen bitartean nola entretenitu jakingo baitu... Baina, tabernari, bete nire txarroa, ez baduzue nahi Amabirjinaren hezurretan nola zikintzen naizen entzun!

Kontua da laster ohartu nintzela ezen, lo lasaia lortu nahi banuen, Puppa haren bila joan eta argitu beharra neukala zein helbururekin erreklamatu zion albaiteroari nire hankaren gorpuzkia. Baina arratsalde batean, nire komentuko pupitrean eserita nengoela, sor Concepciórekin komentatu nuenean, ez egiteko gomendatu zidan, hobe zela Puppa ez eragozte, eta gainera oraindik aski ahul nengoela mendira, artisau arraro haren aterperaino, igotzeko. Batik bat azpimarratu zuen, berak Puppari buruz intuitzen zuenagatik, komenigarriena ez eragozte zela. "Eragotzi"?, galdetu nuen. "Nork dauka motibo gehiago eragozteko? Azken finean nire hankaz ari gara...". Baina sor Concepciók ordura arte ezagutzen ez nion autoritate-keinu batekin moztu eta hitz idatziak ulertzeko saio xumeetara itzultzeko agindu zidan, nire oinazeak isilean deitoratuz.

Alabaina, Pupparekin elkartzeko nire proiektuan, nire buruko auskalo zein plegu urrunetan sortutako agerkundeekin aurrez aurre jartzen ninduten amets haietatik libratzeko esperantza neukan jarria. Lo egin nahi nuenean, irudi sukartsu-andana inkoherentea abiatzen zen supituki, eta haietako batzuk errepikakor bilakatu ziren: buztinezko gizon zahar bat hurbiltzen zen niregana, besoak luze eta hankak zurrun, ezerezean flotatzen zuela zirudien giza figura bat sudario distiratsu batean bilduta, hormak ispiluz beterik zeuzkan ezkon-ganbera bat, sor

Concepció eliza bateko aldare pean etzanda bere biluztasuna niri lizunki eskainiz. Nik jasan ahal nuena baino gehiago zen hura dena, eta nik ezin nuen ekidin lokarri intuitibo bat ezartzea amets artegarriekin eta auskalo zein intentziorekin nire hanka eskuratu zen albistearekin. Horrela bada, nire monja desiratuaren aholkuei desobeditzea erabaki nuen. Afaldu ostean nire gelara erretiratu nintzen, ilundu arte itxaron nuen esna eta, ilargirik gabeko gauaren belztasuna baliatuz, arreta handiz, komentutik ihes egin nuen ahizpa guztiak lo zeudelarik. Puppa bere txabolan bisitatza nindoan.

Ez zitzaidan batere erraza egin. Jabetzen nintzen nire ahultasuna oraindik handia zela, et ez nekien gai izango ote nintzen distantzia handia egiteko nire makuluaren laguntzarekin. San Bertomeu elizatik –komentua haren dorre erraldoiaren abaroan zegoen– Pilseneko aldirietarainoko ibilbide hutsak ahalegin berezi-berezia eskatu zidan eta, behin hura eginda, ez neukan batere argi nire pausok zein norabide hartu behar zuten. Landetan zehar abiatua nintzen batere pentsatu gabe, eta gau osoa noraezean eman nuen bide estu eta nekazaritza-soroetan barrena, itzulingurua gero eta neketsuagoa eginez. Egunsentiak ahituta harrapatu ninduen, galtzu-soro batean jesarrita, goizaldeko haize izoztuak eraginda mugitzen zen arranpalo batean bizkarra bermatuta, eta soilik haize izoztu hark galarazten zidan han bertan lokartzea. Goizeko lehen argiak sor Concepció ekarri zidan akordura, zeina ordurako atsekabetuta egongo zen nire ausentziaz jabetuta. Horrek, eta uneoro nigan ipinitako txeraren kontsiderazioak, desolazio erruduna sorrarazten zidaten, toki ezezagunetan galduta nengoen ziurtasunak biderkatzen zuena. Nola aurki nezake Pupparen txabola?

Egunaren argitasuna pixka bat hedatu zenean, ni nengoen ordokiaren monotoniaren kontrakarrean, pinu-basotxo bat bistaratu nuen, maldan gora abiatzen zena. Premonizio bat izan nuen, eta abiatu egin nintzen, zuloz betetako bideko hautsean makuluarekin haztamuka. Ibilbide-ordu amaiezin eta bakarti iritzi nion tarte baten ondoren (zer dela-eta inor ez zihoan lanera soro haietara? Zergatik ez nuen nekazari bat bera ikusten, orientatzen lagunduko zidana?), pinudia igotzen hasi zen puntura iritsi nintzenean, erabat nekatuta nengoen. Zuhaitz haietako baten abaroan eseri eta ametsik gabeko lo astun batean murgiltzea gauza bera izan zen.

Erabateko nahasmenduan ireki nituen begiak: ez nuen gogoratzen non nengoen ez eta nola iritsi nintzen bertara, ez nekien zenbat ordu egin nituen lo (orduak?, egun oso bat?), eta nire aurrean, intsektu potoloegia banintz bezala behatuz, bizitzan lehenengoz ikusten nuen gizon bat zegoen. Adindua zen, baina bere gorputza altu eta sendoa; beso batetik zintzilik saski bat zeraman, eta eskuineko eskuan bastoi bat, zeinarekin bultzatu egin zidan, bizirik ala hilik nengoen konprobatzeko. Begiak igurzten nituen loaren armiarmatik libratzeko, baina ez nuen deus esaten. Isiltasuna urratu eta ahots sakonarekin esan zidan:

—Ondo al zaude? Zer egiten duzu hemen?

Une hartan, modu kaotikoan, komentuko ihesaldiaren irudiak etorri zitzaizkidan, arranpaloa ordokiaren erdian aieru txar bat bezala, igoera zail-zaila basoaren hasieraino. Arrazonagarria dena baino denbora gehiago behar izan nuen haiek ordenatzeko; azkenean, erantzuteko gauza izan nintzen:

—Ari naiz... Puppa zaharraren txabola bilatzen ari naiz.

Gizonak begiak zabaldu zituen, gero bekaina uzkurtu. Tarte bat utzi zuen ihardestea erabaki baino lehen:

—Ni naiz Puppa, txo. Uste dut laguntza behar duzula.

Eta bere eskua eskaini zidan, indartsua, zabala, hari heldu eta altxatu ahal izateko. Ez zidan galdetu, eta ez zidan deus besterik esan: nire besoa bere lepotik pasarazi eta basoan barrena abiatzen lagundu zidan, belar txar eta hostajea maiz ezabatzen zen bidezidorretik igo eta pinudiaren bihotzera iristen zena bera, non bere txabola egongo zen. Bere besoa dilindan zebilen saskia ikusteko beta izan nuen, eta goroldioa, enbor-azalak eta erretxina gordetzen zituen. Berak bere makilarekin gure ibiltze konplikatu zurkaizten zuelarik –haize hotza haserre ekaitzaren berri emanez, eta zahar bat eta erren bat ez dira, zinez, bikote ona bidea egiteko–, haren ahulezia kontsideratzen nuen nik, ermitau hari buruz sor Concepciók emandako

informazioarekin kontraesanean baitzegoen. Behar bada, pentsatu nuen, nire gorputz higatuari begirada bat ematea besterik ez du behar izan nire bisitaren arrazoiak jabetzeko.

Eta halaxe zen. Handik gutxira bere bizitoki xumera iritsi ginenean, muinoan soilgunea egin eta txabola eguraldiaren gorabeheren esku uzten zuen zati lauan eraikia bera, Puppak gerrian lotuta zerman zakuto baten barrutik giltza atera, atea ireki, barrua seinalatu eta esan zuen:

—Hor daukazu zure hanka.

Atalasea gurutzatu orduko durduzatu ninduen lehena ur-ahia eta tindua egosten ziren bi eltzeek isurtzen zuten lurruna izan zen: usain oldarkorren nahasketa bat, oro har zapore gozo eta pixka bat hordigarria uzten zuena, egosten zireneko su biziak isuritako berotasunean jalkia. Baina ez ninduen gutxiago harritu praktikan pieza osoa —salbu suak betetako espazioa, eta konpondutako manta batek estaltzen zuen koltxoi latz bat zegoen txokoa non, indiferente, beste edozein bezalako katu bat lotan zegoen— betetzen zuten lanabes sakabanatu eta hedatuen ikuste desordenatuak. Edozein moduz, atentzioa gehien erakarri zidana hiru liburu-meta handi izan zen, gelaren hondoan pilatuta, eta bi lan-mahaiak, bata bestearen alboan ipinita, txabolaren erdia okupatzen zutena. Haietako baten gainean, metal eta zurezko tresna eta zatiz inguratuta, larruazal bat zegoen hedatuta, landua izateko prest. Bistakoa zen haren jatorria. Erabat nahastuta, Pupparengana itzuli eta galdetu nion:

—Baina zein da zehazki zure ofizioa?

Eta berak, suetatik adaxka bat piztuta hartzen zuelarik olioizko lanparari ezartzeko, erantzun zuen trebe:

—Koadernatzailea naiz, txo. Liburuetarako tapak eta bizkarrak egiten ditut. Denboraz eta sitsez babestu, eta edertu egiten dituzte.

Isilik geratu nintzen, pentsakor eta lehen bezain nahastuta. Sor Concepciónen irakaspenak irakaspen, une hartara arte sekula ez nuen pentsatu inork, ofizio bakartzat, liburuak forratzea izan zezakeenik. Nire harridura ikusirik, Puppak egoki ikusi zuen beste argibide bat ematea:

—Giza larrua behar nuen liburu bat koadernatzeko. Liburu handi bat ez denez, aski izango dut zure hankaren larruazalarekin. Apropos: sentitzen dut zure istripua, eta espero dut ez molestatu izana zure hanka anputatua eskuratzeko izan nuen atrebentziarekin.

Eta beste zeremoniarik gabe, tresna haietako bat hartu, intxaurrondozko mahaiaren gainean adorez makurtu eta espatularekin nire larruazal jada onduari igurtziak egiten hasi zen, goitik behera, berdintzeko xedez. Ez nintzen nire harriduratik irteten. Azkenean oster a galdetu nion, haserre:

—Baina, zergatik? Ez al dizu balio bildots baten, txerri baten edo txekor baten larruak? Zergatik landu behar duzu preseski giza larruarekin?

Gizonak bere lanari utzi, adats zurian mototsa egiteko baliatu, begietara zorrotz begiratu eta aztoratu ninduen arte eutsi zion nire begiradari. Orduan esan zuen:

—Zure galderaren erantzuna emakumezko baten izena da: Maria.

Baina bat-batean begiak apaldu eta bere zereginean kontzentratu zen oster a, nire presentziaz kanpo, eta nik aulkitxo bat hartu eta sorgindurik eseri nintzen, ikusteko, nola nire larruazala manipulatu eta artisautza-pieza bihurtzen zen. Horrela, isilik, tarte luzea egin genuen, harik eta ikusi genuen arte kanpoan iluntzen ari zuela, eta ekaitzak uneoro indar handiagoa hartzen zuela. Une jakin batean, Puppak larruazala eta espatula utzi, lau oinkadaz koltxoitik hurbil zegoen biltegi bateraino iritsi, atea ireki, platera bat, ogi samur eta ahuntz-gaztarekin, eta larruzko zahagi bat hartu zituen. Platera beste aulkitxo baten gainean utzi, eta gero, eskuak trapu hezez babestuta, eltzeak suetatik erretiratu eta kanpora eraman zituen, txabolako ate aurrera, zeina berehala itxi zuen, haizetearen orroa uxatuz-edo. Bere baitarako mintzatuz-edo, marmartu zuen:

—Euri-ura ona da nahasketetarako.

Jarraian, beste aulkitxo batean jesarri, platera ogia eta gaztarekin belaunen aurrean jarri eta keinu bat egin zidan eskuarekin.

—Hurbildu zaitez, txo. Berotu eta pixka bat afalduko dugu. Botatzen ari duenarekin, barkaezina litzateke nirekin egotera ez gonbidatzea, ez da? Azken finean denbora gehiegi da inorekin hitz egiten ez dudala.

Makulua esku batean eta nire aulkitxoa bestean, suen beste aldera abiatu eta Pupparen aurrean jesarri nintzen. Argilun lehorrak, lanpararen argi eskasak eta eltzeen lurrin likistua mugatuta, ekaitzen doinu suminak sorrarazten digun guztitik urrun egotearen sentsazioa gehitzen zuten. Trumoiaren zaratak, oraindik urruna baina berdin arriskutsua bera, konbatean sartu aurretik danborrak jotzen dituen armada zekarren gogora. Gau hartan zerbait pentsaezinarekin borrokatu beharko nuen susmoak hartu ninduen, baina momentuz Pupparen besoa neukan, buztinezko plater bat eta koskaz beteriko adar-kirten bateko labana eskainiz:

—Sentitzen dut urdaiazpiko-xerra batzuk ezin eskaintzea, baina ardo honek eta gazta honek, aho-sabairako indartsuak diren arren, gorputza suspertu eta espiritua biziberritzen dute. Hartu, konplimendurik egin gabe.

Gazta-xerra hartu eta zahagiko ardoa dastatzera nindoalarik, Puppak osteria askatu zituen ezpainak:

—Dibertitzen zarela ikusten dudalarik, nire ofizioari buruzko gauza batzuk azalduko dizkizut.

Eta orduan bere lakonismoa betiko abandonatu eta berbaldi azkar bat egin zuen koadernazioaz eta haren orokortasunei buruz. Oparotasunez eta gero eta suharkiago mintzatu zitzaidan, material eta tresnei buruz, paper-, kartoi-mota eta haiei zegozkien manufaktura-prozesuei buruz; txabolaren atarian hozten ari ziren bezalako tindu eta ur-ahiek prestatzeko zeuden formulei buruz trebatu ninduen; babesorriak zer ziren, lortzeko eta mozteko forma ugariak erakutsi zizkidan; aparatu mekanikoekiko bere higuina jakinarazi zidan, han metatuta ikusten nituen esku-tresnak bezalako zaletasunari buruzko arrazoi ia sentimentalak azaldu zizkidan; piezak erakusten zizkidalarik, eskoplo-, matxarda-, labana-, konpas-, zizaila- eta guraize-familia osoak zenbatu zizkidan; larru- eta oihaletan zenbatesinekin lan egiteko orduan zeuzkaten abantaila eta desabantailak xehatu zizkidan; dagokionean kolatzeko eta apaintzeko erabili ohi diren brotxa- eta pintzel-ugaritasunaren errepeaso osoa oparitu zidan; arrautzaren zuringoaren zein gorringoaren onezien, eta berdin garagardoaren lupuluarekin eta hainbat disoluzio eta hauspeakinekin liburuaren akaberan lortzen diren efektuen berri eman zidan, eta, egoki iritzi zionean, gauza bereziagoak aipatzen hasi zen, jaspeatzea, bozelkatzea eta doratzea, mozketen arraspatzea eta leunketak, adibidez.

Ekaitzak bete-betean basotxoa errukirik gabe nola kolpatzen zuen entzuten genuen, baina ni nire buruari galdetzen hasia nintzen ez ote zen hobe elementuen haserreari aurre egitea, Pupparen ahotik jariatzen zitzaidan zaparrada hari eusten saiatuz sutondoan egotea baino. Isiltasun- eta bakartze-tarte handi baten ondoren, koadernatzaile zaharraren hitz-parrasta halako moduan abiatu zen, non bere kordea osorik mantentzen ote zuen zalantzan jarri nintzen, eta lehenago ematen zidan konfiantza-sentimendua desegiten ari zen. Nire aldetik aspaldi afalduta nengoen, eta gizon haren bakarriketari ez nion jaramonik egiten, hainbeste non jada ez neuzkan gogoan txabola hartara, halako nekez, eraman ninduten motiboak ere: nire anfitrionaren katua esnatu egin zen trumoiakarekin, eta txabolan gora eta behera zebilen beldurrez beteta, eta ni hari begira distraitzen. Orduan, sor-Concepción nigan sorrarazten zituen desioei buruz, eta komentuko ikasgelan haren ondoan igarotako ikasketa-arratsaldean gomuta atseginei buruz gogoetak egiten ari nintzen.

Pentsamendu haiek Maria izeneko emakumezkoari buruz Puppak esandako hitzak ekarri zizkidaten burura, eta orduan berriketaldiarekiko interesa berpiztu zitzaidan: zer zerikusi zeukan ezezagun batek giza azalarekin, nire larruazalarekin, liburuak forratzeko ideia makabroarekin? Pupparen berbaldia moztu nuen, liburuaren bizkarren nerbioak margotzeko teknikak alde batera utzi eta ore espainiarra tindatzeko albumina-hautsen aplikazioari buruzko goratze neurrigabea abiatzen zuen unean:

—Eta zer azaldu ahal didazu lehen aipatu duzun andreari buruz?

Bat-batean isildu eta begirada kiskalgarria bota zidan Puppak. Nabari zegoen nire etenaldiari kalifika ezezko ausarkeria irizten ziola. Aulkitxotik altxa eta hainbat pauso luze eta urduriak eman zituen gelaren inguruan, inongo norantza zehatzik gabe. Gero erdiko bi mahaietara hurbildu, paper-plegu batzuk urduri mugitu, eta berehala kontzentratu zen larruazala espatula batekin higatzeko zereginean. Bere mugimenduak, ordea, zakarrak eta haserretuak ziren orain,

eta bere isiltasunak kexu aski ozena gordetzen zuen. Minutu gutxi batzuen buruan jasanezina egiten zitzaidan. Ostera mintzatu nintzen:

—Ez neukan inolako intentziorik nire galderarekin molestatzeko, Puppa. Banoa.

Makulua hartu, zuzen paratu eta aterantz biratu nintzen, joateko erabakita. Azken finean nahiago nuen ekaitzaren oldarrei aurre egin ero baten berbaro eta destaina jasan baino. Haizearen txistu beldurgarriak entzuten ziren, gero eta suminago. Burua altxatu gabe, Puppak esan zuen:

—Han kanpoan txakur bat bezala hilko zara ordubete baino lehenago, txo, eta bihar sarraski hutsa izango zara basoa elikatzeko. Eseri zaitetz ostera sutondoan.

Zalantza izan nuen. Oraindik burumakur, Puppak errepikatu egin zuen agindua.

—Itzuli sutondora.

Esaten zidan bezala egin nuen. Behin erdi-erdian eserita, katua niregana hurbildu eta magalera egin zidan salto. Ekaitzaren eraginez beldurtuta zirudienez, errukitu egin nintzen eta burua eta bizkarraldea laztandu nizekion. Bitartean, Puppak lana utzi eta txabolaren hondora abiatu zen. Lurrean metatutako liburuki haietako bat hartu, niregana etorri eta ardura handiz utzi zidan nire eskuetan:

—Ukitu ezazu. Zer nabarmentzen duzu?

Liburua hartu eta haren tapak eta bizkarra haztatu nituen, ireki gabe. Arestian ikasitako letrekin, titulua eta autorearen izena irakurtzen saiatu nintzen. Italiarra izango zen eta Colonna zeritzan; Titulua, *Hypnerotomachia Polifili*. Bizitza osoan gogoratuko dut, nahiz eta, jakina, inoiz ez nuen holako ezer entzun. Ostera ukitu nituen tapak, eta konturatu orduko, laztantzen ari nintzen: emakume batena bezain atsegina eta beroa zen, bere biluztasunaren betetasunean. Nire laztanik gabe katuak salto egin eta pixka bat urrundu zen. Argi zegoen Puppa bikaina zela bere lanean. Baina, ez nekien zer erantzun bere galderari, eta beraz berak erantzun zuen:

—Sentitzen duzun hori babesa da. Liburuetatik aldenduegi bizi gara... Esan nahi dut haiek gu babesten utzi beharra daukagula, gure azal hilkorra liburuen azalean dagoen zera iraunkorrarekin blaitzen laga. Liburuek heriotzatik urruntzen gaituzte.

Zur eta lur geratu nintzen Pupparen ahoan egun batzuk lehenago sor Concepcióri entzundako hitz berberak entzutean. Hari esateko puntuan egon nintzen, baina burua altxatzerakoan, mututu egin ninduen haren begiradak. Ez zeukan haserririk, baizik laztasuna eta tristezia gorde eta sakona. Bat-batean, lasaitzen ninduen konfiantza-hats hura zerion bere presentziari. Eta irribarre egin zuen:

—Benetan nahi duzu nik zuri Mariaz mintzatzea?

Baietz egin nuen buruarekin, esku artean neukan ukitu maitakorrarekin hipnotizatuta. Ostera aulkitxoan eseri zen Puppa, sutondoan, eskuak igurtzi, eztarria garbitu, eta bere kontakizunari ekin zion.

Incipit fabula

edo

Printzesa

Hirira itzuli nintzenean, udaberriko eguzkipean distiratzten ari ziren Pragako dorre guztiak. Hegoan jaio nintzen ni urte ez askoz lehenago, Sumavako izenik gabeko herriska batean, Volary ondoan, nire amaren heriotza baino egun gutxi aitzin. Andrearen babesak galduta, eta haur jaio berri baten erantzukizunarekin, nire aitak –jakin nuenez, justiziatik ihes Austriatik etorritako egurgile bat bera– nekazari gutxi-asko ahaldu batzuei ni saltzea erabaki zuen, nire ardura izan zezaten, eta jornalari bihur nintzaten: zilarrezko hogeita hamar txanpon jaso zituen salmentaren truke, eta jarraian desagertu eta sekula ez zen gehiago azaldu. Sumavako mendi leunen artean hazi nintzen, ia basati bat bezala, nire babesleak, diogun, inoiz arduratu gabe nire instrukzioaz, izenaz ere ez, baina bai esklabu bihurtzeaz: apenas ibiltzeko gai izan nintzelarik ardiak larrean bazkatzen eta txerriak zaintzen ipini ninduten, eta oso txikitatik garagar- eta olo-soroak landu behar izan nituen, behiekin, goldearekin eta aitzurrarekin, eguzki betean eta urterik urtera. Nire tutoreek apurrekin elikatzen ninduten, eta, nire lanarekin pozik ez zeudenean –edo sinpleki umore txarrez altxatzen zirenean–, bizkarra zigortzen zidaten soka batekin odola egin artean. Inoiz ez nuen jakin zein zen nire adina, baina bularra eta hankarteak biloz bete zitzaizkidanean, bizitza miserable hartatik ihes egitea erabaki nuen.

Kinkila salduz Bohemia gurutzatzen zuen ijito-karabana bat bizitokitik pasatzen zela baliatuz, beren gurdi baten barruan sartu eta gatzuna gorde zuen upel huts baten baitan ezkutatu nintzen. Oraindik gogoan daukat nire arindua konturatu nintzenean karabana abian jartzen zela, eta baita ezinegona, ordu batzuen buruan, gatzun-hatsak nire ezkutalekutik irten eta zarata handiz arraultzaz, hestebetez, frutaz eta ortuariz betetako saski batzuen gainean jaustera behartu nindutenean. Gogoratzen ditut baita ere gurdilarien ahotsak, zaldiei geratzeko agindua emanez, iritsi zitzaizkidanean sentitu nuen izularria, eta are gehiago egundoko eskutzar batek gurdia kaxa estaltzen zuen oihala zabaldu zuenean.

—Zer egiten duzu hemen, lotsabako? E? Zimitzak dauzkagula ematen du, anaiok!

Ahotsa erraldoi baten egundoko bularretik ateratzen zen, eta jarraian, gurdia igo, nire alboraino bi oinkadaz iritsi eta belarri batetik oratuta atera ninduen, adurra jaurtiz eta nire arima madarikatzen nuelarik. Bultzada bat eman zidan, eta luze-luze jausi nintzen muturrarekin bideko hautsa joz, lurraren kontrako inpaktuaren mina eta gainerako ijitoen barrealdiak sentitzen nituelarik, eszenaren bueltan batu baitziren.

—Arkakusoz betetako zakur honek jatekoa hondatu digu bere okadekin! –jaurti zuen erraldoiak, gurditik burlaizeta utzi gabe jaitsiz.

Suposatzen dut hark berotu egin ninduela. Urtetako amorrua lehertu zitzaidan kolpez lurretik altxatu, eta, lurretik hartu nuen harri bat eskutan bortizki eutsiz, jauzi egin eta, nire besoaren indar guziz, ukaldi bat eman nion haren bekokiaren erdi-erdian.

—Putakumea! –oihukatu zuen plegatuz, eskuak aurpegian zituela; odol-tanta lodi bat jausi zen haren burutik lurreko hautseraino.

Lehen aldiz arnasa hartzea bezalakoa izan zen. Maitale erotu bat bezala oldartu nintzen erraldoiaren gainean, eta neukan guztiarekin jipoitu nuen: eskuekin, hankekin, haginekin, belaunekin, ukalondoekin. Ukitzen nuen bakoitzean, zauri bat irekitzen nuen, eta erraldoiari irekitako zauri bakoitzeko, uzkuratzen zihoan, ume kexati bat bihurtu arte, eta ni gero eta suhartsuago sentitzen nintzen. Lurrean haur bat bezala makurtuta neukan, eta ni disfrutatzen, aurpegia asmatzen nion ostiko bakoitzeko, odolaren gorritasun ilunarekin hazpegiak nola desitxuratzen zitzaizkion konprobatuz. Egun batzuk beranduago aukera izango nuen jabetzeko, orduko hartan soilik potentzian, ni eraile bat nintzela.

—Aski da –erantzun zuen supituki andre baten ahotsak.

Bazegoen zerbait ahots hartan, agintza-moduko bat, entzumenetik baino barruagotik iristen zitzaidan halako xehetasun bat, zeinak nire basakeriari berehala gaina hartu eta gelditzera behartu ninduen. Itzuli eta konturatu nintzen ezen, oihua egin zuena neska ijito bat zela, ni baino pixka bat gazteagoa, ia-ia oraindik haur bat, nahiz eta bere jarrerak, besoak jasota eta zuzenean nigana seinalatzen zuen labana bezainbeste ahots zorrotzak, emakume oso eta mamitua, erabakimenez betea, aditzera ematen zuten. Gurutzatzen ninduen begirada hartatik nire begiak apartatu, eta erakutsitako ikuskizunagatik ahoa bete hortz zeuden ijito haien begiradak behatu

nituen. Gero erraldoia behatu nuen: lurlean zetzan luze-luze, atorra urratuta, besoak gurutzean luzatuta, begien zuria bere aurpegi odoleztatuaren erdian nabarmen. Arnaskera lodia eta sakona zeukan, lasterketa egitetik edo larrua jotzetik baletor bezala. Gizon bat hiltzeko zorian egon nintzela pentsatuz aztoratu nintzen, baina orduan hark esku bat altxatu eta aurpegian igurtzi zuen, eta bisaia belzten zion geruza ia uniformearen gainean atzamarkada-arrastoa markatu zuen. Eta orduan irribarre egin eta distiratu zuena bere hortzeria zabal eta perfektuaren zurtasuna izan zen. Hark nahastu egin ninduen, baina are gutxiago ulertu nuen hilaritate ulertezin haren eraginez irribarretik algarara pasa eta egundoko gorputza lurlean astintzen hasi zitzaionean. Une horretantxe, neska ijitoak abiatu eta nire aurrean paratu, nire aurpegiari barre egin, bi eskuekin oratu, bekainaren erdi-erdian musu eman eta, begien barruan bere begi-ninien sukar piztua iltzatuz, esan zuen:

—Iritsi zara.

Eta alaitasun-eztanda zabaldu zen ijitoen artean, zeinak bozkariozko ahots eta abesti artean lehertu ziren, nire aurkariak lurretik altxatu gabe ozenki barre egiten zuen bitartean.

Gizon gazte- eta atso-talde batek eurekin joatea eskatu zidaten, eta egun osoa eman zuten abegitasun-keinu onenekin ospatzen: mahai bikaina prestatu zidaten, orein eta basurde erre azpil ederra, urdaiazpikoa eta frutak gainezka zeuzkaten plater oparoak, eta zahagi bat, nondik txinpartak zeuzkala zirudien ardo gorritza isurtzen zen aho barrura: nire bizitzan inoiz ez nuen holako ezer jan, ez edan, eta ostera berpiztuta sentitzen nintzen. Gero toki apartatu batera eramanez ninduten non, ur berotetako ontzi handi bat prestatuta zeukaten garbitzeko: ura hozten zenean, gazteek kanila bat irekitzen zuten hura hustutzeko, eta berehala betetzen zuten oster, su gaintetik ekarritako ur berriko pertzekin; ur barruan olioak eta apar lurrindu eta atsegina sortzen zuen xaboia botatzen zuten. Atso zaharrek, bitartean, masajeak ematen zizkidaten buruan, bizkarrean eta oinetan. Horrela eman zuten arratsalde osoa, eta, agian nire gorputza halako plazeretara ohituta ez zegoelako, gero eta nahasiago sentitzen nintzen. Edozein moduz, ematen zuen gazte- eta atso-saldo hark oso ondo zekiela zer egin eta zergatik, beraz zalantzak eta erresistentziak ez erakustea hobetsi nuen. Iruditu zitzaionean bainua amaituta zegoela, iluntzen ari zuen. Bukatutakoan, oparo brodatutako zetazko tunika batekin azaldu ziren gazteak, eta soineko harekin jantzi ninduten, gerrian moarézko soka batzuekin txirikordatuz.

Karabanarekin batu ginenean, bidetik berrehun bat urratsera zegoen soilgune baten barruan instalatu zuten ijitoek kanpalekua. Sute handiak piztu zituzten eta haragia erretzen zuten su hartan, eta haren inguruan dantzatu eta abestu egiten zuten, etengabe ardoa edanez. Ospakizun haren oparotasunarekin harrituta, gazteek eta atsoek erraldoiaren eta haur ijitoaren aurrean eramanez ninduten. Olan batekin estalitako tarima-moduko baten gainean jesarrita zeuden, nirea bezalako tunikekin jantzita eta zurezko aulki handi batzuetan kokatuta, oparotasunez landuak eta kuxineztatuak eurak, gizon eta andre-talde batek zerbitzatuta, haien keinurik txikienari adi. Ordu batzuk lehenago nik egindako zauriz markatuta zeukan hark aurpegia, sendatuak izan ziren arren, eta haurraren begirada, auskalo argiaren eta suteen eraginez ote zen, lehen baino premiatsuago luzatzen zen. Hura ezkerrean eserita zegoen, eta haurra eskubian; bien artean aulki huts bat zegoen. Erraldoiak irribarre egin zidan, eta bere eskuaren mugimendu batekin euren ondora esertzera gonbidatu ninduen.

Kantuak eta musikak hizkuntza ezezagun batean ahoskatutako arao- eta erregu-modura iristen ziren tarima gainera, eta bazirudien suteek zeruaren belztasun lasaiei eta izarren txinparta distiratsuei erronka egiten zieten. Ardoz betetako kaliz bat ipini zuen norbaitek nire esku artean, eta orduan erraldoia nire bizkarra igurtzi eta mintzatzen hasi zen, zurrun babesten gintuela zirudien haur ijito haren begiradapean.

Laido zeritzan erraldoi hura, eta nik orain mozkortzen begietsi eta, haren baieztapenen arabera, husita tribu nordikotik zuzenean zetorren klanaren burua zen. Haur ijitoa bere alaba zen eta Morela zuen izena. Laidok argitu zidanez, klaneko buruzagitza ez zen leinuko oinordekotzaz eskuratzen, baizik erronka eta borrokaren bitartez. Aktiboan zegoen buruzagiak gainbehera-seinaleak ematen hasi orduko, adinarengatik izan zein beste edozein ingurumarirengatik, klanak asanbladan, gehienek iritzi, gorputz-sendotasun, adimen-zorroztasun eta trinkotasun espiritual

handiena zeukaten hogeita bost urtetik beherako bost gizon aukeratu eta hainbat probatan elkarren artean neurtzera deitzen zituen. Bostetik soilik bi geratzen zirenean, heriotzarainoko konbaterako erronka egin behar zioten elkarri, gorputzez gorputz eta armarik gabe. Garaileak klaneko kargu gorena erdiesten zuen orduan, eta, aurreko buruzagiak asanbladaren borondatea onartu ez eta agintean jarraitu nahi izanez gero, demaren garaileak –horrela deitzen ziren oinordekotza-probak– hura akabatzeko betebeharra zeukan. Laidok ez zuen egoera horretara iritsi behar izan, bere aurrekoak berehala onartu baitzuen demen emaitza, baina azken probari aurre egin behar izan zion, heriotzarainoko probari alegia, bere anaiarekin hain zuten: imajina nezake, esan zidan jarrera ilunarekin, zein izan zen ondorioa. Horregatik, buruzagi gisara eman zuen lehen agindua izan zen, bere aginteak iraun bitartean, inork ez deitzea Laido beste izenarekin. Aurrerago, emaztea hartu eta alaba hura izan zuten, Morela, zeinaren ardura klaneko andre guztiek hartu zuten, ama –amazona aparta– zaldi erotu batek herrestan eraman eta hil zenez geroztik. Baina nork esan ahalko zion, oihukatzen zuen Laido handiak, bere agintaldian beteko zela Profeziak zioena! Eta ardo gehiago zerbitzatzea agindu zuen, gure inguruan zegoen festa-giroa ozenki hazten joan eta Morela ederrak orduan interpretatzen jakin ez nuen soa nirearekin gurutzatzen zuelarik.

Profeziak, jarraitu zuen azaltzen Laidok kaliza ostera ardoz beteta, hamar mila bertso baino gehiagoko *Husitak* poeman bilduta zegoen, eta tribu zaharretik eratorritako klaneko bardoek, orain bere klanekoek, belaunaldiz belaunaldi transmititzen zuten hitzez hitz. Erraldoi txeratsuak egindako sinopsiaren arabera, poemak kontatzen zuen nola husitak oparo eta Jainko Sortzailearekin harmonian bizi ziren, eskualde borealeko klima epeleko azken lurraldeak okupatuz, harik eta heresia katolikoko hordek erasotu, garaitu eta sakabanatuak izan ziren arte, gainerako mundua suz eta odolez garbitu ondoren: katolikoen aurka galdutako gerren kronika Aro Ilunaren hastapena zen, zeinaren barruan husiten ondorengoak sartuta sentitzen ziren. Aro hau guztia iraun bitartean, eta derrota fatal haren espazio-modura edo, klan sakabanatuak Gerra Sekretu amaigabean bizitzera kondenatuta zeuden, hau da: munduan zehar alderrai nomadak, txirotasunaren moztropean disimulatuta, zarpailez jantzi eta ortozik, sal-erosketan, ikuskizun eta lapurreta txikitan lortutako mozkinekin elikatuz, mundu guztiaren mespretxu eta errukia erdietsiz. Eta halaxe izango zen Aro Iluna iraun bitartean, zeina solik Profeziaren kunplimenduarekin amaituko zen, azken finean husiten ondorengoentzat erredentzioa posible izango zenean. Izatez, klanak elkarren artean alderrai gurutzatzen zirenean, haien buruzagiak beti elkartzten ziren, etorreraren seinalerik igarri ote zuten galdetzeko. Elkartze haiek laburrak eta garratzak izan ohi ziren, mendean zehar erantzuna beti negatiboa zelako.

Husitak poeman jasotako Profeziak honako hau iragartzen zuen: tribu zaharretik eratorritako klan batean arrotz bat iritsi eta hango buruzagia buruz buru eta esku hutsezko borrokan garaituko zuenean, atzerritar horri libazioa, hospitalitatea eta ospakizunak eskaini behar zitzaizkiola, eta klaneko andre birjin politena eta ondoen osatutakoa eman behar zitzaiola, harekin txortan egin zezan. Eta hori horrela egin beharra zegoen, zeren, elkartze horren emaitzaz, klan sakabanatuak batuko zituen liderra jaioko zelako eta, heresia etsaiei aurre eginez, tribuaren lurraldeak errekuiperatuko zituen, eta beraz ostera gobernatu eta edonon nagusituko baitzen. Eta klan honetako buruzagiak bere haurren artean alaba oraindik ezkongai baldin baleuka, orduan hura, beste andre guztien gainean, izango zen kanpotar probidentzialari eskainiko zitzaion bermea.

—Gaur gure artean bete da Profezia —esan zuen Laidok, nire lepoa bere beso beldurgarriarekin inguratuz. Nire alaba Morela zurea da gau honetan, atzerritar, nigandik gehien maite dudana ematen dizut. Egin egin behar duzuna, eta, zuk eta Morelak, jaregin gaitzazue betiko Aro Ilunetik. Erabat izututa, Morelarengana biratu nintzen. Nire soari eutsi zion, begirada sute hurbilenera desbideratzera behartu ninduen arte. Laidok bere besarkada lasatu, jesarlekutik altxatu eta tarima utzi zuen. Erretiratu baino lehen, ostera beste behin niregana itzuli eta jaurti zuen:

—Eta ernaldutik zintuen zure aitaren barrabilengatik, atzerritar, ez hutsik egin gero!

Paralizatuta nengoen. Besoak eta hankak zurrunduta neuzkan, eta edan nuen ardo guztia lokietan eta urdailean kolpatzen zitzaidan. Morela izan zen biotatik lehena altxatu eta eskua eman zidana, hari oratu eta jarraitzeko. Tarimatik jaitsi eta kanpalekua gurutzatu genuen: ematen zuen oso argi

zeukala nora gindoazen. Aldi berean hiru gizon gozarazten zituzten emakumeak saihesten gindoazen, gizon etzanak emakume bat izter artean eta beste bat aho gainean eserita zeuzkatenak, zakil helduek kordatzten uzten zuten nerabe makurtuak ezpaineekin beste batzuk jalekeriaz dastatzen zuten bitartean, hostajean luzatuta figura geometrikoak marrazten zituzten neskatzak, eskuak eta mihiak prest beren adiskideen gorputzak esploratzeko, beren bularrak eta sexua laztantzen zituzten amak, euren seme-alabek birjinitatea galtzen zutela behatu bitartean. Soilik zaharrak zeuden albo batean, musikariak ere isildu egin ziren, arnasestu eta intziriei bide emateko, hura baitzen kantu onargarri bakarra, klan osoak modu koralean entonatu.

Gozamen hura dena, errealitatetik inoiz baino urrunago sentiarazten ninduen, alde batera utzi eta kanpalekuaren bukaerara iritsi ginen, non kanpin-denda handi bat zegoen prest. Erabakimenez sartu zen Morela, eta ni haren atzetik. Damaskoz eta belusezko errezelez dekoratuta zegoen barrua, eta Konstantinoplako jantzi handiekin, zeinak sabaitik zoru entarimatu eta larruazalez estalitakora jaisten ziren. Edonon ugari ziren frutaz betetako saskiak, eta ardo-txarroak, eta gelaren erdi-erdian burdinazko estufa bat zegoen, zeinaren barruan gela berotzeko betetzen zuen egurra erretzen ari zen. Morelak sotilki erantzi zuen bere soinekoa, otomana baten gainean etzan eta bete-beteaz ezarri zidan bere soa, baina oraingoan irribarre baten soslaiarekin lagundu zion.

—Hurbil zaitez —esan zuen.

Bat-batean, egun osoan zehar jaso nituen konplimendu guztiak gorabehera, egunetan ezer bazkaldu izan ez banu bezala sentitzen nintzen eta, oso gose zaharra eta asetzen zaila sortu zitzaidan. Konturatu nintzen gogorki zurruntzen zitzaidala zakila, eta begiz konprobatu nuen nik ere nire soinekoa kolpez erantzi nuenean. Azkar, mozkor, Morelarengana abiatu, eta lehen aldiz nire gose berriak eskatzen zidan guztia irensten zidan emakumezko baten haragia ezagutu nuen: mihi heze eta lizuna, bular erronkariak, galtzarbe bigunak, alu gozo eta mahats-mordo bat bezain beroa, uzkiaren plegua enigmatiko eta lorioski mikatza. Nire zakil gogortuaren presak hartu ninduen, eta ibilbide guztia errepikatu nuen berarekin, behin eta berriro, orain albo batetik, orain bestetik. Pixka bat gelditzeko premia sentitu genuenean, azala olioarekin gantzutua izan balitz bezala distirarazten zion izerdiak. Lurra estaltzen zuten larruen gainean geunden etzanda, gure artean distantziarik gabe, elkarri musu emanaz. Orduan Morelak osterara begiratu ninduen begietara.

—Nola duzu izena, atzerritar? Zein da zure izena?

Pixka bat atzeratu nuen erantzuna:

—Ez daukat izenik, Morela. Gaur arte hori ere ez zait emana izan.

Erantzun gisara, burua nire bularrean ezkutatu eta osterara hasi zen besarkatzen, txandaka, titiburuak eta sorbalda. Halako batean jaiki, nire sabelaren gainean jesarri, bere sexuaren berotasuna nabarmenduz, eta irribarre egin zidan konplizitatez.

—Nik emango dizut izen bat, atzerritar. Gure herriaren erredentzioa jakin gabe zeraman gizona bere izenez gogoratu behar da husiten poemako azken atalean.

Gerritik heldu eta hatz-mamiekin ipurmasailak eta bizkarrezurra igurtzi nizekion, garondoraino. Morelak bere bularrak bi eskuekin oratu eta pixka bat makurtu zen nire ahoan ipintzeko. Biak miazkatu eta kosk egiten nizkiolarik, ahots itoarekin mintzatu zen:

—Puppa izango da zure izena. Gure dialektoan, *aitagoi* esan nahi du.

Ostera heldu nion gerritik, pixka bat altxatu eta osterara hasi ginen, oraingoan leuntasun handiagoz. Gero, elkar besarkatuta, lo geratu ginen, intzentsuaren hats eta plazerezko oihu urrunetan kulunkatuta, horrek denak erakusten zuelarik, han kanpoan, ijitoen orgia ez zela amaierara ailegatu.

Biharamunean begiak ireki nituenean, Morela ez zegoen nire alboan, eta denda barruan ere ez. Estufa itzalita zegoen eta goizeko freskurak tokia bete eta intzentsuaren hatsa lurrintzen zuen aire sarkorraren baitan. Jantzi eta Morelaren bila joateko asmoz jaiki nintzen, baina ez nuen nire tunika inon aurkitzea lortzen. Azkenean dendatik biluzik atera eta kanpalekura joan behar izan nuen, kezkatu. Bat-batean, ordea, jabetu nintzen kendu egin zutela, eta karabana osterara bidean

zela. Gurdien parera iritsi nitzenean, Laido agertu zen hutsetik-edo. Ostera kinkilari bezala jantzita zihoan eta, eskuetan, zarpail-sorta bat zeraman.

—Hemen daukazu zure arropa —esan zuen—. Joan beharra daukagu.

Zarpailak hartu nituen, aurreko egunean bainatu baino lehen kendutako alkandora eta galtza piltzartuak baino ez baitziren. Zur eta lur nengoen. Galdetu nuen.

—Eta Morela?

Laido handiak zaldi batek bezala egin zuen putz. Gero erantzun zuen:

—Jantzi zaitez, eta etorri gurekin nahi duzuneraino. Baina ez duzu ostera ikusiko. Bete da Profezia, Puppa.

Zurturik geratu nintzen, izen estreinatu berri eta Morelarenak ez ziren beste ezpain batzuek esanaz deitua izateagatik. Hotzikara ere sentitu nuen bart bizi izandako edertasuna gogoratzean. Laidok bizkarra eman zidan eta karabanarantz abiatu zen, zeina murriztu egiten zela baitzirudien hasitako egunaren zeru altu eta gardenaren pean. Bat-batean, burua biratu nuen Morelarekin okupatu nuen denda begiratzeko: ez zegoen han. Jantzi, Laidoren gurdiraino joan eta bere alboan eseri nintzen, ezer esan gabe.

Hain zuzen, ez nuen ostera Morela ikusi. Bizpahiru aste bidaiatu nuen ijitoekin, herriz herri Moldava ibaia gaingiduz, kinkilari xume bezala biziz eta eguneko une guztiak eurekin konpartituz, baina ez nuen beste berririk jaso. Ez nekien zein gurditan nindoan (edozein moduz, ez bere aitarenean), eta konfiantza erakusten zidaten gizon batzuen edo, egun batzuk lehenago hainbeste ardurarekin bainatu eta masajeak egin zizkidaten gizon eta andreen mihitik tira egiten saiatu nintzen arren, erantzun modura bizkar-jasoak, keinu lauso edo ulermenezko irribarreak baizik ez nituen izan. Eta batik bat harritzen ninduen, ezen jende haren eguneroko bizimoduan ezerk ez zuela, ez eta urrik emanda ere, festa-eguneko oparotasunaz pentsarazten, eta nik-neuk egiten ikusi nizkien orgiazko gehiegikeriez ere ez, irudi batzuetan non, uneoro, gomuta ziur batetik baino gehiago amets batetik zetozeila baitziruditen. Azken finean, amets bat izan ote zen? Era horretara, udaberriaren eguzkipean Pragako mila dorreen distira behatu genuen eguna iritsi zen. Hirian sartu ahala, hunkitzen zuen aztoramen handia hauteman ahal izan genuen: Hiri Zaharreko kale estu eta bihurgunetsuak, gora eta beheara, euren artean edo bakarka eszitazio handiz mintzatzen edo etxeetako leihoetatik eta denda zein tabernetatik, nondik jende oihukari asko sartzen zen, oihu egiten zebiltzan gizon eta emakumez lepo zeuden. Airean, nahasten gintuen suhertasunez, ibiltariak botatzen zizkiguten ahakarren bidez edonon adierazten ziguten zurruntasuna eta mesfidantza arnasten zen. Bazirudien gertakariren batek Pragako auzoen artean inpazientzia-atake kolektiboa sorrarazten zuela, euren etxeetatik ateratzera bultzatu eta, behin kalean deskubritzeko, kezka apaldu ez baizik hiritar bakoitzaren presentziarekin biderkatzen zela. Suhartsu eztabaidatzen zen; irainak, mehatxuak eta modu txarrak orokorrak ziren, eta ugariak kale eta plazetan antsietate-sentsazioa transmititu eta iskanbilen berehalakotasuna susmarazten zuten talde bazter-nahastaileak.

Jakina, holako giroa oso egokia zen lotsagabeentzat. Beti Laidoren gurdiak gidatuta, non ni ere bidaiatzen nuen, gure karabana Hiri Zaharreko kalezuloetatik eta Udaletxeko plaza handiaren barrena zihoan, Karlos I.aren Zubira iritsi eta, hura zeharkatuz, Pragako Alde Ttikira heldu eta Gazteluaren beheetara iristeko asmoz, non, klanaren ohituraren arabera, gure etxolak ezarriko genituen (saltzaile ibiltariaren bizitza hark aspertu egiten ninduen egunez egun, eta ordura arte banandu ez banintzen, Morela gero eta gogoratuagoa ostera noizbait ikusteko esperantzagatik zen). Gertatu zen, ordea, gure gurdiak zubiaren jaitsiera hartu zuenean Alde Ttikira iristeko, alarma-hotsak iritsi zitzaizkigula. Gure konboiaren gutxi-asko erdian zegoen gurdietatik zetozen, eta lapurren berri ematen zuten. Hiriko kaleetako desordena lodia ekaiztsu bihurtzen zen Zubian, eta, bertan metatutako jendearen artean, bazen espabilatu-talde bat guk garraiatzen genuen merkantzia lapurtuan pasatzen utzi ezin zen aukera bat ikusten zuena.

Oso azkar gertatu zen dena. Laidok zaldiak gelditu zituen, eserlekutik jauzi egin eta korrika irten zen oihuen aldera; atzetik jarraitu nion, jendetzaren artean bultzaka saiatuz. Laster galdu nuen Laido bistatik, eta andreek bijilatzen zituzten gure gurdiekin gurutzatuz nindoan, haien gidariak ere alde eginak baitziren erasotuei laguntza emateko. Gatazkaren puntu gorena iritsia zela jabetu

nintzen, Laidoren burua ikusi bainuen bere garaiera erraldoiagatik nahasmenduan nabarmen. Adin ertaineko gizon bat, txikia, lepotik oratuta zeukan, eta hark ez zuen eskutik lagatzen urdaiazpiko lehorreko lata bat, bere lapurretaren froga. Lata zeraman gizonaren begi ireki-irekiek Laidok ematen zion beldurra aldarrikatzen zuten, eta behar bada beldur zorrotz hark eman zion behar adina sotiltasun erraldoiaren erpeetatik ihes egin eta, banantzen gintuen jendetza ukabilkadaz apartatzen ni nengoen tokirantz, bere ezkerrean, korrika ateratzeko. “Geldi ezazu, Puppa”, oihukatu zuen Laidok sumindurik, eta hura egitera prestatu nintzen. Lata zeramanak ere entzun zuen ijitoburuaren oihua, eta begiz bilatzen zuen geldiarazteko agindua jaso zuena. Lekutu nindueanean nigandik oso gertu zegoen, eta ez zuen zalantzarik izan: hortzak estutu, eta, urdaiazpiko-lata altxatuz, ahal izan zuen indar guztiz jaurti zuen nire bururantz. Senezko mugimenduz lortu nuen lata saihestea, zeina, jaurtigai bihurturik, zubiko baranda eurrez gainditu eta Moldavako uretan erori baitzen. Biratzean, aurrez aurre egin nuen topo lapurrarekin, besoak luzaturik lepotik hartu eta nire aurpegia kolpatzeko asmotan: senak adierazitako beste mugimendu bati esker eskumuturretatik oratu eta besoak inmobilizatu nizkion, baina haren lasterketaren bulkadak atzera egitera behartu ninduen, estropezu egin eta bizkarrez erorraziz. Defentsarik gabe utzita nire gainera etor ez zedin, besotik askatu gabe, gorantz eta atzerantz egin nuen indarra, lapurrari bere inertziaren bidea jarrai dezan utzirik. Lurreko harlauzen gainean bilduta geratu nintzen, eta urruntzen zen garrasi bat entzun nuen. Berehala altxatu nintzen, baina eszena erabat aldatu zen. Lapurra ez zegoen han, eta jendeak nire inguruan borobila osatu eta urrun mantentzen zen. Isiltasun sakona zegoen, eta, eguerdian sartaldeko eguzkia egon arren, dena zirudien izoztuta. Berehala ulertu nuen. Lau urrats eman, ibairantz begiratu eta bat-batean, haluzinaturik, lapurraren gorputza zubiaren oinetan lokatuta ikusi nuen. Nire maniobraren bulkada gehiegizkoa izan zen, eta, urdaiazpikoaren lataren bideari jarraituz, nire erasotzailea baranda baxuena gainditu eta behera jausi zen. Oraingoan bai: lehen aldiz, gizon bat hil nuen.

—Hiltzaileari! Hiltzaileari!

Itxuragabetuta, emakume batek bere hatzarekin ni seinalatu eta salaketa itsusi hura botatzen zuen. Baina jarraian beste emakume, gizon, agure eta haur batzuek hamaika ahots disonantez laguntzen zioten.

—Ijitoari! Hiltzaileari!

Ez nintzen biratu, ez Laidoren, ez ezein lagunen begiradaren bila. Korrika atera nintzen nire inguruan berehala batzen ari zen jendetzaren beste aldera, kolpeka eta bultzaka bidea eginez, Alde Ttikirantz. Zubiaren amaierara iritsita, atzera begiratu eta jarraika neukan gizon-talde bat aurkitu nuen: odolak gizonen animoa piztu eta gehiago nahi zuten. Ostera jo nuen korrikaldia, oraingoan beldur-bulkada gisara, aurrean ipintzen zitzaidana jausiaraziz, kaleak eta plazak zeharkatuz, maldak igo, eskailerak pasa, nire jarraitzaileen builak entzunez. “Hiltzaile!” “Hiltzaileari!”. Biriketara airea iritsi ez eta, burua barrutik lehertuko balitzait bezala, bihotza taupaka hasi zitzaidanean geratu nintzen. Ahoa lerdez beteta, farola batean bermatu nintzen hatsanka, eta arnasa berrartu nuenean, konturatu nintzen jarraitzaileak saihestu nituela, edo niganako interesa galdu eta ihes egiten utzi zidatela. Jendetzaren artean jarraitzen nuen, baina jada ez ninduten seinalatzen, eta bazirudien inor ez zela nire presentziaz kezkatzen.

Gorputz-jendalde handiaren atentzioa eta mugimendua, Hiri Zaharrean baino are lodi eta kitzikatuago, puntu zehatz baterantz abiatzen zen. Nire lasterketa eroak Gazteluaren hurbilera eramanez, eta haren barnealde zabaleraren bideratzen zen prozesio oldartsu hura, edonondik, builaka eta oihuka zetorrela zirudien. Farolan bermatuta, behatzen nuen nola jendaldea nire albotik, ikusi gabe, pasatu eta bere bideari ekiten zion, besoak jasoz eta nik ulertzen ez nituen kontsignak abestuz. Nire jarraitzaileak handik ibili ahal zirela susmatuz, nahasmendu orokorrera batzea erabaki nuen, eta hain erabakimenez egin nuen, berehala martxaren buruan aurkitu nintzen: San Vito Katedralaren atzeko patio handian nagusi zen eraikin bikain baten ateetan geratzen zen. Alde guztietatik borroka-saioak agertzen ziren, han oihukatzen ziren hainbat kontsignen harira: zertaz ari ziren jakin gabe jarraitzen nuen nik, baina konturatu nintzen batzuek Bohemiako Dieta goratzen zutela eta Frederik deituriko norbaiten alde zeudela, eta beste batzuek Matias baten alde, eta argi zegoen horrek definitzen zituela jendetza banatzen

zituen bi aldeak. Durduzatuta sentitzen nintzen eta ez nekien zer egin: Frederiken aldekoekin edo Matiasen aldekoekin batzen nuen nire ahotsa, nortzuk sentitzen nituen hurbilago, ostera Sumavako muino ederretatik lasai ibiltzeagatik edozer emango nuela pentsatzen nuelarik. Eta orduan ikusmin handia jabetu zen jendetzaz, eta mundu guztiak hatzamarrekin seinalatzen zuen batu ginen eraikinaren goialdera, azkenean jakin nuenaren arabera Errege Jauregia baino ez zen hartara.

Nik ere begiak goratu eta fatxada edertzen zuten filigrana arkitektonikoei begira liluratuta geratu nintzen pixka batean: akanto-hosto pilo batez hornitutako arkitrabe zorrotzak, leihotzar obalatu eta lau angelukoak, moldura dotorez burutuak, alabastro gardeneko erliebe delikatuak, marmol zuriko eskailera zabalaren ondoren atariaren alde banatan solemne altxatzen zen zutabe-joko bikoitz ikusgarria, eta, atariaren buruan, frontispizio triangeluarra, oso animalia-andana arraroen figura zizelatz osatutako jeroglifikoa zeukana, bestek beste grifoak, zentauro eta hortzeria basati eta Gorgonarenak bezalako adats kizkurak erakusten zituzten arrain beldurgarriak. Ordura arte kalifika ezinak joko nituzkeen mirariak bezala iruditzen zitzaidan hura dena, eta haren edertasunaren bat-bateko kontenplazioak hainbesteraino murgiltzen ninduen, Jauregira eraman ninduten nahasmenduak, inguratzen ninduen jendalde bortitzaren presentzia eta guzti, ahanzteraino.

Hala ere, hantxe jarraitzen zuen jendetzak, baina jada ez zuen oihukatzen, ez zen aztoratzen, ez zuen inoren alde edo kontra buila egiten, baizik haren ehunka, milaka begiak Errege Jauregiaren fatxadan kontzentratzen ziren, eta ez apaindura-edertasunak ebaluatzeko, baizik ireki berria zen leiho gorenetakoa batean finkatuz. “Erregeordeen Kontseiluko Ganberako leihoak dira”, esan zuen norbaitek nire alboan, eta parez pare irekitako leihoetatik hiru figura makurtuk begiratzen zuten, hiru gizon togadunek laguntza eske oihukatzen. Ez zuten asko oihukatu: bat-batean hutsunera jausi eta eskaileren mailadien kontra lehertu ziren ia aldi berean, euren buruak pika baten ertzaren kontra jotakoan angurri helduak bezala zapartatuta irekita. Erretinan idatzita zeramaten horrorea nola astiro ezabatzen zen behatzea alhalbidetzen zidan nire hurbiltasunak, jada betiko isildutako hiru ahoetako ezpainetan islatzen zen sinesgabetasuneko irain-imintzioa, hautsi eta toga desitxuratuen barruan galdutako gorputz-adarren jarrera barregarria. Ezin izan nuen burutik kendu Karlos I.aren zubian zapartatutako nire lapurraren txontxongilo-gorputza, eta ezin izan nuen ekidin ere pentsamendu hark, niretzako zama izan ordez, ni biziaraztea. Leihotik behera jaurtitako haiek behatzen nituen, euren gorputzak eskaileren gainean txiki-txiki eginda, eta konturatzen nintzen alaitasun sakon batek freskatzen zidala espiritua. Ez nintzen jada nekatuta sentitzen: guztion gainean hedatu zen harridura-beloaren dentsitatearekin gozatzen nuen, eta artaga itxaroten nuen nahitanahiez berehala gertatuko zen haserre-eztanda. Oraindik ez nekien, baina isiltasun-tarte hark antz handia zeukan bataila baten hasieran gertatzen denarekin. Tentsioak gainezka egin zuen norbaitek oihukatu zuenean: “Gora Frederik! Gora Bohemiako Dieta!”, eta, jarraian, ehunka ahots batu zitzaizkion. Instintiboki, nik ere Frederiken alde egin nuen, eta era horretara parte hartu. Orduan, alboan neukan gizon mozkote bat niregana biratu zen makila bat astinduz, eraso egiteko intentzio nabarmenarekin. Bat-batean inmobilizatu nion beso armatua, eta ukabilkada batekin hortzak irentsarazi nizkion. Beste kolpe batekin urdailean makurtzera behartu nuen, eta, behin lurrean mendean neukalarik, aurpegia lehertu nion ostiko batekin. Haren makila hartu eta jendeari begiratu nion: denak denen kontra ari ziren, erotuta, sumindurik. Gogoan daukat irribarre egin nuela makilaren tamaina neurtzerakoan: odola zurrustaka isuriko zen han, eta ni egarri nintzen.

Mensch werden ist eine Kunst

Adiskideak, konturatuko zarete, une hartara ailegaturik, nire anfitrioi bitxiaren kontakizunak harrapatuta ninduela. Txabolaren kanpoaldetik trumoiak eta haizetearen soinu desesperatuak, gero eta zatatatsuagoak, iristen zitzaizkigun, eta nik galdetzen nion neure buruari zer gizon-mota ote zen Puppa hura, zeinak, zahartzaroan, gizon baten larruazalarekin liburuak koadernatzen

zituen, eta gaztetan, zauritzen eta hiltzen eta ijitoekin orgiatan parte hartzen dibertitzen zen. Baina lehor nago: tabernari, beste ardo bero txarro bat, agudo! Adiskideak, entzuten al duzue han kanpoan botatzen ari duena? Ikusten dut oraindik aldi batean mintzatu beharko naizela, hemendik ezin izango baitugu irten hori dena amaitu arte. Tximisten soinu hautsia hurbilegi entzuten da, eta haizearen hamaika ahots intziritsuek heriotza ziurra baino ziurragoa adierazten digute orain bidera ateraz gero. Ongi, beraz: saia zaitezte gau honetan jotzen duen denboralearen potentzia, liburuekin eta nire hanka gizajoaren azalarekin Puppak daukan industriaren motibo erraldoiak ezagutzeko nire antsiarekin biderkatzearen efektua imajinatzen. Eta proba ezazue imajinatzen nola antsia hura, berak, nire galderei erantzun ordez, bere gaztaro estranbotikoko dibagazioak eskaintzea hobesten zuenaren arabera hazten zen, haien fidagarritasuna, ulertuko duzuenek, sakonki zalantzan jartzen nuelarik. Ero baten aldamenen al nengoen? Beranduegi izan arte nik ulertzen jakin izan ez nuen Puppari buruzko zerbaiti buruz ohartarazi nahi izan ahal zidan sor Concepción?

Edozein moduz, Pupparen historiaren zatirik nahasgarriena eta izugarriena agerian jarri gabe zegoen oraindik. Ahal duen ondoen moldatu zaitezte aulki latz hauetan, eta berak niri kontatu zidan bezala azalduko dizuet. Eta Jesukristoren saihesten-hezurren izenean, tabernari, ez erantsi horre gehiago gau unagarri honi eta zerbitzaiezaguz ardo- eta garagardo-erronda berri bat.

Puppak esan zuen:

—Prest geunden denok elkar txikitze. Errege-jauregiaren patioa arrautza bat bilakatu zen, zeinaren oskol azpian gorrotoa nabarmena zen, osatzen genuen masari eusten zion albumina-mintzaren barrualde amorfoa bezala. Mundu guztia joka zebilen niri begiratu gabe, emakumeak jausi egiten ziren, haurrak zapalduak ziren, eta agure batzuek zauritzearen plazerra berraurkitzen zuten. Behin-behinean alde batera mantentzen nintzen nire makilarekin, ikusten nuenarekin liluratuta, Pragako zeru argia ustekabeen bete zuten hodeiei eta gure gainean jausten hasi zen euri-sareari jaramon egin gabe: eskaileretako marmol gainean fineziaz irristatzen zen euri hura, leihotatik botatako hiruen odola diluitzen zuena, zeinek ulermen-ahalegin fantasmaletik behatzen gintuztela ziruditen. Jendaldearen harrabotsak ekidin ezinezko masakrea marrazten zuen, baina bat-batean ahots trumoiatsu bat entzun zen:

—Bohemiako seme-alabak!

Eta osteria ematen zuen dena, euria izan ezik, bat-batean izozten zela. Erailtzeko asmoa zutenek besoa gelditzen zuten kolpe hilgarria jo baino lehen, hiltzera zihoazenean aurpegia estaltzen digun berehalako heriotzaren imintzioa erlaxatzen zuten, eta zaurituak izan zirenek ere berpizteko itxura ematen zuten, etengabe oihuka zegoen ahots haren aginpideak hunkituta.

—Bohemiako seme-alabak! Kitto zalaparta! Entzun ieza dazue, Bohemiako seme-alabak!

Jauregiko atetzarraren aurretik, ezpata eskuan, jantzi beltz arruntez beztituta, guregana zuzentzen zen aginpidezko figuran ehunka, milaka begik arreta jartzea lortu zuen arte. Alde banatan, eskailera bikoitz bikainak pertsona hari indarra ematen ziola zirudien, frontispizioak koroa ipintzen ziola, bere oinetan zeutzan hiru hilotzek belaunaulkia eskaintzen ziotela. Nire alboan zurrumurruak nola biderkatzen ziren entzun nuen, batzuk beldurtiak, beste batzuk esperantza kartsu batek suhartuta.

—Antoni Dukea da! Dietako parlamentarietako bat da!

Besoetako keinu batekin, Antoni esaten zioten hark zurrumurruak moztu zituen, soilik euri sorra zoruaren kontra errepikatzen entzun zen arte. Ondoren, honako diskurtso hau abiatu zuen ahots ausartarekin:

—Bohemiako herria: bigarren aldiz bi hilabeteko tartean Jauregi honetan bildu gara Matias errege zaharrari eta bere erregeordeei Rodolfo II.ak duela ia hamar urte eman zigun Errege-Karta, meneko bohemiar guztientzat kultu-askatasuna jakinarazten duen dokumentu indarge ezina onartzea eskatzeko. Bere heriotzean, Rodolfoaren ageriko borondatea zen Matias oinordeko bilakatu eta koroatua izan zedila, mistifikatzaile erromatar katolikoen iseken kontra berretsi, gorde eta gordearazten bazituen Errege-Kartan ematen zitzaizkigun pribilegioak. Eta aski ondo

dakigu denok ez dela horrela gertatu. Bere erregealdiaren hasieratik Matiasen perjurioa egin du Errege-Kartaren espiritua eta letra traizionatu dituelako. Horrela, bere aginteak ez dio jaramonik egin gure ongizateari, gureak ez diren gobernu eta fede bat inposatzeko, eta orain, bere gorputzaren gainbeherak eta Erregeordeen Kontseiluaren trebetasun-faltak kezkatuta, bere iloba ezduina, Ferran Estiriakoa, izendatu nahi du bere ondorekotzat, eta horrek esan nahi du Bohemiako herri lutertarra Erromako jendaila pontifikalaren borondate tiranikora abandonatzea! Hitz hauek bertan zeuden ahots katolikoen artean, asko ziren antza, hedatu zen gaitzespen-uhinaldia sortu zuten. Are batzuek ahakar egin zioten Antoniri, kriminaltzat joz. Baina haren ahotsa indar biderkatuarekin entzun zen patio barruan:

—Ixo, jendalde nazkagarria! —eta jende guztiak ahoa itxi zuenean, ostera jarraitu zuen—: Bohemiako Dieta osatu da Matiasen bidegabekeriak jasanezinak bihurtu direlako. Jada bi hilabete etorri ginen hona gure fedea aukeratzeko eskubide legitimoa itzul ziezaguten eta, gure eskakizuna onartzetik urrun, Matiasen deusestatzera behartu gintuen; eskubide inperialak ematen digun arrazoiari oinarrituta etorri gara gaur hura exijitzera, eta ostera beste behin, Dieta desagiteko agindu onartezina beste erantzunik ez dugu jaso. Ongi, beraz: oraingo honetan ezinbestekotzat jo dugu erantzutea, eta gure erantzunaren terminoak nire oinetan zabaldua ikus ditzakezue —beso bat luzatuz, marmol zuriko eskaileren gainean hiru gorputz trokatuak seinalatu zituen, ete beste protesta-uhinaldia altxatu nahi izan zen jendartetik, baina Antoni kartsuaren beste oihu batekin ito zen berehala—: Isiltzeko esan dut, zabor miserablea! Entzun iezadazue arretaz: hemen dautzan hauek Maximilià eta Albert Bavierako artxidukeak dira, Matiasen anaiak eta Kontraerreforma deituriko traizioaren buruzagiak, Erregeordeen Kontseiluko idazkariarekin batera —eta jendartean sumin-murmurioak ugartu ziren suak hartzen zituen aurpegiak azalaren azpian terrorearen eta sinets-ezintasunaren salda barruan egosten baleude bezala, Antonik suari burlaiez eragiten zion bitartean—. Jainkoak onar ditzala bere errukipean, eta beren esperantza ezartzen zuten santu hauek kontuan har ditzatela euren arima ustelduak...! Baina entzun iezadazue, zerri horiek: hiru traidore hauek eredu izateko exekutatu ez ezik, Dietak erabaki du gaur, mila seiehun eta hamabost, Jainkoaren urteko maiatzaren hogeita hiruan, Erregeordeen Kontseilua eta baita Matiasen errege-aginpidea desagitea, zeinari goi-mailako traizioa eta estatuaren *lesa patria*-ko krimenak egozten baitizkiogu. Ezabatutzat jotzen dugu baita ere Ferran Estiriakoaren oinordekotza, eta hemendik aurrera, Praga eta Bohemia osoa Dietaren behin-behineko gobernuaren pean geratzen dira, beste errege baten hautatze-prozesuko izapideak hasten direlarik. Amaitzeko, behin-behineko gobernu honek Maria Palatinatuko gure maitatu Frederik V.aren alabaren babes eta graziapen ipintzea erabaki du, parlamentari guztientzat hura baita bohemiar guztien errege legitimoa.

Jendaldeak mutu jarraitzen zuen, baina orain batzuen txundidura eta beste batzuen alaitasunagatik, bien kasuan mugarik gabe bakoitzaren aurpegian nabarmen zitekeenez. Antoni belauniko makurtu zelarik, aterantz biratu eta, eskuaren ifrentzu irekia gorantz begira zeukalarik besoa luzatzen zuen bitartean, bere tonua basakeriatik erreberentziara aldatu eta esan zuen:

—Etorri, anderea. Irten zaitez zure menekoak agurtzera. Eguzki-printza andanak urratu zuen bat-batean hodeiteriaren belo iluna eta euria supituki eten zen, ume baten negarra bezala. Berehala ulertu nuen, gizonek sekula ezagutu duten gizaki aztoratzaileenaren agerkundea zetorrela. Errege-jauregiaren ate barrurantz hedatzen zen ilunpetik Maria printzesaren estanpa paregabea sortu zenean, nekez izan nintzen gai haren adatsen isla doratuetan erreparatzeko, haren begien sakontasun berdean, haren hazpegiaren dotorezia gorenean, haren jantzien eta ibilkeraren edertasunean, edo haren hanka eta bularraren finezia atezatuan. Hauek denak beste une batzuetan lilurtzeko aukera izango nituenak ziren, baina une hartan abailduegia sentitzen nintzen, hainbat gertakari bitxiaren erdian gertatzeagatik erabat gaindituta, edertasun puruaren pertsonifikazioa behatuz. Ez, nire pentsamenduak ezin izango zukeen Mariaren edertasunen azterketa xehea egin: okupatuegia nengoen nire buruari ulertaritzen, lehen aldian ikusi hutsarekin, ordura arte ezagutzen ez nuen suharrarekin nire bizitza emakume haren zerbitzuan ipintzeko gogoia neukala. Maria printzesari begiratu eta konturatu nintzen ezen eguna —orain

badakit— nire destinoaren zigilua, gozo baina ezeztazenez, estanpatzen zen egun hura, biderkatu eta infiniturantz hedatzen zela.

Nire gainezkatzean galtzen nintzen bitartean, Antoni altxatu, printzesaren eskua hartu, besoa emeki igoarazi eta ostera hasi zen ahots suharberaz hitz egiten:

—Bohemiako seme-alabak! —ia-ia marruka—. Bere aita Frederik V.aren absentsian, zeina laster etorriko den gure askatasuna birlortu dezagun, erakutsi basailutza Bere Gorentasun Maria printzesari! Lur honetako meneko leial guztiak belauniko eta burua makurturik nahi zaituztet une honetan bere pertsona agurgarriaren aurrean!

Eta bera, Antoni dukea, izan zen lehena, printzesaren eskua utzi gabe, guri eskatzen zigan bezalaxe jokatzeko. Mariaren aurpegiaren espresioa burgoia eta urruna zen, eta horrek bere edertasun absolutua nabarmentzen zuen, hoztasun- eta destaina-puntu zehatzetan mantentzen zekielako. Bere begi-ninien distira esmeraldan harridurazko fosforeszentzia zegoen, zalantzarik gabe egoeragatik zorrozten zena: airea konbultsioz eta arriskuz beteta zegoen, eta, azken finean, hain gazte izanik (nahiz eta pertsona zerutiarrek bezala, Mariak denboratik at zirudien), sekula ez zuen imajinatuko kausa politiko baten bandera bezala bere burua konprometituta ikustea.

Konbikziozko lutertar guztiak, eta ni, errebelatu berriko debozioz, dukearen agindua berehala obeditu eta Berorren Maiestatearen aurrean umiliatu ginen, zeinak bere soarekin argitzen gintuen erregeordeen gorputz exekutatuak bertan egon arren. Bere aldetik, ematen zuen katoliko-talde handi bat, zurtuta, gurekin bat egitearen konbenientzia balioesten ari zela, halakoxea baitzen Antoni dukearen ahotsak transmititzen zekien autoritatea. Baina alde katolikoaren zalantzak beste oihu baten basakeriak moztuak izan ziren:

—Ez gara lutertar urdanga baten aurrean belaunikatuko! Infernura berarekin! Infernura Antonirekin eta matxinatuekin!

Eta jarraian burubero-talde bat eskailerarantz oldartu zen, hitz gorrotogarri haiek esan zituen buru zutelarik, ostera denen artean Matiasen izena goratuz. Zerri hark emakume eder hura laidotzen entzuteak senetzko higuina sortu zidan, eta horrek nengoen albotik eskailera zabalerantz korrika ateratzeko eragin zidan, makila eskutan nuela. Suhar hura, bizitzeko betetasun hura, antsia arpilatzailea sentitu nuen osterara. Mailadiakitsu-itsua igotzen nituen bitartean, ikusi nuen dukeak ez zuela bere ezpata garaiz ateratzen printzesaren defentsan behar bezala arduratzeko: bi erasotzailek gonetatik tiratzen zioten, beste bost Antoniz arduratzen ziren bitartean, zalantzarik gabe arriskutsuago jotzen baitzuten. Maria kezkatik beldur-izura pasa zen, eta nahasmenduak paralizatuta agertzen zen, alde egin eta Jauregiko ate barrura ezkutatzeke ezgai. Oso sakona zen beldurra bere aurpegian, eta, begirada batez, tristura-keinuak igarri nizkion. Horrek hunkiarazi ninduen azkenean: ukitzera iritsiko baziren, pentsatu nuen, herexia burutuko zen. Hildako erregeorde baten saihesten karranka sentitu nuen nire botapean abiadura hartzeko jauzi egin eta printzesari eraso egiten ziotenen alboan ipintzeko. Bat-batean ohartu ziren nire presentziaz, baina berandu zen jada: kolpe bakar batez burezurra hautsi nion aurrenekoari, eta zerraldo jauzi zen leihotik behera jaurtitakoen aldamenean; gero bigarrenak niri sartzen saiatu zuen labankada saihesti nuen, beso desarmatutik oratu, bere inguruan bira ematen behartu eta lepo egin nuen bere dagaren kolpe batez. Pozez garrasi egin nezakeen baina printzesa ate barrualdera bultzatzen arduratu nintzen, Jauregi barruan ezkutatu zedin. Nire esku odolduak arrasto gorria utzi zuten jantziaren zeta berde eta urdinean, eta ilunpean desagertu baino lehen, egun bakar batean ahaztu ez dudanez eskerroneko begirada bota zidan. Gero instant batean gertatu zen: Maria toki seguruan zegoenean, Antoniganantz bueltatu nintzen. Zalantzarik gabe borrokalaria bikaina zen: bere erasotzaileetako bik sabela irekita zeukaten eta estertoretan odolusten ari ziren, hirugarrena berriz altzairuaren hotza bere bihotz barruan sentitzeko puntuan zegoen, laugarren bat, osterara, Antoni bizkarretik sastakatzen saiatzen ari zen. Niri bost axola dukeak; baina jendaldearen builak patio barruan nire asaldua suhartzeko zuen: arerio traidorearen aurka oldartu eta daga lepauztaietako batean sartu nion, Antonik aurrez aurre zeukana garaitzen zuen bitartean. Gogoan daukat Antonik animalia bezala sumin itzuli, niri eta nik akabatu nuen gizonari begiratu, eta irribarre egin zidala. Nik gorantz desbideratu nuen

begirada, eta ostera naturaren kapritxoz betetako frontispizioa ikusi nuen. Gero nire garondoa su-zaparrada eta iluntasun-itsasoa gogoratzen dut.

Hurrengo irudia ni naiz berriro, belusez forratutako aulki batean eserita, oktogono-formako pasabide-areto baten barruan, hormak egur bozelduz estalita, zeinak sabaian batzen ziren medailoi bat irekita utziz, non haren barruan, margolari manieristaren batek eszena alegoriko bat erreproduzitu zuen, Decalion eta Pirra beren amen hezurak sakabanatzeko orakulu-agindua obeditzen alegia. Minduta neukan garondoa, eta oihal latzezko jaka bat janzten nuen, erabat beltza, zeinak bular gainean gurutze handi bat zeraman zilar-hariz brodatua. Ez nekien batere non nengoen, ez nola iritsi nintzen bertara eta zer xedez, ez eta nolatan nengoen era hartara jantzita. Laster ordea, bi kamarlengo iritsi ziren, kolore gorriko jantziak soinean, bakoitzak alabarda bat eskuan, eta haiekin jo zuten lurrean euren presentzia adierazi eta nire zalantzak biderkatzeko.

—Beronen Maiestateak deitzen zaitu, jauna. Guri jarraitzea erregutzen dizugu.

Errege batez mintzo al zitzaidan? Zeini buruz? Eta zer nahiko zuen nitaz errege batek? Bestalde, hitz egin zuen kamarlengoaren tonua irmoa baina txeratsua zen, eta haien itxurak —bi gazte burgoi eta kementsu arrandia garbiz jantzita— haiengan konfiantza edukitzera gonbidatzen zuen. Horrela bada, haien atzetik abiatu nintzen ibilbide luzea eginez, eta hamaika areto eta gela, sinestezinezko objektuz mukurua, zeharkatu nituen: mundua eta zeruko esferak errepresentatzen zituzten bolizko bola handiak hezurrez eraikitako ardatzetan biraka; pitzia disekatuak, betortzak erasotzeko jarrera erakusten zituztenak; mapa zailez eta interpretaezinezko nabigazio-kartez gainezka zeuden mahai handiak; giza eskeletoak eta deskonposizio aurreratuan zeuden gorputz organikoz betetako bitrinak; egundoko aretoak ispilu-joko edo neurri eta aro guztietako armak erakustera erabat emanak; kristalezko urnak nik sekula ikusi gabeko intsektu-sailekin, bizirik edo urrezko orratzetan josita oihal oparoz forratutako oholetan. Hala ere, gehien erakarri ninduen sabaian erdi-puntuko ganga zeukan oso galeria luze bat izan zen, ikusgarriki hutsa eta egundoko patio batera begiratzen zuten arkuz bukatua, zeinaren hutsune osoan argi-sorta potenteak dirdaitu eta ia goitik behera blaitzen zuten. Erabat zurtuta ohartu nintzen patioaren hutsunea ia eraikinaren oinarrietaraino hondoratzen zela sakontasun handian, zeina ni nengoen galeria hura bezalako beste hiruetatik ikusten baitzen, beste hainbat behe-mailatan kokatuak eurak, eta landaretza sarriko lorategi batek alderik alde estalita baitzegoen, zeinaren azpitik, zuhaitzen buruen soslaiak eta oihan haren erdia hartzen zuen lakuaren azalera zabala lausotzen zuen biolentziarekin, bere edertasun hotzaz dena blaituz igotzen zen argi morea sortzen zen, eta gero goian, oso goian, hodeien artean galtzen zen, egundoko patio hura zerura irekita baitzegoen, hura erakarri eta bere barruan irauli nahiko balu bezala, lorategi berezi haren parte egin arte. Txundituta, begiak behartzen nituen irudi garbiago bat jasotzen alferrik saiatuz; baina kamarlengoetako baten ahots agintzaileak, ibilbidean jarraitzeko aginduz eta Berorren Maiestatea zain neukala azpimarratuz, nire txundiduratik atera ninduen. Zerbitzariaren aginduak betetzen presatu nintzen, baina nenbilen bitartean, egun batean edo bestean lorategi dirdaitsu hartan garrantzirik handieneko zerbait aurkitzeko —ala galtzeko?— sartuko nintzen bihozkadak menderatzen ninduen.

Ez zen denbora asko pasa eszena heroikoak ilustratzen zituzten hormak urreizun eta tapiz brodatuz oparo estalitako ganberaurre ttiki batera iritsi ginen arte. Sartu ginen atearen aurreaurrean, itxitako beste bat zegoen, eta kamarlengoak haren aurrean gelditu ziren alabardak zapaltzen genuen alfonbraren leuntasun bigunaren barruan bermatuz. Itxitako atea orri bikoa zen, neurri proportzionatukoa, eta batik bat itxura apalekoa, aretoa betetzen zuen luxu bikainaren aldean. Haren alboetako batean, ordea, kuriositate bat agertzen zen: metal doratuko tronpa moduko bat zen, horman josita. Hitz egiteko pribilegioa zeukala ematen zuen kamarlengoak hartara hurbildu eta, ezpainak gertu ipinita, esan zuen ahots inpostatuz:

—Tronukoari! Gizon bat dakargu Bere Maiestatearen aurrean.

Tronpa barrutik zetorren putz metalikoa entzun zen, eta ondoren ahots bat, oso urrunetik zetorrela zirudiena.

—Kontrazeinua!

—*Principis hymen, principium gravitatis*— erantzun zuen kamarlengoak itxuraz modu absurdoz; erantzun bakarrez korrok moduko bat atera zen tronpatik, gero klaska bat entzun zen eta kisketa baten soinua irekitzean, eta bat-batean parez pare zabaldu ziren ate-orriak gure aurrean, alde banatan bi soldadu zeudelarik, zeinek filigranaz beteriko jantziz eta luma koloretsuekin koroatutako kaskoz lantza bana zeukaten eskuineko eskuan, ezkerrekin azkar sartzeko keinu egiten ziguten bitartean. Hola egin zuten gure gida arduratsuek, eta ni haiei jarraitzeko prestatu nintzen; oinak Tronuko Aretoan ipini orduko, ateko bi soldaduetako batek basatiki lepotik heldu —esan dudanez, min egiten zidan— eta zakarki makurtzera behartu ninduen:

—Belauniko, astoa! Frederik V.a Bohemiako errege legitimoaren aurrean zaude!

Berehala obeditu beste erremediorik ez neukan, gutxienez jakinik zein erregeren aurrean eramana izan nintzen. Behin belauniko jarrita, begiak altxatu nituen: Tronuko Aretoa katedral baten erdiko nabea bezain altua eta hotza zen, eta egiatan ilunpean zegoen, zokoetan barreiatutako tortxa, zuzi eta su eskas batzuek eta sabaitik esekita —altuegi, erabiliak izateko—, bujiak piztutako lanpara gutxi batzuek emandako iluminazio ahulak argituta ezpada. Lur irregularra, harri hutsezkoa, ate beretik abiatu eta beste muturrean aurkitzen ziren mailadi batzuetaraino luzatzen zen belus gorriko alfonbra batek estalitako pasadizo zabalaren beste aldean zabaltzen zen izotzezko, eta hango eskaileraburuen gainean, argilunak lausotuta, errege-figura bere tronuan eserita agertu zen, tronuaren alde banatan, berriz, aulkiteria, non beste lau pertsonaia kokatzen ziren, hain urrun eta hain argi gutxi zegoela, ez nituen ongi bereizten. Ibilgetasun zurrunean eserita zeuden, zeina erregea altxatu eta ezinegon-keinuz mugitu zenean amaitu baitzen.

—Berorren Maiestatek hurbil zaitezela agintzen du —esan zuen soldaduak, tonu bizkorra beste ia gozo batera aldatuz.

Altxatu eta alfonbra gorriaren gainean abiatu nintzen, errege eta bere aldamenengoenganantz. Aretoaren erdira iritsita perspektiba-efektuaz ohartu nintzen, beharbada tokiaren handitasun biluziarekin erlazionatuta, zeinak une batez tokitik mugitu gabe mugitzen nintzen inpresioa eman baitzidan, edo agian hobeto, iruzurra hautematearena, zeinaren arabera ni aurreratu ahala, eurak Aretoaren hondorantz atzeratzen ziren, zeina mugarik gabe sakontzen zen. Segundo eskas bat iraun zuen hark, baina asko nahastu ninduen, espazioaren nozioa errekuperatu eta Tronuraino igotzen ziren mailen oinetara iritsi nintzela aurkitzean, ostera belauniko jartzeko bulkada sentitzeraino, behar bada zapaltzen nuen lurraren sendotasunaz jabetzeko. Gorantz begiratu eta Antoni dukea antzeman nuen, zuhur, aulkiteriaren ezkerreko muturraren aurrean zutik; beste muturrean, hura ere zutik eta solemne, bereizten jakin izan ez nuen gizon bat zegoen, bizarduna eta adats luzekoa, habitu batekin zurrin jantzita. Beste hiru aulkiak pixka bat gorago zeuden: Frederik erregea, zaldi bat bezain distiratsu eta sendo, erdikoan zegoen; haren eskuinean, goitik behera beltzez jantzita, koroatu eta bikain, prosapia handiko andere bat zegoen jesarrita (eta bular handikoa, egia esateko, jantziaren belztasunean nabarmen, egundoko bularraldearen erdian zetzan kameu ederraren distirari esker): Berorren Maiestate Joana erregina, Anbereskoa, Frederiken hirugarren emaztea, besterik ezin zitekeen izan, zeinari buruz batzuen iritziz mirakuluak eta besteenean sorginkeriak egiten zituen zurrumurruak baitzeuden. Azkenik, erregearen ezkerrean, Maria printzesaren, Maria miragarriaren, presentziaz jabetu nintzen, eta ostera sentitu nuen Jauregi aurrean batutako jendetzaren artean hunkitu ninduen inarrosaldi berbera eta, han bizi izandako borroken irudiak zatika metatzen zitzaizkidan bitartean, nire zalantzak desegiten ziren, aurpegian irakurriko zitzaidan txundidurari bide emanez, erregea ondoko hau esanaz entzun bainuen.

—Bitxia da.... Heroia izutu eta eraldatu egiten zaigu. Bitxia, inondik ere.

Frederiken ahotsak harritu ninduen, sudurkari eta atiplatua, errege bati ez zegokiona iruditua baitzitzaidan, nahiz eta jarraian frogatuko nuenez, hura bere anomalietan txikiena zen. Hala ere nik ezin nion Maria kontenplatzen gozatzeari utzi, zeina bere burgoitasun zurbilarekin, begirada Tronuko Aretotik haragoko hustasun ilunean galduta, gugandik oso urrun, beste tokiren batean gure zain zegoela ematen baitzuen, bere magalaren gainean nagiki zetzan ilaje guriko katu bat laztantzen zuen bitartean. Animaliairen inbidia sentitu eta pentsatu nuen Maria memoriaren edo

imaginazioaren begiekin ikusten banengo bezala zela. Baina nire aurrean zegoen, printzesari zegokion aulkian eserita, nigandik soilik maila batzuk gorago, eta hura gurtzeko senezko borondateak hartzen zituen ostera nire gorputza eta nire pentsamendua. Bat-batean, ordea, zerbaitek ukitzen ninduela jabetu nintzen: Frederik erregearen soa zen, ilunpeei mintzatzeari utzi eta orain, jakin-minez, lotsagabe nigana zuzentzen zen bere flauta-ahots pitzatuarekin:

—Esan, heroi. Nola duzu izena?

Eta igela gogoratzen zuten nini beltzeko begi urtsuekin begiratzen zidan. Mariarenganako lilura saihestu nuen, erregea ez ezik, abituko bizarduna, Antoni dukea eta Joana erregina nire erantzun baten zain zeudela eta halako antsia batekin burua luzatzen zutela ohartzeko. Ezbairik gabe erantzun nuen:

—Puppa da nire izena, Berorren Maiestate.

Harridurazko isiltasuna egin zen, eta denek, Mariak izan ezik, bekainak uzurtu zituzten erabat ulertu ez banindute bezala. Erregina pixka bat gehiago makurtu zen, bere kameua bere bular erronkarien aurrean kulunkan utziz. Frederikek barrez lehertu eta jaurti zuen:

—Puppa? Ze izen-klase da hori? Bitxi askoa da, heroi... Tira, esan zure erregeari zein den zure izena. Nahastuta sentitu nintzen. Pixka bat zezeldu nuen berresateko:

—Puppa da nire izena, Berorren Maiestate. Hauxe da nire izena, ez daukat besterik.

—Lotsagabea!

Horixe oihukatu eta nigana jauzi egin zuen Antoni dukeak katu basati bat balitz bezala, ukabila altxatuta, ni zigortzeko prest. Ustekabean harrapatu ninduen eta zalantzarik gabe nire erantzunaz damuaraziko zidan, erreginak moztu ez balio:

—Ez, Antoni!, egin zion errieta, begirada dirdaitsu batekin. Eta erantsi zuen—: zorrotzegia zara gure Pupparekin, zeinak duda gabe ez ditu errege-protokoloak ezagutzen, baina bitzta zor diozu. Eta hitz hauek azpimarratu zituen, gozotasun lizunez beteriko begirada bat eskainiz. Bere tokiraino atzera egin zuen Antonik, suminez dardar batean. Orduan Frederikek ostera hartu zuen hitza, sardetxo batek platera harramazkatzen zuela zirudien ahots harekin:

—Ez entzun hauei, heroi. Zure ametsetatik hitz egiten dizute. Ongi. Guk ere ametsetatik hitz egiten dizugu, baina Gu erregea gara, azken finean —eten bat egin eta baitaratuta mantendu zen une batez. Gero begiak oso irekita, esan zuen gainezka—: Puppa! Beraz, zu zaitugu Puppa. Ongi, heroi, horrek pozten gaitu, eta egiguzu kasu Guri: ez entzun hauei. Ez dago zertan kezkatu... Argitxo bat Pupparentzat!

Eta estaltzen zuen gainjantzi moreantzekoaren azpitik obalo-formako kutxatxo bat, lorez hornituta eta sarrailek itxita, atera zuen. Jarraian eskuin eskuko erpuruan zeraman eraztuna kendu —urrezko eraztuna, gainean harri eder bat, akuamarinak zeuzkana— eta eraztunaren barrutik mineral-zatitxo bat atera eta kapsulako sarrailean ezarri zuen. Ondoren zaratatxo bat entzun zen, mingain-klaska bat bezalakoa, eta bat-batean kapsula bi zatitan ireki zen, Moldavaren alboan gordinik jan ohi nituen txirlak gogoraraziz. Ireki orduko, kapsula barrutik klabinbaloz jotako musika urrunaren doinua atera zen, eta baita patio barruan eta lorategiko galerian distiratzten ikusi berri nuen era bereko argi morea ere, ahulago eta sotilagoa ordea, halako eran non nekez inguratzen zituen krustazeoaren bi kuskua, halo lausoa osatuz. Baina harrigarriena izan zen, argitu eta soinu egiten zuen aldi berean, kapsula irekia erregearen eskutik altxatu eta lebitatzen hasi zela, eta gero, airean abiadura hartuz, orbita geldoak egiten hasi zen erregearen buruaren inguruan, satelite bat balitz bezala. Aztoratuta, begirada ezkutua bota nion Maria printzesari: bere tokian eserita jarraitzen zuen, baina jada ez zen urrun ikusten, aldiz txintxo, agian lotsaturik, eta are ezkutuago itzuli zidan begirada bere katua laztantzeari utzi gabe. Horrek kemen nahikorik eman zidan Frederik erregeari begiekin galdekatzeko: ezaguna zen bere nabarmenkeriekiko zaletasuna eta hori zurrumurru-motiboa zen herriko alde batetik bestera, baina neure kabuz konprobatzeko aukera neukalarik, nahastu egiten ninduela aitortu behar dut. Berehala ulertu zuen nire kezka: irribarre gozoz begiratu eta, tronutik jaisteko prestatuz, esan zidan:

—Altxa zaitez lurretik, Puppa, eta bestela laster lau hankatan ibiliko zara konturatu gabe —eta burua bi aldiz koroatua, musika eta argizko molusku pisugabearekin, mailak nire alboraino arinki jaitsi eta txeraz ukitu zidan bizkarra—: Altxa zaitez eta etorri, paseoa emango dugu Aretoan.

Beldurturik, altxatu eta jarraitu egin nion. Gure oin-hotsak areto huts-hutsaren oihartzunean entzuten ziren. Zutabe baterantz abiatu ginen, erabat gaingitu genuen, hatz bat igurtzi nuen bertan eta harri biziaren hoztasuna sentitu nuen, hezetasunez bustirik; jarraian kontrako bidetik abiatu ginen kuprezko kandelario batzuen alborantz, zeinen gainean gizon indartsu baten eskumuturra bezain zuzi lodien argizari urtuaren tantak labaintzen ziren. Frederikek hatzarekin seinالاتu zuen bere buruaren inguruan nekerik gabe dir-dir egiten zuen kapsula:

—Egon lasai, heroi. Agian eragozten dizu zeratxo honek? Guk biziki maite ditugu holako huskeriak, munduko zoko guztietatik ekarrarazten ditugu —erregeak jarraitzen zuen bitartean, gurutzatu nituen geletan metatzen ziren gauzaki arraroetan pentsatu nuen—: egia esan hauetako batzuk zirtzilkeria baino zerbait gehiago dira. Ba al dakizu, Puppa? Guk jakinduria ezagutzeko premian sinisten dugu, ahalmen espiritualak indartu eta zabaltzean. Jainko Gure Jaunak, zeinaren graziagatik Guk zuen errege izan behar dugun, ez zituen gizakiak bere irudi eta antzera sortu ezjakintasunaren ilunpean ezkutatuta gera gaitezen. Ez, Hark nahi du, hornitu gaituen tresnekin gure eskura jarri duen mundu hau menperatzea. Ezagutzara iristea nahi du Jainkoak, gnosira, eta orduan atsedena hartzen utz dezagun. Eta egun hori iritsiko da. Iritsiko da gizaki guztiak errege izan eta Lurra menderatuko duen eguna. Bada nire sinisteak bitxikeria hutsa direla uste duenik, baina orijinaltasun gehiegizkoa aurpegiratzen diguten horiei burua motzarazten diet eta kitto. Ez nau dibertitzen, baina argi geratu behar da nor den agintzen duena, ez al duzu uste, Puppa? Eta Guk zientzian, artean eta magian ipintzen dugu fedea eta itxaropena. Hainbeste jakin-min sortzen dizun musika-gauzakitxo hau magiako truku hutsa besterik ez da —eta hor hatzarekin keinu bat egin eta kapsulak nire bururaino egin zuen hegan, haren bueltan inguruka hasiz: argi-argi entzuten nuen musika fina, eta haren argi suabeak nire garondoan hozka neukan minarekiko leungarri modura funtzionatzen zuen. Frederikek irribarre egin eta jarraitu zuen: argi-pipil bat besterik ez da, gauzaki sinple bat... neurri batean magikoa, hori bai. Esaten nizunez, magiaz inguratzea dugu gustuko, eta gauza askok du zerikusia horrekin jauregi honetan. Erregina gure emaztearen bularrek, adibidez. Agian atsegin al zenuke zure eskuekin eustea? Ongi, ez da zentzugabea suposatzea une batean edo bestean berak zuri horixe egin dezazun agintzea... Baina, adi! Mintza gaitezen orain gauza serioei buruz.

Tronuko Aretoaren auskalo zein zokotatik etorritako aire izoztua zutabe eta ojiben pean pausatu eta bete-betea inguratu gintuen, zuzi-pare bat itzaliz. Nik dardar egin nuen, baina Frederikek aldagaitz jarraitzen zuen, aurpegia bat-batean zakar, bere urtikaria-ahotsa beste oktaba bat gehiago altxatuz eta, zabar eta xeble, plural maiestatikoaren eta singularreko lehen pertsonaren artean zalantzaka.

—Zure parte-hartze heroikoaren egunean, Puppa, Antoni dukearen bizitza salbatu zenuen eta, are garrantzitsuagoa, gure alaba Mariarena. Apropos, konturatu gara nola begiratzen diozun: ahaztu ezazu, ez da zuretzat eta ez da inoiz izango... Zer nioen? A, bai: zure portaera bikaina, probidentziala, izan zen matxinada-egunean. Lastima, dukearen eta zure artean lau katoliko burugabe hil zenituzten arren, bosgarren batek traizioz bizkarrez hurbildu eta labana bat sartu zizula garondoaren azpian, idi bat izango bazina bezala. Ulertzen dut listua irenstea entzuten duzunean, baina horixe gertatu zen... Erabaki zerutiarren batek babestuta, zauriak ez zuen puntu bitalik ukitu, baina larri zaurituta geratu zinen. Eta atsegin izango duzu jakitea Antoni dukeak zure erasotzailea garbitzeko ardura hartu zuela, eta dukeak berak, guri dagokigun errespetuarekin hitz egiten ez diguzunean orain zakar asko tratatzen zaituen arren, jasoarazi egin zintuen, gorte honetan dagokizun ehorzketa egiten saia gintezen, zure jarrerarekiko eskerronez. Ostera zorionez, hori ez da gertatu. Berrogei egunez eta beste hainbeste gauez borroka egin duzu Parka beltzaren aurka, baina ostera garaile atera zara. Hori, ordea, ez zen gertatuko Judah Loew ben Bezalel gure Pragako Errabino Gorenaren borondate eta trebetasun handirik gabe, metafisika eta kontu sakratuak ezezik medikuntza, droga eta magia sendatzailea kontrolatzen baitu berak.

Iluntasun eternoan bizi diren deabruen aurka egin du borroka zu salbatzeko, eta orain bere ahalmenen ondorioak gozatzen dituzu.

Hitz hauek esaten zituen bitartean, erregeak bizarra, adatsak eta abitua zeuzkan gizona seinalatzen zuen, zeinak izukaitz begiratzen zidan aulkiteriako bere aldeko muturretik, Tronuaren alboan. Argi-pipilak bere klabizenbalo-doinuekin kulunkatzen ninduen bitartean, ulertu nuen ezen Frederik, kausa lutertarra gidatzen zuen arren, gai zela siniste-kontuetan eklektikoa izateko, sinkretismoa jakinduriaren alde egotekotan. Judah Loew Rabinoarengana hurbildu nahi nuen nitaz ardura izateagatik eskertzeko, baina Frederikek moztu zidan:

—Aukera handiak izango dituzu Errabino Gorenari zor diozun eskerrona adierazteko, Pappa. Baina orain goazen mamira: laster gerra izango da. Nire gortea jauregi honetan finkatu eta ni bohemiarren errege legitimoa naizen arren, eusten didana behin-behineko gobernu bat besterik ez da, Errege-Karta emateko aginpidea, Erregeordeen Kontseilu desegin berriak baietsita, izan dezadan arte. Behin-behineko gobernu, zuk parte hartu zenuen intsubordinazio-ekintza batean ezarria... Bere aldetik, Matias hil urren dago azkenean, baina aukeratu du bere ondorengo inperiala, Ferran Estiriako mespretxagarria, kontraerreformatzaile saldu hura, eta kontuan hartu beharra dago katoliko matxinatuak hura hobetsiko dutela. Ez dezagun ahaztu Ferran pairugabekoa eta anbiziotsua dela, eta eskertzekoa izango da, ezinbesteko protokoloetatik harago, inora eramango ez gaituzten gehiegizko endredo diplomatiko batzuk, lehen aukeran salduak izateko konpromisozko konpontxo posibleak barne, aurrezten badizkigute. Beraz, laster, Matias hil eta Estiriakoak inperioko agente-makila hartuta, gerrara jo beharko da haren aurka, Bohemiako errege gisa gure legitimotasuna frogatzeko. Eta ordua iristen denean, Martek eta Minerbak bana ditzatela guregan faborea eta bedeinkapenak; eta behar izanez gero, argitu ditzatela munduko beste monarka batzuen begiak, bion artean alde zuzena aukeratzeko orduan argi ikus dezaten.

Frederiken hitzak ahul iristen zitzaizkidan, arretarik gabe entzuten bainituen... Heriotzak bere bafada kirastun eta izoztuak nire lepotik hain gertu putz egin zuela jakiteak halako moldez nahasten ninduen non, orduan, nire garondan min lazgarri hura sentitzen nuenean, zitzada bakoitzak bizitzaren laburtasun iheskorrean lehen aldiz pentsarazi eta eskerrona sentiarazten zidan, hura kontserbatzeagatik. Onartu beharra daukat ezen, betidanik Yahveren debotoen kontra entzundako iseka guztien ondoren, harridura sentitzen nuela, hura guztia ezagutu berri nuen Loewek posible egin izanagatik, itxura serioko, eta neurri batean desatsegineko, judu bat bera. Argi-pipilaren klabizenbaloak nire buruaren inguruan pentsamendu hauek alaitu bai, baina ez zuen nire nahasmendua leuntzen. Edozein moduz, nirekin zerikusi zuzenena zeukan diskurtsoaren zatira iristen zen:

—Hilabete batzuk igaroko dira aurkakotasun-adierazpenera iritsi arte. Bitartean istiluak sortuko dira, eta matxinatuak erakutsi dute ez dutela Palatinatuko errege-familiarekiko errespeturik, eta argi asko eman digute aditzera beldurgarri izateko gai direla beren itsutasun gordinean. Hitz batez, printzesa nire alabaren integritateak kezkatzen nau —eta, Maria aipatzen zuela entzutean, nire bost zentzumenak erregearen hitzetan kontzentratu ziren oster: —Erabaki dugu Jauregiko matxinada-egunean erakutsi zenuen borrokalaria-sen irmoak haren goardia pertsonalean sartzeko gizon egoki bihurtzen zaituela. Har ezazu zure kemenarekiko opari bidezkotzat —nekez iristen nintzen entzuten nuena sinistra, eta jabetu nintzen nire hankak dardarka hasi zirela. Baina Frederikek jarraitu zuen: —Fidatzen gara baita ere gure alabaren pertsonarekiko sentitzen duzun txera nabarmenak —eta neurri batean logikoak— zure eginbeharrean zentratzera eramango zaituela. Baina ai zure zeregina egiteko behar-beharrezko den baino milimetro bat gehiago hurbiltzen ausartzen bazara, heriotza mingarriarekin zigortua izango baitzara orduan. Areago: nahikoa da hari hitza zuzentze hutsa. Guk-geuk hartuko dugu zu piztia bat bezala akabatzeko ardura. Antoni dukearen agindu eta gainbegiradapean egongo zara, bera baita gure tropen buruzagi nagusia: berak emango dizu beharrezko instrukzio militarra zure basakeria bikaina fintzeko, eta haren aurrean Gurean egingo zenuen era berean erantzungo duzu. Bestela, inkultua zarelakoan eta onartzen ez dudalarik printzesa artea, zientzia eta magia maite ez duen inorekin inguratzea, Guk printzesaren tutorearen pean, Judah Loew ben Bezalel Pragako Errabino

Gorenaren eskutan uzten zaitugu, berak zuri transmititzea egoki ikusten dituen gauzetan hezteko. Era berean zehaztasun berberarekin beteko dituzu Bere Maiestate erreginak iritsarazten dizkizun aginduak. Gaurtik aurrera, Pappa, gure gortearen parte zara; Guk ongi-etorria ematen dizugu.

Eta eskua luzatu zidan hatzak irekita errege-eratzunari muin eman niezaion. Harrituta belauniko jarri eta obeditu egin nuen, dukeak, errabinoak eta, batik bat, Maria printzesak ipintzen zuten aurpegia asmatzen betertzez saiatzan nintzelarik. Ez nintzen ordea iristen, eta Frederikek oster hartu zidan arreta bere diskurtsoa borobiltzen zuen iruzkinarekin:

—Zorroztasunez onartu duzu nire eskaintza. Horrela izan ez balitz, burua motzarazi eta gero Gaztelako atean haga batean esekitzeko aginduko nukeen, zuk-zeuk hil dituzunen alboan lehortu eta usteldu zedin. Eta orain, altxa zaitez, Pappa. Atera zaitezke.

Eta hori esanda, nigandik urrundu zen Frederik eta, niri bizkarra emanez, Tronuraino iristen ziren mailetarantz abiatu zen. Bi zutabeen erdian zutunik mantendu nintzen, zer egin jakin gabe, eta are gehiago aztoratu nintzen, erregea bere tokian jesarri ondoren, molusku musikalak nire buruan grabitatzeari utzi, mututu eta nire oinetara jausi zenean, oskol zimurtu eta zimeldu bihurturik, patata zahar baten testura eta kolorearen antzera. Zer esanik ez, ordea, jada ez zuen argi-printzarik ematen, eta horrek tristetu egin ninduen piska bat. Jarraian, ordea, pipil deseginaz ahaztu nintzen, piska bat lehenago, Tronuko Aretoran lehen urratsak emanik sentitu nuen pertzepzio berberak harrapatu baininduen. Orain geldi nengoen, baina, instant iheskor batean, interferentzia bat Aretorearen hondoa gurutzatu eta nire gorputzeraino agudo etorriko balitz bezala izan zen, ikusten nuenaren eta nire begiradaren arteko jarraikortasuna apurtuz, zeina nire ongile ospetsuak eserita zeuden aulkiteriako punturen batean transferituta antzeman bainuen, ni han bertan egon eta nire burua urruneko ispilu baten barruan aurkitzen nintzen efektua sortuz. Diodan bezala, hura dena hain azkar gertatu zen, ezin dut ziurtatu hura benetan gertatu zen edo inguratzen ninduenak nire irudimenean zuen produktua zen, kontua da aldatu egin ninduela. Nire begien eta espazioaren arteko harremana berrartuta, Aretoko atea gordetzen zuten bi soldaduek inguratu ninduten, kanpora laguntzeko prest. Ez nien itxaroten utzi nahi, baina audientzia berezi hura amaitutzat eman baino lehen, soarekin pasa nituen eskaileraburuan eserita zeudenen figuren aurpegiak. Gogoratzen dut Antoni dukearen begiek ez zutela gorroto hotza ezkututzen, erreginarenetan lizunkeriaren aztarnak antzeman nituela, erregearenak argilunak ahalbidetzen zion beste goian galtzen zirela adigaitz, Loew errabinoarenak etorkortasuna eta beharbada erruki-puntu bat adierazten zutela, eta nire printzesa kuttunarenak tristura ezinesanean itotzen zirela, niri zerbait esaten saiatzan zirelarik, eta nik, ezgai, interpretatzen jakin gabe jarraitzen nuela. Hala ere aterantz bideratzen nintzelarik, pentsatu nuen, ezein soldaduk ni baino lehenago ez zuela merezi izan epiteto hura hainbeste zehaztasunarekin.

Dichten ist zeugen. Alles Gedichtete muss ein lebendiges Individuum sein. Welche unerschöpfliche Menge von Materialien zi neuen individuellen Konbinationen liegt nicht umher! Wer einmal dieses Geheimnis erraten hat –der hat nichts mehr nötig, als den Entschluss, der unendlichen Mannigfaltigkeit, und ihrem blossen Genusse zu entsagen und irgendwo anzufangen– aber dieser Entschluss kostet das freie Gefühl einer unendlichen Welt –und fodert die Beschränkung auf eine einzelme Erscheinung derselben–. Sollten vielleicht einem ähnlichen Entschusse unser indisches Dasein zuzuschreiben haben?

Beraz, hementxe daukazue, lagunak: kontua da nire anfitrioi xelebreak zuzenean parte hartu zuela, eta nolabait esatearren protagonista bezala hogeitahamar urte luzez, lehenik gure herria eta gero mundu osoa suntsitu zuen gerra basatia piztu zuten gertakari larrietan. Zuek denak, tabernari xuhur eta nagi hau barne, deabruak nahas dezala, gazteegiak zarete inongo gomutarik gordetzeko, eta hola ez duzue ezagutzen bizitza deritzogun behin-behineko fartsa honetako pasea jaiotze-unean arima galdu genuela konstatatzea besterik ez dela, eta arimaren dardarizoa gure gorputzak usteldu ostean hara itzuliko garen itxaron bitartean. Ez al duzue horretan sinisten, adiskideak? Ongi, ez duzue zertan erantzun; izatez ni ere ez nago oso seguru, eta holako gauzetan

sinisten badut botagura ematen dit, egokiagoak baitira predikadore eta apaizentzat. Hobe dugu guk-geuk barkatzea geure bekatuak, halako moduan non, ekaitz honek, infernuaren errailetatik sortua dirudiena bera, gurekin amaitu behar badu, gutxienez heriotzak ondo edanda harrapa gaitzala. Ez al gaituzu agian entzuten, tabernari? Mingainak oraindik ez dit traba egiten; esan nahi dut aski argi hitz egiten dudala pentsatzen dudala. Beraz mugitu ezazu ipurdiaren orde z paseiatzen duzun zahagi hori eta bete iezadazu nire txarroa behingoz, oraindik tximista asko jausi eta azaltzeko gauza asko baitaude!

Nondik nindoan?... A, bai; zuek ez dakizue zer izango den gerra... Ni, gosea bezain zaharra naizenez, debakle haren azken urteetan hazi nintzen: nire haurtzaroaren memoria hiltzez beteriko gurdietara narama; bide-ertzeko zuhaiztian esekitako beren semeen aurrean etsipenez negarretan zeuden hortzik gabeko atsoengana; arreba eta auzoen bortxaketetara, zeinek aurpegia azazkalekin zauritzen zuten, soldaduek edo bandoleroek gu haurren aurrean behartzen gintuzten bitartean, harrapaketa eta lapurretara; gure herrietatik pasatzen ziren alde bateko zein besteko batailoiei ez geneukan guztia entregatzen ez bagenien oraindik beste infernu bat agintzen zizkiguten predikuetara... Ez behar zalantzaezinezkoenean buru-belarri sartuta jaio eta hazi nintzen ni, eta urte batzuk aurrerago ohartzen gara hau denaren hasieran Puppak hartu zuela parte, berak azaltzen zidanez suaren alboan, orain nik zuei azaltzen dizuedan bezalaxe. Hala ere, Puppak zaharraren kontakizunak pizten zidan ezinegona ezinegon, zerbait detektatzen nuen inpresioa neukan azkenaldian, zerbait lurperatu eta gardena, ur garbiko beta bat bezalakoa, zeinak errezeloa baztertzeraz bultzatzen ninduen instintiboki, azaltzen zidan haren egitasunean halako konfiantza moduko bati bide eginez... Begira! Mahaiaren beste muturrean badago bat lo hartu duena, burua txarroaren ondoan eta ezpainak lodi garagardo-bitsez beteta, ekaitzak eta nire hitz egiteko moduak nekatuta. Ongi, nahiago baduzue lo egin, orduan isilduko naiz... Ez? Jarraitzea nahi al duzue? Hartara, San Pedoren eskuetako babes izenean, ekarri ardo gehiago, tabernari, erren honek osteraz haurri helduko dio-eta.

Puppak esan zuen:

—Berandu gabe ezagutuko nituen motiboengatik, Antoni dukeak arazo pertsonal bat bezala hartu zuen nire instrukzio militarra. Bere konfiantza handieneko graduak soldaduek baioneta, arkabuz eta pistola erabiltzen praktikatzeko agindua eta ardura zeukaten, baina dukea bera zen buruz buruko konbatearen sekretuetan trebatzen ninduen. Hala ere, salbuespenezko tratua izan arren, edo agian hartatik, nire lehen egunak Jauregian errutina zorrotz eta diziplinatuaren arabera igaro ziren.

Tronuko Aretotik irtetean soldadu pareak —jada ez zetozen nirekin lehengo kamarlengoak— lagundu zidan eskailera batzuetan barrena irteeraraino, aire zabalean, eta, euren artean komunikatuta zeuden hiru barne-patioetan zehar, Jauregiaren ekialdeko hegaleko gehigarri modura eraikitako pabiloi bateraino gidatu ninduten. Pabiloiaren barruan logistika eta soldaduei ostatu emateko erabiltzen ziren etxolak zeuden; ni, ordea, bakar-bakarrik egon nintzen agindu berria izan arte, tropako gainerakoengandik bakartuta, ganbera deritzoten toki batean kokatuta: egiatan, hotz, euri edo berotik babesteko balio ez zutela oholeztatutako gelaxka sinple bat bera. Bi soldaduek agindu zidaten bertan geratzeko ordenak jasotzeko deitua izan arte, buelta eman eta urrats arinez urrunduz ziren. Gelaxka barrura sartu —ateak, noski, ez zeukan sarrailarik—, tiradera moduko baten gainean aurkitu nuen kandela bat piztu eta arakatu egin nuen. Ohantzea, orinala, haragi-plater bat saltsarekin azpil batean eta ogi zuri-pusketa bat zeuden. Besterik ez; soilik tiradera barruan nire hiru uniformeak, arduraz tolestuta: entrenamendukoa, galakoa eta konbatekoa. Ganberako leiho bakarreko kontraleihoak ireki eta begiratu egin nuen arrats gorritza baten bukaera kontenplatatzeko, zeinak biharamunerako haizea iragartzen zuen. Gaua iritsi eta dena bere isiltasunean janzten zuen neurrian, gero eta gehiago ziren soldaduen pabiloitik zetozen builak; olgeta-oihuak prostituten presentzia barrakoietan iragartzen zuten, zeina, laster jakingo nuenez, ohikoa bihurtzen zuen Frederiken permisitibitateak arazo benetuetan. Burutik pasa ere ez zitzaidan egiten alde egiteko ideia, nora joan ere ez baitzegoen. Bakarrik sentitu eta ohantzearen aurrean jesarri nintzen, azpileko jakiak irensteko, nire buruari galde egiten niolarik zer gertatu ote zitzaion Laidori eta bere ijito-klanari, eta jakina, Morelari.

Egunsentian beste soldadu batek esnatu ninduen. Entrenamenduko uniformeak jantzarazi zidan (bioleta-koloreko alkandora aurrealde urdinarekin, eta osterak gurutzeko handi zilarrezkoa bularraren erdian brodatua, lepoko eta eskumuturreko parpailarik gabe, galakoan ez bezala; arma-gerrikoa, kotoi latzeko galtzontzilo eta kaltzak larruzko zorro batekin estalita, hura ere bioleta-kolorekoa, izterraren atzean itxita, botoi-zulo eta botoiekin; azkenik, larru beltzeko bota eta esku-zorroak, belaunetara eta ukalondoetaraino hurrenez hurren), eta aurreko egunean zeharkatu nituen hiru patioetako bigarrenera gidatu ninduen. Haren mutur batean parapeto bat zegoen, suzko armez beteta; bestean, panpina- eta diana-ilara bat, zirkulu kontzentriko-forman, punteria egiteko. Hantxe bertan jakinarazi zidaten une hartatik aurrera zegokidan errutina: goizean, lehen argiarekin, instrukzio militarra eta artilleria arinaren erabilpenari buruzko ikasketa, lau orduz etengabe; jarraian, goizeko errezoak kaperan; gero gimnasia eta esgrima Antoni dukearekin: beste lau ordu atsedenik gabe eta gero otordu bat eta lau orduko ikasketa Loew errabinoarekin; bukatutakoan, arratseko otoitzak, beste otordu arin bat (igandeetan eta gorde beharreko jaiegunetan derrigorrezko ofizio erlijiosoa, non afari bakarra hostia eta komunioko ardo-tragoxka besterik ez zen) eta gaueko guardia Maria printzesaren geletako atean, zeinaren loadia goizaldeko ordu jakin batera arte zaintzea zegokidan, non ganberara erretiratua izango nintzen beste lau orduz atseden hartu eta gero osterak lanaldiari berrekiteko. Nire instruktoreekin izan ezik, Jauregiko beste inorekin ez nuen harremanik izango, soldaduekin ere ez, hurrengo agindura arte, eta ez nuen printzesa ikusiko salbu bere zerbitzura zeuden zazpi donteilez inguratuta bere gelara erretiratuko zenean: belauniko eta tente-posizioaz agurtuko nuke, begietara sekula begiratu gabe eta hitzik zuzendu gabe arrestatze edo zigor fisikoen mehatxupean. Perspektiba ez zen oso lausengatzailea; hala ere, ezerk ez zidan kentzen nire zeregin berriarekin goiz ala berant eskuzabalak izango ziren eskumen eta pribilegioak eskuratzen nituelako susmoa.

Nire lehen hamar egunak printzesaren guardiako soldadu bezala, beraz, aditzera eman zidaten programaren arabera izan zen zehatz-mehatz. Niretzat denetan nekosoena bakartuta egotea zen, sumisioa eta menperakuntza adierazteko ez beste ezertarako inorekin ez komunikatzeko debeku hura. Baina gainerako beharrianak, gogorrak eta zurrinak ziren arren, neurri batean nire gustukoak ere baziren. Batik bat bilerak Loew errabinoarekin, ziega labur eta hutsean, gizon jakintsu haren ikaspenetarako baitaratze-giro egokian eginak, zeinak adeitasun hotzez tratatzen ninduen, gramatika, musika, algebra, aritmetika eta poesia irakasten zizkidan bitartean: behin eta berriro esaten zidanez, benetako jakinduriaren ezinbesteko oinarriak; Jainkoak gizakiarengan ezarritako espeketatibei zegokien edozein eraikuntza intelektuala formulatzeko ezinbesteko tresnak. Eta ez dago aipatu beharrik, gauean harrapatzen ninduen euforia, eusteko hain zaila, nire anderea atseden hartzera erretiratzeko pasatzen zenean belauniko jartzean, ni mentalki bere gonon satin eta zetaren zaratatxo bere donteilenek egiten zutenetik bereizten saiatzzen nintzelarik; edo ganberaren aurrean zutik, bere loadia zaintzen, jartzen nuen arreta. Egunez metatzen nituen nekeak etenik gabe egitera behartzen zizkidaten ariketa militar astunekin konpentsatzen zidan, lehenik tiroko patioan dukearen ordezkariekin, eta gero esgrima-aretoan Antonirekin berarekin. Esan nahi da gauez ere ez nuela atsedenik hartzen. Lur jota jausten nintzen nire gelaxkako ohandetan eta seko lokartzen nintzen berehala, esleitu zizkidaten lau orduko atsedenaldia egoera hipnagogiko bitxian igarotzen nituen, delirioak sortzen zizkidan loaldi artega, zeinean Jauregi barruan ibiltzen nintzela zirudien, hormak eta lurra zikinez tindatuta zeuzkaten galeriak zeharkatuz eta, antza, sekula amaitzen ez zirenak. Nenbilen galeriako sabaian izotz-puska lodiak esekitzen ziren zintzilik; arnasa izoztu egiten zitzaidan eta argia ematen zidan tortxa itzali egiten zen oxigeno-faltagatik. Gero galeria estutu eta hainbat bide-gurutzetan banatzen zen, zeinak hainbat pasadizo ezatseginetara igotzen ziren jauregiko gelak koba natural batzuekin konektatuz; ni bat aukeratu eta, nekez eta dolorez, eta nire gorputza alde guztietan zaurituz, urmael baten albora iristen nintzen. Bertan murgiltzen nintzen; ura ere izoztuta zegoen, eta ahanztura eta isiltasuna erabatekoak ziren; azkenean, ilundu egiten zuen. Ostera begiak irekitzean, harkaitzean zabalduetako areto zirkular handi batean biluzik aurkitzen nintzen; toki txundigarri haren erdian itxura anbiguoko tontor bat altxatzen zen, gizon ospetsuren baten

omenez jasotako tumulu baten eta aldare paleokristau zahar baten arteko zerbait; tontor haren gainean makurturiko emakume handi batek bere gorputz biluzia eskaintzen zidan. Harengana sutsu hurbiltzean, konturatzen nintzen haren hazpegiak Morelarenak zirela baina bat-batean aldatu eta Mariarenak bilakatzen ziren, nahiz eta beldurgarriena zen, eskua gainean jarri orduko, gorputz eder hura suge ikaragarri handi bat bihurtzen zela, hotz eta ezkatatzen zela, baina hark ez zuen apaltzen nire likistasunaren intentsitatea, eta orduan munstroarekin kopulatzen nuen. Jarraian espermaren biskositatea sentitzen nuen izterretan, eta osteria esnatzen nintzen nire ganbera estuaren ilunpean, gaueko poluzio baten ostean.

Haluzinazio errepikakor hauek inoiz baino aratzago eta kezkarriagoak agertzen zitzaizkidan bederatzigarren gauean, halako moldez non, guardiako ordezkariak hamargarren instrukzio-egunerako deitu ninduen, nahastuta eta indar gutxiarekin sentitzen nintzen. Indar gutxi, bai, eta are traza gutxiago: udako eguzki erregarria Praga gainean egun hartan baioneta-maniobretan egindako nire erroreak zigortzeko sortu zela zirudien, nire tiroen desbideraketa jasanezinezkoa izerdiz eta deserosotasunez ordainarazteko, nire erreflexu-astirotasuna pistolaren ordezkari fusila hartu eta bolboraz kargatuz patioko hormen kontra destatzen amaitzeko, dianetatik urrun. Txandako ordezkariak ergeltzat eta urde zitalez jo ninduen, eta zentzagarri bat ezarri zidan, hau da gorputz-ariketa bikoitza armak lepoan hartuta; haietako bat lurrera erortzen zitzaidan bakoitzean bi zigorkada jasotzen nituen bizkarrean. Amaitzean oro har zortzi zigorkada jaso nituen, nire garondoa zein saiheztasun odoleztatu zitzaizkidalarik. Inolako zainketarik hartu gabe eta mando zahar baten gisara putz eginez esgrima-aretoa bidali ninduen ordezkariak, non Antoni dukea eta haren eguneko ikasketa neuzkan zain: nekez ahanztu nezakeen bat.

Esgrima-aretoa hormak eta zorua hezur-koloreko zeuzkan errektangelu handi huts bat zen, eta leiho handi bat nondik goizeko ordu hartan gela blaitu eta efektu erralentizatzailea sortzen zuen argi-parrasta zuria sartzen zen: gure ezpatari-mugimenduak mantsotzen zirela zirudien haren eraginpean, benetan borroka likido baten barruan egingo bagenu bezala. Lurrean margotutako beste errektangelu bat zegoen, eta albo batean pasarela luze bat, hogeitahamar graduko inklinazioa egiten zuena: gure enfrentamenduak gertatzen ziren eszenatokiak ziren. Ni iritsi nintzenean zain neukan Antoni entrenamendu-saioetarako janztan zuen jantzi zuri aratza soinean doituta (ohiz janztan zuen beltz hutsaren ordezkari), gurutzea bular gainean hari gorritz brodatua, eta destainazko imintzio txiki bat ezpainetan, eguneko lau ordu haietan ezein unetan uzten ez zuena. Aditzera eman nahi zidan Antonik nire borrokarako berezko gaitasuna, aurkaria desegiteko nerabilen oldarkortasun predatzailea, neurri bateraino beldurgarriak gerta zitezkeen arren, izaera basatiaren adierazpen besterik ez zela, hobegarria zena, baina edozein moduz, beti fintasun eta sofistikaiziotik urrun, zeinetatik abiatuz berak konbaterako estrategiak ulertu eta praktikatzan zituen. Hau da, beragan beldur izan nezan erakutsi nahi zidan Antonik, eta xede horrekin praktikatzen zizkidan eraso eta defentsarako posizioak, fintak eta akrobaziak, korrikaldiak eta jauziak, ukitu, zauritu eta hiltzeko lantzeak, barkamenaren errefusa eta heriotzaren eskaria, erronkaren kortesiak eta amore ematearen protokoloak. Azken aspektu horri buruz, modu berezian insistitzen zuen: edozein izanda ere eguneko ikasketaren edukiak eta arma zurien arteari buruz nire ustez egiten nituen aurrerakuntzak (eta tresna edozein izanda: florete, espada, sablea, zimitarra, aizkora, daga, labana, sastakaia edo burdinazko eskularrua), edo esku hutsezko konbatare buruzkoak (hau da borroka egipziarra, etruskoa, grekoerromatarra, teutoia eta andaluziarra), Antonik beti uzten zuen amaierarako kolpe gordea, erremate zehazteza, bere podiumean berresten zuena, eta garailearena ez ezik, batik bat maisuarena zena. Lehen entrenamendutik jabetu nintzen horretaz, eta orduz geroztik nire onena eman nuen egoera hura iraultzeko; ahaleginak, ordea, hutsalak ziren: saio guztiak nire derrotarekin amaitzen ziren beti. Antonik erabiltzen zuen azpijokoa zen niri berrespen hierarkikotik harago zihoan mezua komunikatzeko, hamargarren egunera arte modu esplizituan jakinarazi ez zidana hain zuzen, gure saiora inoiz baino ahulago aurkezten nintzen egunean hain justu.

Egun hartan Antonik bere destaina-imintzioa keinu erasokor batez aldatu zuen, zeinak bere aurpegiko hazpegi proportzionatuak maskara baten geruzarekin janztan zuen. Pasarela gainean neukan itxaroten, atezaturik; sartu orduko daga eta sablea bota zizkidan, nik airean hartu nuen

azken hori, eta, ezein atarikorik gabe, niregana zuzendu zen heriotza-mehatxuka. Simulakro bat al zen hura? Ni zutik nengoen armak eskutan gure borroka-espazioa mugatzen zuen errektangeluaren erdian, eta harrituta ikusi nuen nola Antoni, bereak astinduz, pasarela korrika jaitsi eta nigana oldartzen zen sekula entzuna ez nuen gerra-garrasi bat jaurtiz. Geldi itxaron nion hankak zabalik, eskua bizkarrean neukala eta beste eskua sablean haren bihotzari begira. Lasterka hurbiltzen zitzaidan eta bi besoak astintzen zituen molinete eran, aditzera emanaz ni txikitzera zetorrela. Gurutz-defentsan bermatuta hartu nuen eta altzairu-zarata batez elkar jo eta biak lurrera besarkaturik jausi ginen, sableak erorita, dagak bestearen jugular beroa ukitzea bilatuz. Simulakro bat al zen hura benetan? Katakume baten zolitasunez altxatu zen Antoni; ni, gogorik gabeko behi baten mantsotasunarekin. Abiada hartu eta ostera oldartu zen nigana; bitartean, sableetako bat hartu nuen lurretik eta, une zehatzean, begiratu ere egin gabe ordea, airean arku bat egin, dukearen alkandora sotilki ukitu eta urradura bat, odolez tindatua, ireki nion omoplato gainean. Geldiarazi egin zuen horrek, eta orduan begietara begiratu eta erotzen ari zela irudituz zitzaidan. Aurreko garrasi ikaragarria jaurti eta oldar-itxura egin zuen buruarekin; goitik defendatzeko prestatu nintzen eta berak dagarekin sabelean jotzeko prestatu zen. Zauri bat egin zidan albo batean, kalte eskasekoa baina oso sakona; horrek nahastu egin ninduen, eta berak aukera baliatu zuen beste sablea berreskuratu eta nire buru gainean altxatzeko. Gutxiagatik saihestu nuen hura jaisteko eman zuen kolpe basatia eta azkenean lurrean jo zuena, non metala ia erdibitu egin zen txinpartak ateraz. Denbora irabaztea erabaki nuen eta, Antoniri bizkarra emanez, korrika atera nintzen pasarelarantz, armak zeuzkan buirakaren ondotik pasatzean, florete bat atera nuen, gero erdi erren igo, eta aldapa erdian itxaroteko biratu nintzen. Atzetik zetorkidan; nire etsenpluari jarraituz arma bat hartu zuen buirakatik, baina itsuan egingo zuen, aizkora hartu baitzuen. Ostera nire aurrean neukan, mastin bat bezala sumindurik, seguru asko bere arma desegokiarekin nire hankak mozteko modua bilatuz; urrun mantentzen nuen nire floretearekin pasarelaren inklinazioa baliatuz. Azkenik finta batekin probokatu nuen; Antonik makurtu eta nire eskuinean galdu zen kolpe bat jaurti zidan ni kontrako aldera baskulatzen nuelarik; horrela floretearen eskutokiarekin garondoan kolpatzeko une egokia sortu zitzaidan. Desorekatu eta pasarelaren hasieraraino atzerarazi nuen aurpegira eta gibelera zuzendutako ukabilkada azkar batzuekin; aizkora eskutik erori zitzaion eta ni, kontraerasoarekin suhartzuta, florete utzi nuen. Huts hark ia arriskuan jarri zuen nire bizia. Ostera buirakaren alboan ipinita, nire zigorra jaso bitartean, aukera izan zuen burdinazko eskularru bat hartzeko eta, mugimendu arin batekin jantzi eta nire sabelean egundoko kolpe batekin erantzun zidan, mailu bihurturiko bere ukabilaren potentzia guztia baitzeraman. Segundo batez paralizaturik eta arnasarik gabe geratu nintzen: aski denbora Antonik bigarren kolpe batez, sor eta basatia nola heriotza-zotina bera, nire sudurreko kartilagoa hausteko. Nire begiak itsutu zizkidan odol-turrusta batean lehertu zitzaidan sudurra, eta une hartatik bertatik konbatea galduta zegoen niretzat. Giltza ibilgetzailea egin zidan Antonik (aurreko saio batzuetan azaldu zidanez, zirkuko arean erabilia Caligularen garaian; gero Klaudiok debekatua, joko zikintzat baitzeukan), eta ni, eskuakin kolpeitsuak jaurtiz saiatzen nintzen bitartean, sentikortasun finagoa daukaten kirio-bukaera batzuk esku batekin zigortuz torturatu ninduen. Aditu eta krudel agertu zen, eta oinaze fisikoak, beragatik baino gehiago sortzen zidan beldurragatik, garrasi eginarazten zidan minaren modulazioak erakutsi zizkidan. Azkenean bizkarrez luze geratu nintzen, etzanda, bizigabe; orduan Antonik ezpata bat hartu, zintzur-korapiloa ziztatu eta ahots irmoz agindu zidan:

—Erregutu zure biziaren alde, koldar hori!

Isilik geratu nintzen begietara begiratuz, oinazeak nire gorputza nola eskobatzen zuen sentituz: Antonik errepikatu zuen:

—Ez ote didazu entzuten, herdoil-zaku nazkagarria? Zure biziaren alde erregutzeko agindu dizut! Utzi niri begiratzeari eta erregutu, urde hori!

Begiradarekin erronka eginez jarraitu nuen, ezpainak ireki gabe. Garrasi batekin hirugarren aldiz errepikatu zuen bere agindua; nire erantzuna ez nuela aldatzen oharturik, ezpataren sagarrean presioa areagotu eta eztarri parean zauria egiten zidala jabetu nintzen. Oraindik zalantzarik edukitzekotan nire arerioaren intentzioez, hantxe ezabatu ziren: orri metaliko batek lepoa

moztuta hilko nintzen han bertan, agintzen zidana egiten ez banuen. Begiak itxi eta, totelka eta ahotsa itota, marmartu nuen:

—Jauna, zure errukia erregutzen dizut. Izan zaitez errukitsu eta utz iezadazu bizitzen.

Oso une luzea behar izan zuen Antonik ezpata erretiratu eta zorroratzeke. Azkenean egin eta buelta eman zuenean, interpretatu nuen nitaz ahazten zela eta sakon hartu nuen arnasa, menderatzen ninduen umiliazio nahasiaren barruan arinduta, jaso berri nuen jipoiak eta aurreko zigorkadek sortzen zidaten uzkuertze orokorrarekin bilduta. Baina oker nengoen. Urrats batzuk distraiturik egin zituen Antonik; gero ostera itzuli, abiada hartu eta lasterka etorri zen niregana, saihesten batean ostiko sadiko bat jotzeko, ahal izan zuen indar guztiarekin. Ahoa ireki ere egin gabe jaso nuen kolpea baina esgrima-aretoko giro pisurik gabea hunkitu egin zen nire saihesten-hezurretako batek hautsean egin zuen kraskarekin. Orduan Antonik zarata lodi gutural bat egin zuen: begiramendurik gabe nire aurpegi gainean jaurti zuen gorro berde ugaritsua izan zen. Gero, esan zuen:

—Hemen amaitzen dira nire lezioak: gogora ezazu errukia eskatu didazun eguna, osteria egingo baituzu. Ongietorri Jauregira, Puppa: zure egonaldia zoriontsua izan dadila, nahiz eta hemendik aurrera zure bizia arriskuan egongo den edonora zoazelarik. Bitartean, esan zaizun modura, nire aginduak beteko dituzu.

Eta hura esanda, alde egin zuen ni esgrima-aretoko zoruan margotutako errektangeluaren erdian utzita. Leihotatik sartzen zen argia hil-ator bat bezala inguratu eta errealtatearekin ezein kontaktu fisiko galtzen nuen sententzioa sortzen zidan: hiltzen ari nintzela uste izan nuen ohartu nintzenean ez nuela ez enborraren ez gorputz-adarren ukiturik sentitzen: soilik Antoniren gorroaren eta nire odolaren arteko nahasmendu irristakorra, eta nire malkoak masailean behera irristatuz. Kontzientzia galdu aurretik, nire baitan deitoratu nuen egun hartan ezin izango nintzela Loew errabinoaren ziegara joan nire instrukzioa jasotzera.

Ostera begiak ireki nituenean, damaskoek eta farfaila ederrez estalitako zur landuko altzariz inguratuta nengoen, eta baita urrez oparo enmarkaturiko ispilu ugariz ere. Ilunpea zen nagusi, metal nobleen distiraz tartekatuta. Aurpegi bat ere bazegoen nirearen gainean ardura kezkatuz begiratzuz: une batzuk behar izan nituen ulertzeko Berorren Maiestate Joana erregina, Anbereskoarena, besterik ez zela:

—Zer egin dizute, mutiko gozo hori? Zer egin dizu piztia horrek?

Horrela mintzo zen erregina, amatiarra izan nahi zuen aldi berean inposatzaile eta lizuna ematen zuen tonuaz, prostituta batzuen leloak bezala. Ipinita zeraman lurrinak ere gehiegizko almizklea zeukan, eta gainera asko jarrita zeukan. Pentsatu nuen errege-familia hura aski bitxia zela: erregeak heroitzat nindukan, izan gabe, eta erreginak “mutiko gozo” esaten zidan, hitz egiterik baleuka kriskitin-suge batek untzikume batekin egingo zuen modu bereborean. Bitartean, Jauregiko tropen buruak ia akabatu arte jipoitu ninduen eta, gorte hartan interesatzen zitzaidan izaki bakarrari zegokionez, hots, Maria printzesari, harekin ezein kontakturik izatea debekatzen zitzaidan zigorrik handienaren pean, nahiz eta haren segurtasuna gauez zaintzearen arduraz zamatzen ninduten. Hainbat kontraesanek izorratu egiten ninduen.

Dena delarik, erreginak galdera bat egin zidan, beraz erantzutea zegokidan. Ezinezkoa gertatu zitzaidan: ahoa irekitzen saiatu nintzenean, matrailezurrean sentitu nuen mina hain zorrotza izan zen, txistu bat beste soinurik ez zitzaidan atera. Berehala ohartu zen erregina.

—Ez! Ez hitz egin, zorigaitzoko soldadu hori. Ixo, mutiko gajoa, isildu eta egon lasai. Hain gaztea zara, hain polita... —bere ahotsak platerkada bat ezti bezain balakaria izaten jarraitzen zuen. —Egon lasai, hartu atsedena... Horrela. Horrela. Oso zaurituta zaude, nire mutiko gaixoa. Oso zaurituta, baina aterako zara... Zuk hartu atsedena, soldadu, egon lasai eta isilik...

Ohartu nintzen mugitu ezinik jarraitzen nuela, eta galdetzen nion nire buruari ibilgetasun hura jipoien ondorena ote zen edo Joana erreginaren babespean esnatzeak sortzen zidan harridurarena. Ba al zuen haren berri Frederik erregeak? Eta hola ez bazen, eta beranduago ohartzekotan, zer gertatuko zitzaidan niri? Bestalde, jasotako kolpeen eraginez mugitu ere ezin banuen, zer okerrago gerta ahal zitzaidan ezindu bat bihurtzea baino —barkatu—, elbarri bat.

Onartu beharra neukan mila bider gehiago hobesten nuela heriotza. Baina auskalo, agian oraindik zegoen esperantzaren bat, Loew errabinoa jakintsua zen eta behin amaiera ikaragarri batetik salbatu ninduen.

Ilunpe barrurantz desbideratu nuen soa, eta aretoa betetzen zuten ispilu ugarien artean, albo batean esekita zegoen bat erreparatu nuen, halako inklinazioz nengoen eszenatokiaren zati bat islatzen zuen. Ikusi nuen erabat biluzik nengoela ohearen sabaitik esekita zeuden gaza eta errezelen azpian, izaren gainean sakrifizio bateko biktima bezala ipinita, eta erregina nire alboan belaunikatzen zela, satinezko ator arin batek apenas estalita, sorbaldak eta bular superlatiboaren zati handi bat agerian utziz. Bitartean, Berorren Maiestateak bere diskurtsoarekin jarraitzen zuen: —Mutiko gozo hori, nire hamabi dontzeilak arduratu dira zutaz egun osoan... Eurek garbitu dituzte zure zauriak, xaboez garbitu eta olio z gantzutu zaituzte, txaplata hotzak ezarri dituzte zure bekain sutuan eta iturri kantariko urarekin busti dituzte zure ezpainak, hasperen artean erregutzen zenuenean zure egarria asetzea. Eta eurek, bai, nire dontzeilek... Eurek jakinarazi didate egia izugarria. Oi, izugarria! Ezin zara mugitu, soldadu. Zure hankek ez dute erantzuten, zure besoek ez dute ezer nabarmentzen, zure soin hain indartsua inerre dago... Nola onar daiteke hainbeste ezbehar? Nola konpon daiteke?

Erreginaren ahotsak une batzuetan tonu zorabiatzailea uzten zuen oster dramatikoa izateko, eta, hori gertatu ahala, ni kezkatuago sentitzen nintzen. Hark hitz egiten zuen bitartean, ispilutik ikusten nuen nola bere eskuak sorbalda lastandua eta lepauztaia igurzten zuen, gero bularra, eta jarraian oso astiro sabelerantz jaisten zen. Uste dut izerditan nengoela. Erreginaren ahotsa ilundu egin zen bat-batean, honako hau esan zuenean:

—Baina agian oraindik geratzen da zure gorputzeko zati bat, puska ttiki bat, erantzuteko moduan dagoena...

Eskuarekin izterretara jaitsi eta pixka bat zabaldu zizkidan, barrabilak erosoago haztatzeko. Ezin nuen ikusten nuena sinistu, eta ez nekien nire burua zoriondu erreginaren lizunkeriaren objektu izateko aukeratua izanagatik ala hilda sentitu egoera hark ekar zitzakeen ondorioengatik. Eta, hala ere, zergatik ni, mugitu ere ezin nuelarik...? Baina handik segundo gutxira galdera hark bere esanahia galtzen zuen: nire aztoramendua erabatekoa izan zen, ispiluen bitartez behatu ahal izan nuenean nire zakila puztu egiten zela proportzio aski oneko erekzioa lortuz. Potroak lastantzeari utzi gabe, Joana erreginak nire sexuari samurtasun gozagarri begiratu eta marmartu zuen:

—Ohartzen al zara, mutiko gozo hori, dena ez dagoela galduta? —eta jarraian, aurpegira begiratzuz, erantsi zuen: —jarraitu zure zorteari; aurkituko duzu erremedioa.

Dotoreziaz betetako keinu batez bere ator arina erantzi zuen, bular ia desproporzionatuak erabat agerian utziz, tentatzaile izan arren oraindik ia tentetasun ukigabeak, kontsistentzia irmoak, eta titiburuak, haiek ere handiak, zorabio lubrikoa erakusten zuten begi pare arrosa kolorekoak niri begira. Nire soa, txandaka, bi puxika bikain haietatik ispiluko kristalera mugitzen zen, nire zakilaz jabetu zen tentetze amorratua azaltzeko ezgai, metatutako odolaren urdinarekin tindatzen baitzen haren glandea. Erregina nire alboan etzan zen ohe barruan, nire aldera begira, eta nire sabela hatz desarduratsuz emeki ukitzeari utzi gabe, nire ezpainak bereekin birpasa eta bere mihia nire ahoan sartu eta musu luze eta hezea, neguko egunsentia bezalakoa, oparitu zidan. Jada ez zuen mihia ezkutatu: bere bular ikaragarri handiek alde z aurretik markatzen zutena birpasatu zuen gorputzarekin goitik behera, sorbaldatik orkatiletaraino, nirea igurzten zuelarik. Zurtuta, begirada ispiluraino luzatuz, bizkarra eta ipurdia baskulatzen zitzaizkion kadentzia lizuna behatu ahal izan nuen, eta begiak jaitsi besterik ez neukan erregina bat mihi aditu eta haragitsua nire okotz azpitik eta lepotik mugitzen kontenplatzeko; soilik begirada apaldu eta hantxe neukan urdanga dinastiko bat, puta inperial bat nire sorbalda zoro-zoro hozkatzen saiatuz, titi-buruak ezpainekin hartu eta bularra xurgatzen, bihotza atera eta irentsi nahiko balit bezala; bai, hantxe zegoen, emagaldu koroatua nire sabeleko azala eta nire egarriaren zaporea gorputz eta arima dastatzera emana; benetako erregina bordiona nire izterrak atseginez miazkatu eta hanketan behera oinetako behatzetaraino emana, zeinak, behatzak —eskuetako hatzekin egin zuen bezala—

, banan-banan irentsi zituen, oso emeki, auskalo zein toki urruneko, zein lurralde ezezaguneko gozoki aukeratuak izango balira bezala.

Baina, oraindik puska gustagarriena geratzen zen, Berorren Maiestate Urdearen zetroat distiraraziko zuten koroako bitxiak, puta irredentoen hierarkia barruan tokirik gorenean berretsiz. Bere mihi-puntak arazorik gabe ireki zuen bidea nire ipurtzuloaren toles samurren barrena, nire barrabilak Joanaren sudur xeblebrearen gainean zamalkatzen ziren bitartean, betaurreko-parea balira bezala. Hala ere, eurei ere berandu gabe iritsi zitzairen txanda: erregina zulo ilunenen mikaztasunaz ase zenean, nire barrabilekin bere ahoa bete eta xurgatu, murtzikatu egin zituen, gosetu batek bezala. Aski izan zuenean, nire hankartetik atera eta bere beso zurrunean izara gainean bermatu zen, doituta, eta iheskor begiratu zidan adimen urriko andre bat balitz bezala: bohemiarren erregina legitimoa lizunkeriaren bitartez elbarri bihurtu zen, emakume ergel-soarekin bere gar guztia jaurtitzen zidan ahoa irekita, nire sexu gainean etzan baino lehen eta zehatz-mehatz irentsi baino lehen. Jada axolarik ez hil behar banuen; soilik tartetxo bat gehiago egon nahi nuen han bere mihiaren ardatzaren bueltan lorrinduz, ezpainen goseak menderatzen utziz, zeinek behin eta berriro desesperaturik birpasatzen zuten nire buztana oinarritik muturreraino. Askotan egin zuen hura; osterat begiratu zuen bere burua nire hankartean zeukala, begirada biziotsuarekin begiratu eta, azkenean, odola zainen barruan izoztu zidaten barre-algara besterenduak jaurti zizkidan, eta orduan poztu egin nintzen. Ez nekien zer egingo zuen jarraian, baina ez nuen asko itxaron behar izan jakiteko.

Pixka bat gehiago altxatu zen ohe gainean, belaun eta ukalondo gainean bermatu eta maiestatikoki makurtu zen bere bularrak, nola esfera zerutiar, nire iztondoaren parean kokatu arte. Jarraian hartu egin zituen, esku betez eutsiz, eta estutu egin zituen, haiekin nire kirtena estali arte, zeinetik soilik muturra agertzen zen, inoiz baino azkarrago. Sakonean, ispiluak erreginarekin bizkarra erakusten zidan, arreske; hurbilago, juxtu nire sabela amaitzen zen tokian, bere egundoko ugatzen bistaz gozatzen nuen, erritmo zehatzaren intuizio jakintsuaren arabera, jada tumefakzio-puntuak zegoen nire zakila kontsolatuz: emeki-emeki hasi zen, gero azkarrago, eta, azkenean, titiburu zabalek jauzi egiten zioten bizitza propioa balute bezala, nire sexua haragizko gehiegitasun haren laztanek abailduta, eta erregina barrezka, Joanak gero eta barre gehiago egiten zuen, unean-unean gero eta basatiago, eta nik ulertzen lortzen ez nituen hitzak esaten zituen, baina berak sor el lor errepikatzen zituenak, hitz haiek, sortilegio edo formula erritual moduko hura, errepikatuz, atsegin handiago eta sakonagoa eskuratuko balu bezala. Bere bularraldea nire buztanaren gainean igurzten zuen aldiro indar handiagok, eta gero eta altuago errexitatu eta salmodiatzen zituen hitz ulertezinak, atseginezko automata alditxartuaren itxura hartu arte, bere zoro pornokratikoaren jarrera definieinezko autoritatez jantzitako presentzia bihurtzeraino. Bitartean, nik erabat utzita neuzkan nire beldurrak eta, konturatu gabe, ukitua errekupeatu nuen: ondo asko sentitzen nuen Berorren Maiestatearen atributuek oparitzen zidaten masiatzearen ezintasun bortitza, poliki-poliki paroxismora iristen ari zen tximista motel baten zigorkada elektrikoa bezala sentitzen nuen plazerra, luxuz eta xehetasun zehatzez sentitzen nuen nola gauzatzen zen esperma-isuria nire sabelpearen barruko toki ezkuturen batean, justu nire barrabilen pean, eta igotzen sentitzen nuen, hasieran herabe, gero indartsuago eta geroago jada geraezin nire zakilaren barruan, eta pixka bat gehiago eusten saiatzen nintzen, oraindik beste pixka bat, jada nahi izan ez nuen arte, gehiago ezin nuen arte, eta semen-parrastada ziztuka atera zen nire baba kitzikatutik erreginarekin bular desdoituetaraino, Berorren Txit Urdanga Joana Anbereskoaren aurpegi irribarretsu, atsedenez histerikoraino.

Geldirik, izaren gainean luzatu nintzen mando akitu bat bezala; segundo batzuen buruan, ordea, erregina osterat nire alboan ipini eta aurpegi jada lasaiaekin begiratzen zidan, nahiz eta nire esnearekin, jada lehortzen hasia bera, erabat makilatuta. Zorrozkari agindu zidan.

—Altxa eta abiatu, soldadu.

Eta intentzioz kargaturiko beste irribarre bat jaurti zidan. Orduan bakarrik jabetu nintzen nire gorputzari ukitua ez ezik mugikortasuna ere itzuli zitzaioala. Eskuineko eskua jaso eta konprobatu nuen, ez sustorik gabe, trebetasunez eta indarrez osterat mugitu ahal nuela, osterat eskumuturraren potentzia eta besaurrearen irmotasuna errekupeatu nuela, hatz potoloak

ostera trebe eta mugigarriak zirela. Alaitasun antsitsuak bete ninduen: jauzi batez altxa eta burua, bularra, bizkarra, ipurmasailak, hankak haztatu nituen amorruz. Ezerk ez zidan minik ematen, eta zaurien arrastorik ez zegoen. Zatiz zati, nire gorputza berpiztu egin zen eta ni pletoriko sentitzen nintzen, inoiz baino indartsuago. Nire sexuak ere, agian nire beste edozein alde baino gogo biziagoz, berpizkundearen efektuak nabaritzen zituen: une batzuk lehenagoko isurketa gorabehera, tenkaturik ageri zen, harri bihurturik, sukutsu, beste oldarraldi baterako puntu zehatzean. Egiatan, Joana Anbereskoaren sorginkeriak bere ospea intsinnatzen ausartzen zen baino askoz areago zihoazen, eta onartu beharra dago forma aski atseginez praktikatzen zuela sorginkeria.

So egin nion: hantxe neukan oraindik, ez zen mirariz edo xarmaduraz desagertu. Desarduraz etzanda, burua eta sorbalda setazko kuxinetan laxo, bere azken bizitzaldiko edertasunean agertzen zitzaidan andre-ale hura: hankak luzeak eta beteak; sabela jada leuna ez baina oraindik desiragarria; besoak hain zuriak; bularrak astronomikoak, titiburuak faroak bezala alde batera edo bestera begira, nagi; irribarrea haragikoia, begiak gonbidatzaile. Berarengana imantazioz bezala erakarrita, ostera ohera itzuli nintzen eta ezer esan gabe, inongo ataririk gabe, oso azal guriko izterrak lastandu nizkion, azpitik oratu eta, presio handirik egin behar izan gabe, hankak nire sorbalda gainean ipini nizkion. Zakila ardatz bat bezala tente sustrairaino sartu zen, emeki-emeki eta garbi, bere alu gozoan; intziri luze batekin eta soinaren zirraraz agurtu zuen. Gero bere bi eskuekin estutu zituen ostera bere bularrak eztiki, goiko ezpaina mihiaz pasatzen zuelarik. Ni harritu besterik ezin nintzen egin, ohartzean erregina batek noraino gerta zitekeen urdanga bat, eta bat-batean gertatu egin zen, konbatean arerioaren aurka oldartzera bultzatzen ninduen antsia hura, basakeriazko eroaldi hura, birsortzen sentitu nuen nire bularraren baitan, orain ordea, bulkada desiraren konkoretatik bideratzen zelarik: gerria altxatu nuen harik eta soilik nire glandearen muturrak mantentzen zuen kontaktua begiarekin Joanaren sexuko ezpainen artean, aski denbora egon nintzen horrela eta azkenean ahal nuen sakoneraino sartu nintzen haren baitan. Gero behin eta berriro, behin eta berriro, astiroago, gero eta azkarrago, errepikatu nuen, nire existentziaren esanahi guztia ipurdia altxatu eta gero hondoratzean laburbilduko balitz bezala, pistoi antropomorfoa banintz bezala, haragizko enbolo bat. Astinaldi bakoitzeko bere bizkar gainean jauzi egiten zuen plazerrez, laidoak jaurtitzeko zizkidan nik ezagutzen ez nuen hizkuntza batean; batzuetan sarketa bereziki egokia zenean, nahita nahiez bere errailetatik sortzen zitzaion ahots-tonuan egiten zuen marru. Puska bat bazen bere kabuz ari zela, eta besoak gurutzean zabaltu zituela, zeinen erdian bular erraldoiak dardarrez mugitzen ziren: une jakin batean, zer egiten ez zekiela, esku bat jaso, soka batetik tira egin eta ohe-sabaiko damaskoak utzi zituen agerian. Orduan jabetu ahal izan nintzen aretoa betetzen zuten ispilu kontaezinen kopuruaz: teknika ezagun guztien arabera neurri eta era guztietakoak; beira kristal bohemiarrekoak, “ur-leiarrak”, akatsen bat zeukatenak edo metalezko plantxetan eraikiak; urrez, zilarrez, harribitxiz edo zur noblez markoztatuak; hormetatik edo sabaitik esekiak posizio guztietan eta zitezkeen angelu guztietan; elkar ukituz, batzuetan ordenarik eta erarik gabe metatuta. Begiak ireki eta larrua basatiki jotzen zuten hamaika figurak gu biderkatuta ikustea zen: hartaraino non zail egiten zitzaidan benetan okupatzen genuen posizioa kokatzea gure isla batzuekin nahastu gabe, zeinak iluntasunean modu ulertezinean galtzen aमितzen ziren. Imajinatzen dut bikoizketa-ugaritasun hura izan zela kanibalismo-saio haren erdian bertigo-atake labur bat sortu zidana egun batzuk lehenago Tronuko Aretoan esperimintatutako animalia bitxia errepikatu zen: bat-batean, nire gerriaren mugimenduen sekuentziaren eta erreginarengan sortzen zuen efektuaren artean denboraren eten bat gertatu izan balitz bezala zen, bat zein bestea denboratik at eta haren ahotsa distorsionaturik eta oso urrunetik etorriko balitzait bezala, itsasotik barrena hondartza baten albora garraitutako oihartzun mamuzko bat bezala. Horrek berotzea beste ondoriorik ez zeukan nigan: Joana gero eta urrunago haztatu, indar handiago lortzen zuten nire bultzadek. Segundo gutxi batzuen buruan, normaltasuna berrezartzen zen: erregina nire gorputzaren azpian etzanda zegoen ostera, hankak nire sorbaldan, zirudienek bere ahotik ezerk kenduko ez zion barre izugarri batekin larrua jotzen utziz.

Gerriaren erritmoa gutxitu gabe, eta bizkarrezurra, giltzurrunak hunkitzeraino, zeharkatzen zidaten bulkada elektrikoez gozatzen nituelarik, burua jaitsi nuen erreginarene bularrak mihiarekin birpasatzeko; haien dimentsioak kontuan harturik, luze entretenu nintzen. Ostera burua gelako ispilu-galeria kontaezinerantz altxatu nuenean ikusi nuen: gurekin batera beste gizon bat zegoen, eta ez zen edozein gizon, munstro bat baizik. Arretaz behatzen gintuen, begiak tinko, begi-niniak gorri, ilintiak bezain gori; aurpegiko azala puztuta, gris eta pikorduna; ahoa hondoratua, hortzgabeta eta ezpainik gabe; besoak indarge eta hankak hilotz berpizturiko batenak bezala flexionatuta; biluzik, sexua ere gris eta zaintsu, belaunetaraino eroria. Ispilu guztietan islatzen zenez, ezinezkoa zen jakitea gelako zein puntutan zegoen egitan; bestalde, aurkitu eta segundo gutxi batzuetara, bere irudi beldurgarriak ispiluz ispilu disolbatzen zela zirudien, zingira bateko ur mortuetan harri baten erorketak egiten dituen uhin kontzentrikoen gisara; azkenean, mugaezinezko puntu bakar batean kontzentratu zen iluntasun barruan, txikitu eta desagertu egin zen, agertu zen modu berdin zakarrean. Odola zainen barruan nola izozten zitzaidan nabari nuen, eta bat-batean kopula bertan behera utzi beste erremediorik ez nuen izan. Sexua haren barrutik erretiratu gabe ahoa ireki eta terrorrez egin nuen oihu. Jarraian jausten utzi eta burua bere bularren laxotasun definitiboaren barruan hondoratu nuen, beste ezer ez ikustearren. Gero, belztasuna etorri zen.

Kezko belo bat.

Kezko beste belo bat.

—Horrela bada, Pappa, orain Joana erreginarene maitalea al zara?

Galderak baino gehiago Loew errabinoak esaten zuen itxurazko naturaltasunak nahasten ninduen, eta are gehiago, ostera berarekin ikasketa-ziegan, pupitre aurrean eta tintontzia, luma eta bolizko mundu-globo txiki baten gainean egon beharrak, berak Ovidioren bertsoak irakurtzeko erabiltzen genuen atrila prestatzen zuen bitartean. Bestalde, galdera hark gure aurreko topaketan nagusi izan ohi zen tonu inbertsonal eta hotzaren tonua, errabinoak inposatua, mozten zuen bat-batean. Nik erantzun bat bilatzen nuen eta ez nuen aurkitzen asmatzea; gure gelaxka estua alaitasun mugaezinez betetzen zuen goiz-argia sartzen zen leihotik; nire maisua, liburuki lodi deskoadernatu bat zerabilelarik atril batean ipintzeko, bere abituaren hegalekin estropezu ez egitearren jagoten zuen bitartean, gogaitu egingo zen nire isiltasunaren aurrean, eta, betertzez begiratuz, errepikatu zuen:

—Eta beraz?

Zerbait erantzun beste erremediorik ez zegoen. Lasterka, buruz ikasi izan banu bezala, esan nuen: —Amesgaizto bat izan nuen. Gure azken entrenamenduan, Antoni dukeak abaildu arte kolpatu ninduen. Gero oparo hornitutako ohe baten barruan etzanda ireki nituen begiak, toki guztietan ispiluz betetako ganbera baten barruan, eta han Berorren Maiestatea zegoen nitaz arduratzen. Maitasuna egiten zidan eta horrela sendatu zidan paralisia. Etengabe maitasuna eginez, lizunkeria handiaren menpe, errekupe ratzen nintzela ohartu nintzen. Azkenean erabateko iluntasuna ezarri zen.

Loew errabinoak begirada tinko eta galdetzailea zuzentzen zidan. Haren erreakzioaren beldur nintzen eta totelka erantsi nuen:

—Erregutzen dizut aitortzan kontatu izan banizu bezala uler dezazula. Badakit ez naizela inor azaldu dizkizudan gauzak amesteko, baina gizon batek ez dauka bere ametsen gaineko ahalmena eta erabakia, eta inolaz ez nuke nahi zuk pentsatzea...

Baitaraturik, ahots sakonez, moztu zidan Loewek:

—Horrela bada, Pappa, orain Joana erreginarene maitalea al zara?

Aulki bat hartu eta nire pupitrearen alboan jesarri zen, nigandik oso gertu. Konplizitate-airea hartu eta, ahopeka ahoskatuz, hasi zen:

—Soilik puntu bateraino baiets dezakezu amesgaiztoa izan duzula, gertatu zaizuna oso erreala baita. Egitate bat da. Ikusi: Frederikek kastoki mespretxatzen ditu haragiak eta gorputzaren

beharrizanez gizakiengan ezartzen duten tiranotasuna. Ondorioz, bada urte-mordoa emaztearekin haragizko harremanik ez daukala, eta beste ezein andrearekin ere ez. Eta Joana zapuztera iritsi ez bada, bere erresumak alboan erregina bat izateak bohemiarrentzat zein muturreraino beharrezkoa den aski kontzientzia gordetzen duelako da. Izatez, horregatik Frederikek hiru emazte izan ditu jarraian: denbora asko da —Dieta Parlamentarioaren eraikuntzaren aurretik ere bai— Bohemiako errege izateko anbizioa daukala, eta horretarako prestatzen ari da, Rodolfo II.aren Maiestate-Karta osterara emateko. Lehen erregina, Patrizia, Maria printzesaren ama izan zen, eta sukar batzuen eraginez hil zen; bigarrenarengandik, Luzia Habsburgokoagandik —hirugarren graduak ahaidea bera— katolizismora konbertitu zenean dibortziatu zen.

Joanari dagokionez, Anbereseko leinuak eta Palatinatuko adar batek eragindako maniobra politiko baten ondorioa izan zen Frederiken ezkontza, eta Frederik maniobra horren onuradun baino gehiago biktima sentitu izan da beti. Berak ez zuen beste emazterik nahi; Plotinoren eta pitagorismoaren pentsamenduarekin harremanetan jarri berria zen eta bide aszetikoan ibiltzea erabaki zuen gobernu-zereginetarako prestakuntza modura. Bere aldetik, eta aski ongi dakizunez, Joana izaera lizunekoa da; gatazka, beraz —aurreikusinezko ondoriokoa, Matiasenganako oposizioaren ahulezia eta disoluzioraino iritsi zitekeena—, prest zegoen. Arazo honek zerikusi zuzena zeukan Pragako hiritarrekin, eta bereziki juduoi zegokigun, urte askotan Maiestate-Kartaren itzulera besterik ez baitugu nahi izan eta, beraz, kultu-askatasunarena, zeina Matias laidogarriak kendu digun eta haren ondorengo Ferranek kentzen jarraituko baitu. Horrexegatik Frederikek niri aholkua eskatu zuenean, proposamena onartzen saiatu nintzen, nahiz eta, lehen une batean soilik ezkon-aholkulari bezala deitua izan nintzen.

Puntu hartara iritsita, Loew errabinoak etenaldi luzea egin zuen, jarraitzeko gogorik ote zeukan ziur ez balego bezala. Nik jakinguraz begiratzen nion; soa altxatu, nirearekin topo egin eta bazirudien hark erabakia errekupearazi ziola. Jarraitu zuen:

—Frederik erregearekin izandako lehen audientzia lehen eskutik arazoaren berri izanda, soluzio posible batean pentsatzen hasi nintzen. Zeuden aukerak neurtu ondoren, Frederiken eta Joanaren ezkontza barruan Etorkizuneko Erreginaren Maitalearen figura eraiki nuen. Iraunkortasun aleatorioko kargu bat izango zen, baina lehen koitotik kontatzen hasita ez urte natural bat baino gehiagokoa: Joanak dena aukeratzeko ahalmena izango zuen, eta bere aukerak beti Frederiken oniritziaren pean egongo ziren, edozein moduz erabateko konfiantzazko gizona izan zedin; bere funtzioa Joanaren grina baginalak apaltzea beste funtziorik ez zuen izango, Frederik gorrotatzen zuen ezkontza-betebeharretik aske eta estudioaren eta politikaren praktikara arazorik gabe dedikatzeko libre utziz. Ideia, nik esatea ez da txukuna, bikain gertatu zen: bere hamabi dontzeilen ardura ez ezik Joanak desiratu dituen gizonen faborea eduki du beti (egia da baita ere bere egundoko presentziak, paregabeko titietatik hasita, uneoro erraztu duela posturako hautesleak izatea), eta Frederikek nahi izan dituen beste ordu eman dizkio konspirazioari eta baita zientziari, arteari eta magiari. Exegeta Ilulltarak, alkimista ospetsuak, krestomatian, erretorikan eta hermeneutikan adituak, ospe unibertsaleko filosofo eta artistak, adibidez Parazelso medikua edo Giordano Bruno pentsatzaile ospetsua, eta paregabeko Giuseppe Arcimboldo italiarra banan-banan pasa dira Palatinatutik, egonaldi luzeak eta oparoak erdietsiz Frederiken babespean. Haietakoren bat Etorkizuneko Erreginaren Maitale izan zen, beti Joanaren gosearen eta bere senarraren oniritziaren batuketaren arabera, eta bi aldean artean ezarritako termino eta egindako itunen barruan, ulermen politiko onaren zeinupean, hainbesteraino non, ordain-sari modura, ni neu aholkulari auliko izatera iritsi nintzen. Beti horrela, Antoni dukea agertu arte, noski. Eta orain, dena borobiltzeko, zure ustekabeko etorrera arte, zeina oraindik ez dakit ongi nola balioetsi.

Ostera isildu eta begirada leihorantz galdu zuen, non, udako argi-andanaren pean alai, txonta bat pausatu zen kantari. Loew errabinoak bizarra ukitzen zuen esku batekin eta sor eta gor zirudien. Etenaldi haiek aztoratzen ninduten. Galdetu nuen:

—Zer gertatzen da Antoni dukearekin? Zer gertatuko da nirekin?

Loew errabinoak burua mugitu zuen inkontzientzia-une batetik itzuliko balitz bezala.

—Ongi, Antoni dukea Lobkowicz-Lorenatarren adar nagusi batetik dator, Palatinatu Garaiko erregeordetzagatik Frederiken leinuaren arerio betidanik (eta bere garaian garaituak, jakingo duzunez, Kultnà-Horako liskarretan). Halako moduan non, berarentzat, ohore-kontu bat zen Frederiken konfiantza lortzea Etorkizuneko Erreginaren Maitale izatea erdiesteraino. Lortu zuen; eta hortxe hasi ziren komeriak. Palatinatuko tropen buruzagi nagusia eta aldi berean Etorkizuneko Erreginaren Maitalea ez ezik, Antonik kargu horretan urte natural baten espaziotik askoz harago iraun du —bere aurreko guztiek ez bezala. Bi urte eta hiruhileko bat betetzear zegoen, zu agertu zarenean.

Kosta egiten zitzaidan entzuten ari nintzena neureganatzea. Loew errabinoa irribarre betez jabetu zen, baina jarraitu egin zuen:

—Gaur egun, Frederik esperantza bakarra da herri honetan, bai juduontzat bai eta protestanteentzat, eta nahikoa eta gehiegi frogatu du. Izaera aldakorra eta malenkoniatsua dauka, eta maiz, bakartzeko, galeria haren barruan ezkutatzen da (berak, ez dakit ironiaz edo modestia faltsuaz, “Arte eta Miragarrien Ganbera” deitzen dio), non bere objektu ezohikoen sorta zabala gordetzen duen, zeina neuk ere modu batean edo bestean batzen lagundu baitiot. Bertan itxi eta egunak igaro ondoren agertzen da... Besteen konfiantzan etengabe zurkaiztu beharra dauka; nirean, Antoni dukearenean eta, batik bat, erreginarenean, zeinak, nahi beste paradoxikoki, bere sentsualitate gaindikaturia halako egonkortasun bat mantentzearen zerbitzura kanalizatzen jakin duen. Orain, ordea, berak zu eszenan sartzea erabaki du —ulertu beharra dago alde zuzenetik erregeari kontsultatu gabe—, eta horrek dena hankaz gora jartzen du. Agian andre biziotsuaren kapritxoa besterik ez da, baina oso aurrerago doazen ondorioak dauzka horrek. Konturatzen denean, eta luze gabe izango da, Frederiken ziurgabetasunik gabe sentituko da, eta hori arriskutsua da: Frederiken segurtasunik ezak burugabetzetan amaitzen dira. Hala ere ez duzu beldurrik izan behar; Etorkizuneko Erreginaren Maitale-izaerak Joanaren babesa bermatzen dizu. Horrek blokeatu egingo du, ez da ausartuko agerian hari erronka egiten, zure aurka ezer aginduz. Antoni dukeari dagokionez, jabetu zara haren areriotasun garbia daukazula. Etorkizuneko Erreginaren Maitale iraunkorra izateagatik zeuzkan abantailak zalantzan jartzen du bere delfinatua; Tronuko Aretoan zure audientziaz geroztik berak susmatzen zuena bestalde. Eman zizun jipoia bere susmoen baiespenagatik erreakzio primarioa besterik ez da, baina hemendik aurrera nola edo hala zure aurka mendeku landuagoa harilkatzen saiatuko da.

Dukea nire galera mamitzen ari zen perspektibak aztoratu egin ninduen. Orain erreginaren faborea edukiagatik, noiz hasiko zen nirekin nekatzen? Gutxien espero nuenean defentsarik gabe gera ninteke Frederiken labilitatearen eta Antoniren mendekuaren esku. Bestalde, ematen zuen Loew errabinoaren sostenguearekin kontu nezakeela, nahiz eta modu esplizituan ez zidan aditzera eman. Galdetzen ausartu nintzen:

—Eta zu Errabino Gorena? Zein da zure iritzia?

—Antoniren atzerapausez poztu besterik ezin dut egin —erantzun zuen bat-batean adatsak hazkatuz: zorritz beteta zeuzkala pentsatu nuen—. Bere anbizioa gehiegizkoa da: bere eskrupuluak, eskasak; eta juduenganako antipatia, aitortua. Beste erremediarik ez daukalako errespetatzen nau, jakina, eta pentsatzen duelako, nire konfiantza irabaztea lortuko balu, Maria printzesarenganako sarbide ona eman ahal niokeela, haren tutorea naizelarik. Sakonean, hau besterik ez da Antoniren benetako guraria: Mariarekin ezkontzea. Horrela, itun baten bidez kitatuko lituzke Lobkowicz-Lorenakoen eta Palatinatuko arteko auziak, eta senar modura printzipe-titulua erdietsita, Frederiken tronuaren oinordeko bilakatuko litzateke, behin hark Ferran garaituta (Antoni bera izanik tropen buruzagia) eta Bohemiako errege berretsia izanda. Gainera, Antoniren printzesarekiko erakarpenean komenentzia estrategikoaz haragoko motiboetan oinarritzen da, eta ezin zaio aurpegiratu, zinez gaztetxo maitagarria delako. Ez ala, Puppa?

Mariari buruz hain modu zuzenean interpelaturia izateak aurpegian irakurriko zitzaidan aztoramenduz bete ninduen, izan ere Loew errabinoak, erantzunik itxaron gabe, honela jarraitu baitzuen:

—Badakust printzesaren izena aipatze hutsak larritu egiten zaituela. Ongi, ez dut uste egoera berriak haren loaldia gauetan zaintzea kenduko dizunik. Frederikek Joanaren lotsagabekeriaren

aurrean ardurarik ez izatearen plantak egingo ditu eta ez du baimenduko Antonik zu goardiatik kentzea, zalantzarik gabe egitea proposatuko duenez. Bestalde, imajinatzen dut oso argi edukiko dituzula erregeak Mariarengana hurbiltzeko edozein saioaren aurka emandako oharrak...

Buruarekin baietsi nuen. Errabinoak ahotsa are gehiago apaldu eta irribarre bihurri bat marraztu zuen:

—Arazo honi buruz, soilik iruzkinduko dizut (eta ez dago ohartarazi beharrik) Antoniren eskutik, Etorkizuneko Erreginarene Maitalea den aldetik, erauzi dituzun pribilegioen artean printzesaren inguru murriz-murrizera iristeko aukera dagoela, trebezia mugitzen dakizun bitartean eta Joanaren jeloskortasuna esnatzen ez baduzu. Berak babesten zaituen bitartean, behar bada Mariarengana hurbiltzeko modua aurki dezakezu batzuetan —beti ezkutuan, jakina—, Frederikek harrapatuz gero halako inpunitate baten bermearekin, honaino iristen baita hark erreginarekiko daukan menpekotasuna. Aldiz, berak faborea erretiratu eta saioan harrapatua bazara, hilarazia izango zara. Eta jakin badakit ikusi dudalako nola Antoni, hainbat aldiz eta egoeraz baliatuz, Mariaren ateko atalasea gainditzeko saiatzen zen (arrakastarik gabe, dena esateko, printzesak gorroto baitu), zeina, atea, muturren aurrean itxi baitzaio Joanaren ohandzean sartu zarenez geroztik. Zeren Etorkizuneko Erreginarene Maitale izateari utzi dionetik ate hori gainditzeko debekua berarentzat indarrean baitago edozein kasutan. Hortik ere bai, beraz, Antonik zu gorrotatzea. Aldiz, zurekin erabat zintzo izan behar baldin badut, iruditzen zait ez zarela axolagabe printzesarentzat...

Zurtuta entzuten nuen, sentituz bihotza bular barruan jauzika hasten zitzaidala, hitz haiek zeruko musika bezala baitziren. Beraz, erreginarekin oheratzeak Frederiken errespetua irabazarazten zidan eta, are garrantzitsuago, modu ezkutuan bada ere, Mariarekin harremanetan sartzea, zeina, gainera, nirekiko interesa zeukan..? Gorte haren arrazonamenduak eta trikimailuak benetan ulertezinak egiten zitzaizkidan, baina bat-batean ezтики onurazkoak ziren niretzat. Adeitasunez eskertu nion errabinoari bere gizabidea informazio hain garrantzitsu haiek denak niri aitortzeagatik.

—Ez eskertu; erraz uler dezakezunez, nik ere aliatuak irabazi behar ditut, eta inoiz ondo etorri ahal zait Etorkizuneko Erreginarene Maitale den heroi eta printzesak estimatutako batekin kontatzea, ez duzu uste? Laster gerran sartuko gara, eta kanpoan zein barruan irabazi behar dugu —ostera egin zuen irribarre maliziaz—; bere jakinduriak kontsidero espiritual gorenei zein arazo lurtarren xehetasunei zegozkien—. Jatorra zatzaizkit, Puppa: nahi gabe Frederiken nahasmendua eta Antoniren sumina erakarri dituzu. Lehen gauzaz arduratuko naiz ni; bigarrenari dagokionez, ospatu egiten dut eta zure afera izango da argi ibili eta onura ateratzea. Orain, benetan argi ibili! Azaldu dizudan guztia gaizki erabiltzen baduzu, niri ez zait deus gertatuko, baina zure begi berdeek odolezko malkoak isuriko dituzte, zure burua esekiko den hesolatik Gazteluko jaitiera kontenplazten duten bitartean, Frederikek ohartarazi zintuen bezala.

Eta eskubiko eskuaren ifrentzia eskaini zidan, zeinaren hatz-nagian eraztun batek distiratsen zuen, errubi handi bat inkrustatuta. Belaunikatu eta muin eman nion: banekien nori obeditu behar nion.

—Oso ongi, Puppa. Eta orain errepasatu dezagun pixka bat gramatika...

—Oraindik badago azaldu ez dizudan gauza bat, Errabino Gorena —moztu nion.

Latz begiratu zidan eta nahigabe-keinu bat egin zuen ezpain mardoen ertzarekin. Oihu egin zidan: —Esan.

—Erreginarekin iragan nuen gauari buruzkoa da, Errabino Gorena. Halako batean, gela barrura begiratu eta larrua jotzen genuen unean behatzen gintuen norbaiten presentzia ohartu nintzen. Ez, ez dakit nola deskribatu... Gizon baten forma zeukan, baina neurriak deformeak ziren, eta bere gorputz biluzia, pustula-moduko batzuekin estalita, nazka ematen zuen.... Laztura jasanezina eragin zidan, jatorrizko beldurra, inoiz espermentatu ez nuena...

—Eta zer egin zuen gizon hark? Zuekin etzan al zen? Zerbait eman al zizun?

—Ez... Une batzuen buruan desagertu egin zen, etorri zen bezain modu espektralean.

—Erreginak ere ikusi al zuen?

Ezet esan nuen buruarekin.

—Ez zuen deus esan?

—Ez. Uste dut kordea galdu nuela izuarekin.

—Bikain. —Errabinoak bere isiltasun amaiezinetako bat egin zuen. Moztera ausartu nintzen.

—Nor zen gizon hura, Errabino Gorena? Zer adierazi nahi du infernuko ikuskizun hark?

Baina berak betertzez begiratu eta beste tarte batean luzatu zuen isiltasuna. Azkenean sudur kakodunarekin apuntatu eta bat-batean jaurti zidan:

—Esan, Puppa, elkarrekin izan ditugun estudio-saioen ondoren, esango zenuke, lehen printzipioa eta lehen kausa ez den orok printzipio eta kausa daukala?

Seguru eta azkar erantzun nuen:

—Zalantzarik gabe, eta batere eztabaidarik gabe.

—Eta beraz uste duzu —jarraitu zuen ahots sakonez— kausa kausatuak eta printzipiatuak ezagutzen dituenak kausaren eta printzipioaren ezagupena ere badaukala?

Horrek nahastu egin ninduen. Pixka bat hausnartu nuen zalantzati erantzun baino lehen:

—Esaten duzun horrek ez du erraz hurbileko kausa eta hurbileko printzipioa ezagutuko; zailtasun handiagoz, beraz, ezagutuko du lehengo kausa eta printzipioa, gutxienez haren arrasto bat.

—Zuhurra zara, Puppa, baina ez aski —egin zuen irribarre eta osteria galdetu zuen: —Zeren orduan nola ulertzen da lehen eta hurbileko kausa eta printzipioa dauzkaten gauzak benetan ezagunak direla, kausa efizientearen arrazoiaren arabera (zeina gauzen ezagutzan parte hartzen dutenetako bat den) kausa eta printzipioa ezkutuan badaude?

Kolpe hark erabat deslekutu ninduen. Buruz errepasatzen nuen nire maisuaren arrazoiketa eta akasgabea ikusten nuen; baina planteatutako arazoa konponezin begitantzen zitzaidan: nola egon gaitzke ziur modu berehalakoan haztatu eta ezagutzen duguna egiazkoa dela? Zer kausa eta printzipio argudia dezakegu noskitzat eta zer esanik gabe hartzen dugun *errealitatea* modu eztabaidezinean demostratuko duena? Isiltasun kezkarriaren murgildu nintzen. Gero amore eman nuen:

—Erregutzen dizut, Errabino Gorena, burlarik ez egitea nire ezjakintasun luzeagatik. Azken finean, ondo baino hobeto dakizu noraino iristen diren nire ezagutzak, dauzkadan apurrak zuri zor baitizkizut; aldez, ez naiz gai zure jakinduria noraino iristen den antzemateko. Edozein moduz, aitortu beharra daukat zure galdera, argitzetik urrun, are gehiago iluntzen duela nire pentsamendua.

—Urrun nigandik zuri burla egiteko asmoa, Puppa. Baina, argiari eta ilunpeari buruz esan duzun horren inguruan, ohar zaitez akatsa ez dela hainbeste argiena edo ilunpearena: eguzkiarentzat ederrago eta bikainago, orduan eta gorrotagarriago eta nazkagarriago gaueko hontzen begietarako -eta ahots apalagoan eta tonu txeratsuagoan erantsi zuen: —Beti ezin dugu baietsi gure begiek esaten digutena: itsusitzat daukaguna itsusiago izan daiteke gure hautemateak mugatuak edo akasduak diren neurrian, eta ikusi dugula segurutzat daukagunari buruz ezin ditugu haren ezaugarriak segurtasun berberarekin deskribatu, eta are gutxiago hauen existentzia ziurtatu.

Akatsa esentziala da bizitzan, Puppa; mundu hau, eta gu geu, Yahvéren akats baten ondorioa ere izan gaitzke...

Eta mututu egin zen. Argia hodei batzuen pasearekin urritu eta gure gela apala itzalean geratu zen. Leiho-hegian pausatuta jarraitzen zuen txontak, baina jada ez zuen kanturik egiten, eta burua mugitzen zuen patxadaz gu arakatu nahi balu bezala. Orduan izugarri iruditu zitzaidan premonizio batek asaldatu ninduen, eta hurrengo galderarekin formulatu nuen:

—Errabino Gorena, gauza al zara hau dena ametsa ez dela aitortzeko?

Begiratu eta ez zuen deus esan. Erantzun bakar modura, aulkitik altxatu, atriletik berak lehenago bertan ipinitako liburua hartu eta eman egin zidan. Liburukia, esan dudana bezala, egoera txarrean zegoen: tapak eta babesorriak galduak zeuzkan, eta orriak erdi deskolatuta zeuzkan. Lehen orria galdutako paradisu pagano moduko bat gogoratzen zuen grabatu batekin hornitutako portadatxo bat zen; arboladi oparoen azpian flautak jotzen zituzten satiroz eta artzainez eta zingira aratz eta iturri ederretan bainatzen ziren ninfez populatutako *locus amoenusean*. Eszenaren erdian marraztuta, eta denen buru, gizonetako baten buru eta zaldi baten gorputzeko izaki bat zegoen;

haren ipurgainean, arku bat eta saetaz betetako buiraka bat gurutzatuta zeraman haur hegadun eta biluzia zamalkatzen zen; haur haren ahotik autorearen (Colonna) eta obraren tituluaren (*Hypnerotomachia Poliphili*) berri ematen zuten idatzizko hitz batzuk ateratzen ziren. Orduan hitz egin zuen Loew errabinoak:

—Garrantzizko liburu bat da hau: irakurtzen saia zaitezten ematen dizut. Baliatu zure ganberako egonaldiak, non Antonik bertan egon zaitezten nahiko duen edonorengandik urrunduta egoteko; baliatu gaueko beila-ordu luzeak printzesaren ganberaurrean; baliatu ordu motelak erregina ohantzean zure ondoan lokartzen denean, ardoz eta maitasunez hordi. Baliatu edozein aukera irakurtzeko, oso baliagarriak izan ahal zaizkizun ikaskizunak aterako baitituzu. Gizon baten joan-etorriak kontatzen ditu, Polifilenak, zeinak ametsaren lurraldeak ibili eta zeharkatzen dituen bere maitale Poliarekin elkartzeko: hura lortutakoan, egoera epifanikoa erdietsi eta erredimitua da. Ez amorerik eman, ez nagia, ez etsipenaren aurrean, Pappa: irakur ezazu. Garrantzizko liburu bat da...

Eta, aholku hura errepikatuz, bizkarra eman, atea zeharkatu eta gela abandonatu zuen, nire eskuetan bere oparia utziz. Ostera noiz elkar ikusiko genuen adierazi gabe joan zen...

Man muss sich nie gestehen, dass man sich selbst liebt –das Geheimnis dieses Geständnisses ist das Lebensprinzip der alleinwahren und ewigen Liebe. Der erste Kuss in diesen Verständnisse ist das Prinzip der Philosophie –der Ursprung einer neuen Welt –der Anfang der absoluten Zeitrechnung– die Vellziehung eines unendlich wachsenden Selbstbundes. Wen gefiele nicht eine Philosophie, deren Keim ein erster Kuss ist?

Eta beraz, zer irizten diozue, adiskideak? Ez dakit zuek, baina nik, Papparen kontakizuna entzun ahala, gero eta urduriago sentitu naiz. Su ttikiak kanpotik berotzen gintuen eta ardoak barrutik, ekaitzaren bortitza kanpoan ez zen batere apaltzen, eta Pappa hitz eta pitz, harik eta kostea egiten zen nire presentziaz jabetzen zen ala ez esatea, txundituta entzun besterik ez nion egiten arren, adi asko koadernatzaile zaharraren katua laztantzen nuelarik, une honetan nire magal gainean kokatzen den beste arkakuso-zaku honekin egiten dudana bezalaxe. Baina badakust ez dela soilik katua nire istorioari jaramonik egiten ez dion bakarra... Denak lo! Denak, burukadak ematen ari den bat izan ezik eta tabernari-traste hau, zeina oraindik, hara, zuhurrena eta adeitsuena izango da! Horretarako eskatzen al didazue nire kontakizuna kontatzea? Garagardo-gehiegizkoak debekatzen dizuen loa harrapatzeko? Zintzilika nazatela, edo hobeto: zintzilika zaitzatela, zerri-zain horiek, zahagi-ilara, putaseme alaenak! Eta hi, alproja, bete iezadak txarroa!, esaten diat-ba: gutxienez hireganako errespetuagatik, eta bada esatea gero, eta trumoiak eta haizeak zulo hau uztea eragozten digutenez, ezohiko liburu-jostun hark, birrindutako nire ohearen jabeak, kontatutako istorioa amaituko diat.

Pappak esan zuen:

—Nigandik agurtzen zenean intuitu nuen bezala, Loew errabinoarekin egindako elkarrizketa haren ondorengatik denbora-tarte bat joan zen elkar ikusi gabe, eta hori laster xeheko ditudan ezaugarri aski azpimarragarrietan gertatu zen. Bitartean, egunak lasai eta axolagabe igaro ziren niretzat aldi aski luze batean. Nire eginbehar nagusiak Etorkizuneko Erreginaren Maitale-kargutik eratorritakoak ziren, zeinek eguneko ordu gehienak Joanaren ohe barruan igarotzera ninderamaten, haren apetituen exaltazioa itzaltzeko modu berriak aurkitzeko ahal nuen beste eginez (eta argi esanda edozein gizonek egiten diot erroka jabetu dadin zein punturaino zen zeregin zaila); gauak arratseko errezoekin eta afariko mokaduekin hasten zen, zeinak, bere soiltasunagatik, erreginaren konpainian hartzen nituen elikagaien fintasunetik kontsolatzen ninduen, lizun izateraino ezin oparagoak baitziren eurak, eta bere grina gupidagabearen eskakizunek beste okitzen ninduten. Afari laburraren ondoren, beraz, printzesaren geletaraino eramaten ninduten (maiz, bertara ailegatzeko Arte eta Mirarien Ganbera zeharkatu eta ostera izan ohi nuen aukera mineral-sortak, fauna disekatuko taldeak, intsektu-familia osoz betetako

plafoiak, erabilgarritasun dezifraezinezko artefaktu ibilgeak eta automata kezkarriak, ustezko propietate sendagarriko mineralak, Erromatik, Jerusalemetik eta Mekatik debekatutako liburukiak zeuzkaten giltzarrapoz itxitako aresak behatzeko), eta han betetzen nuen nire gaueko ardura, hots, zutik eta ganberaurrean printzesaren eta bere zazpi dontzeilen loaldia beilatzea (zeinek, pasadan esanda, sekula ez ninduten gogaitu, erreginaren zerbitzuko hamabiek egiten ohi zuten bezala). Goardia-ordu luze haietan isiltasunaren eta loguraren astuntasunaren, igarotzen ez ziren orduen aspertzea eta mosaikoen zein errezelen geldotasunak probokaturiko inertziaren kontra egin behar zen borroka, baina Loew errabinoaren hitzek animatu eta konpainia egiten zidaten, zeinen arabera nire Mariarenganako sentimenduek erantzuna izateko esperantza izatea neukan. Aldiz, gau haietako ilusioak, haren atearen giltzarrapoak ixtean egiten zuen zarata errukigabeak nola deuseztatzen zituen ikusi beharko nuen, ni bakar-bakarrik utziz gau lodiarekin aurrez aurre, hark, igarotzean, niri ezein agurrik ez eta inolako seinalerik eman gabe. Erratu egiten al zen Errabino Nagusia printzesaren sentimenduei buruzko bere aieruekin? Kezka handi baten menpe jartzen ninduen zalantza harekin borrokan nenbilen, harik eta errelebo-ordua iritsi eta atsedeen pixka bat hartzera nire logela edo ganberara erretiratzen nintzen, zeinaren dimentsio eta baldintzetara egokitzea ez nuen lortzen. Argi zegoen bizitoki umiliagarri hura ez zela egokia Etorkizuneko Erreginaren Maitale-maila zeukanarentzat, nondik erraz ondoriozta zitekeen, Loew errabinoak aditzera eman zuenez, egoera haren atzean Antoni dukearen eragina zegoela. Eta pentsamendu hark nire buru barruan, antsietateak eraginda, galdera bat sorrarazten zuen: noiz iritsiko zen harroputz haren aurkako nire mendeku-ordua? Noiz azalduko zen aukera erabakigarria non gutako batek bestea garaituko zuen, deuseztatu arte?

Konturatu gabe igaro zen nire lehen uda hura Frederik V.a Palatinatukoaren gorteko mertzenario bezala, eta gero, intsentsibilitate berberarekin, udazkena, negua, eta udaberria igaro ziren, eta beste uda baten hasiera iritsiko zen, eta ostera eguzkiaren distira irredentoak mila hirurehun eta hemeretzigarren grazia-urteko Praga harroko hamaika dorretatik txinpartak atera eta hango bizilagun kezkatuen begiak txunditzen zituen. Urte hartan pentsatzen dudanean, burura datorkidan lehen irudia ni neu naiz, nire ganberako leiho apaletik printzesaren guardia amaituta, ezin lokarturik igarotzen nituen gauetan, goizalbak eta haren aurreko uneek, segun eta zein urtarotan, hartzen zituzten modulazioak, soldaduen barrakoieta ospatzen ziren gehiegikerien oihartzunek eragozten zidaten bitartean, zeinetatik, hurbil egon arren, beti urrun mantentzen ninduten. Goiztiri-sail hura osotasun bat bezala gogoratzen dut, egun berbera izan balitz bezala, behin eta berriro hasiz, tinko, aldagaitz, egun egoskor eta errebelde, espazioaren eta denboraren koordinada estuekiko errefraktario, logikak inposatzen dizkigun ohiturengatik ulertzen ditugun bezala. Gomuta hura ekarri eta bizkarrez ikusten dut nire burua (nire atzean iluntasun dentso eta arakaezina besterik ez dago), modu bitxian argitutako leihotik begira, zelaiguneak eta patrioko hormek markatutako ortzimugaren gainetik, egunsentien joan agorrezina Jainkoaren eskuak eraiki eta martxan ipinitako enbolo batek markatutako ardatz baten inguruan gelditu ezinik biratzen duen eguzkiaren magnitudeko lamina handi batean inprimatuta ikusiko banu bezala, zeinari –proposatu gabe, zein motiborik jakin gabe– beldur izaten ikasten hasia bainintzen. Nire bizkarra belztasunaren barrutik sortuz, burgoi baina zaurgarriki soslaituz, nire gorputza arbendol-esnea bezain zuri oliotsuko; xehetasun gorritz, isurtzeko odolaren aurrekari, kargaturiko laranja-koloreko; ekaitza garraiatzen duten hodei-masekin bat egitean belzten diren griseko; ortzi intentsoki ilunaren eta elurte handietako hotzak hoztutako paisaiaren zurtasun zirrargarriaren arteko kontraste sorreko goizaren ikuskizuna kontenplatzen kontzentratuta. Nire bizkar izukaitza eta muturreko hauskortasuna salatzen zuen ilunpeak txikitutakoaren kontrapuntuarekin iratzartzen ziren egunetako irudien karrusela, akitugabe errepikakor eta matizatuta: estanpa horixe datorki nire gogora Pragako Gazteluaren barrunbeetan bizi izandako urtearen parterik handiena gogoratzen dudanean. Hori eta malenkonია: zein malenkonია-uhin altuek ez zuten mugitzen nire espiritua Etorkizuneko Erreginaren Maitaleari dagokion ostrazismora ohituta, pentsamenduak salatu eta Maria eta haren begien ebokaziora desgaraiz desbideratzen zuenean, Morelia eta haren gorputzera, Laido eta haren noblezia berezira, nire jatorriko Sumavako muinoen edertasunera, uruntasunak gehiturik! Orduan ez zen arraroa izaten nire arima

malkoetaraino hunkitu eta zentzugabetutako existentzia haren kontra birao eta madarikaziotan lehertzea, benetako kartzela urrekara haren kontra, zeinaren barruan azareak, zeina deabruak zalantzarik gabe nahasten pozten zen, ni itxi nahi izan ninduen! Halako ahalegin egin beharra inolako ohorerik eta probetxurik gabe! Zein bizimodu-molde aintza izpirik ttikiena merezi gabe! Zein arrastaka ibili behar guztiz miserablea, gizonetako miserableenari baino gehiago animaliei dagokiena! Tristura nekaezin hura jabetzen zen nitaz mintzo naizen gau erne haietan, eta nire arimarekin berarekin izan ohi nituen eztabaidak abiarazten zituen, Loew errabinoak bere bibliotekako liburuak onenen artean aukeratu eta nire eskuetan, opari pozoitsu bezala, utzitako *Hypnerotomachia* pagano baina argitzailearen irakurketatik erretenitzen nituen kontzeptuen arabera. Pozoitsua, hain zuzen, bizitza den ametsaren lurraldeen barruan alde guztietatik ugari diren arrisku eta tentazioak, izu-ikararik gabe erronka eginez, gurutzatzeko gai zen gizon baten kontakizun hartan, instrukzio-gosez eta galdutako maitasuna irabazteko desio eta behar soilez, historia haren barruan, beraz, nekez eta dolorez besterik irakur ez nezakeen hartan, nire alferkeriaren egundoko proportzioak islatzen zituen ispilua aurkitu eta irudi bat itzultzen zidan, non nire aurpegi deformatu eta lotsak zurbildua aurkitzen nuen. Zeren, Polifilorekin alderatuz gero, nahi izango nukeen bezala, denetan galtzaile ateratzen nintzen; amaierarik eta kontaezingabeko edertasuna ikusten zuen hartan, niri ikusmena eta ulermena lanbrotu eta pertzepzioak eta kontzeptuak nahasten zizkidan; Polifilok erreakzionatu eta determinazioak hartzen zituen hartan, ni uzurtu eta gertakariak kanpoko kausa baten eraginez gertatzea itxaroten ohitu nintzen. Fikzio haren protagonistarekin soilik gure maitatuagatiko nahasamenduan neurtu eta bat etor ninteke (bera ez zen gai Polia ezagutzeko, aurrean izan arren; eta ni, nire maitasunaren balantza prekarioan, ez nekien amaierako orratza Morelaren plateraren edo Mariarenaren alde jarri, Joanaren ohe sutuan erretzen jarraitzen nintzelarik eta haien denek izenak eta aurpegiak modu penagarrian nahasten amaitzen nuen) eta berrikuntzen aurrean aurkitzean sentitzen genuen koldarkerian. Bai, bi ahultasun haietan antz handia geneukan Polifilok eta nik, baina hark ez ninduen ezertan kontsolatzen, eta bestaldetik, nik oraindik abantaila hartzen nion ahultasun- eta gabezia-katalogo askoz ere zabalagoarekin. Edozein moduz, nire malenkonia-atake gordinenean nire buruari galdetzen amaitzen nuen, zer gertatu zen nirekin? Bideko zein puntutan galdu zen soldadu prestakuntzarik gabeko baina beldurgarri hura, Antoni dukearen eta Frederik erregearen beraren kontsiderazioa merezi izan zuena? Zein unetan hedatu zen irakinaldi natural hura, lehen konbatera ausart oldartzeko eta Laido handia, husiten klan bateko buruzagia, gaingitzea aurkari kapaza bihurtu ninduen sen kartsu hura? Nola galdu zen indar hura guztia, indarkeria eder hura dena? Antoniren esku jasotako jipoia al zen kausa? Joana erreginak eta bere hamabi donteilek nirekin izandako delikueszentziak al ziren errudunak? Edo behar bada erruduna Maria printzesaren aldetiko maitasun-seinaleren baten erantzunik eta zentzurik gabeko itxaronaldia al zen, zeina egunez egun intentsitate handiagoz desiratzen nuen? Edo izaki uzkur eta mainatsu bat bezala jokatzera eraman ninduen hura denaren batuketa eta emaitza al zen? Ezinezkoa egiten zitzaidan hura antzematea, baina edozein kasutan, zein Sisifo moldakaitz eta patetiko bihurtua nengoen, eta nolako lotsa neukan, bakarturik, ilunpean eta bizkarra emanda, aurpegia urtearen ziklo barruan Pragako egunsentien lamina birakariari ez beste ezeri aurpegia eman gabe! Agian lotsa eta beldurra ziren, hilabete batzuk lehenago, gau benetan berezi baten joanean, bizi izandako egitate azpimarragarrien aurrean zegozkien ondorioak ateratzea eragotzi zidatena. Jarraian laburtuko ditut, uste baitut interesgarriak direla, behar bada ez amaiera, baina bai gertakariak gero gertatu ziren bezala ulertzeko.

Neguko gau batean, beraz, iluna sakonagoa eta gizonak eta abereak beldurrez mututzen dituenean, munstroa agertu zen berriro. Diodan bezala, gau betea zen eta dena zegoen isilik, haizea izan ezik, mendian zehar eta are beheago errukirik gabe jotzen baitzuen, hiriko kaleetan, Karlosen Zubiko estatuen artean eta Moldavako ur etengabe arreetan, eta baita Gazteluaren gainean ere, zeinaren patioetan haizea heze eta basati zebilen erresistentzia oro garbituz, zirrikitu baten bila, irekiduraren bat, gelen barruan sartu eta bere geruza hotz zorrotza gizonen eta emakumeen loaldi kaltegabeko edo aitorrezin, mehe eta aztoratu, lo lasai eta atseginezko, azken finean lo intimoen eta baitaratuaren inguruan hedatzea ahalbidetuko zion zuloren bat, loaldi

horixe baita beste egunsenti berririk iritsiko ez dela eta dena zintzilik eta denboraren joanarekiko beharrianik gabe dirudien ordu hartan gertatzen zaiguna: lo aingerutarrari buruz ari naiz, denok ezagutzen duguna eta ezagutzen ez duguna: ordu hartan izan ohi zen nire guardia Maria printzesaren ganberaurrean, nik nire errutinaren arabera egiten nuena, eta gogoan daukat nire babestuaren ametsen kalitateaz gozoki espekulatzen ari nintzela (erreginaren alboan igarotako orduen oroitzapenak sorturiko erreakzio bat nahasten ninduelarik) albo-alboko kaperatik zetorren hots arraro bat antzeman nuenean.

Bertara sartu nintzen ikaraldiak eta erabakiak erdizka bultzatuta: kopeta beltz, okotsa tinko, giharrak tenk, espata aterata eskuineko eskuan eta ezkerra daga ateratzeko prest. Pizturiko zuziek tartekatutako ilunpean arakatu nuen begiekin, zuzi haiek Jainko Gure Jaunari Frederikek herexia katolikoaren eskakizunen aurka gidatzen zuen Batasun Ebanjelikoaren arrakastaren alde zuzenduriko bermeak baitziren. Luze behartu nuen nire ikusmena erabateko ilunpean ezer sumatu gabe. Azkenean ezerezean flotatzen ari ziren txingar pare batek erreferentzia-puntua eman zidan: ez ziren ordea txingarrak –laster konturatu nintzenez–, munstroaren begiak baizik, zeina niregana zetorren urrats geldia baino irmoekin. Ez nuen denbora asko behar izan bereizteko: bere gorputz desproporzionatua balantzaka zetorren kaperako bankuen artean, itsaso handian ekaitzak jotako arrantza-ontzi bat bezala, eta esku nazkagarrietako batean desesekiko zuen zurezko gurutze bat zekarren, Aitari deitzeko burua desesperazioz altxatzen zuen Jesukristoren irudiarekin (eta zer egiten zuen irudi hark kapera ebanjeliko batean?); gorputza distiratsu zeukan, zauriei jariatzen zitzairen likidoaren gainean zuzien argiaren islaren eraginez. Hurbildu egin zen eta ni haren zain nengoen –espata altxatuta, izuikarak paralizatuta– kaperaren atean; hurbil izan nuenean kolpe hilgarria prestatzeko keinua egin eta esan nuen totelka:

—Nor... nor zaitut?

Ez zuen erantzun, baina gurutzea ez zeraman eskua luzatu eta masail bat ukitu zidan esku irekiarekin –astiro, saiatzan ari nintzen kolpea haren gainean bota ezinik–. Haren azalaren ukituak, testura lohitsuak bera, izain handi bat gogoratzen zuen, eta, nire burmuinak konparazio hau egiten zuen bitartean, munstroaren arnasaren hatsak –bere aurpegia nirera hurbildu baitzuen, burua okertuz musu eman nahiko balit bezala– botagura sortu eta ok egitera apartatzera behartu ninduen kirats-hodei batean inguratu ninduen. Hori egiten nuen bitartean, ergelki baina alternatibarik gabe bere menpe ipinita, konturatu nintzen hankek huts egiten zidatela eta berehala konortea galdu eta lurrera jausi nintzen korderik gabe.

Ez dakit zenbat denbora pasa zen kontzientzia errekuiperatu eta lurrian luze nengoela jabetu arte, nire okadaren putzu irristakorraren barruan aurpegia sartuta, non gurutzea ere bertan zegoen Kristo erregutzailearen irudiarekin, munstroak hantxe modu iraingarrian utzia bera, zeinak hala ere nire bizitzarekin ez amaitzeko keinu eskuzabala izan zuen. Baina azken finean, zein interes eduki zezakeen infernuko izaki hark ni akabatzen..? Bat-batean, beste ideia beldurgarriago bat modu eztaba daezinean etorri zitzaidan, eta, aurpegia eta jantziak garbitzera gelditu gabe, altxatzera eta lasterka alde egitera bultzatu ninduen zazpi dontzeilek gaua pasatzen zuten geletarantz eta, batik bat, Maria etzanda zegoen printzesa-gelara: “munstroak eraso egin badio”, pentsatzen nuen etsipenez korrika egiten nuelarik, armak suminez astinduz –orain bai– eta edozein arerio zatikatzeko puntuan, mundu honetako izan edo Infernuko bederatzigarren zirkulutik etorria, “ez dut Frederikek eta are gutxiago Antonik agindutako zigorra itxarongo: niken hondoratuko dut arra bete altzairu nire bihotzean eta nire bular barrutik, osorik edo zatika, ateratzeraino bihurrituko dut hura, nire azken hatsarekin nire Maria maitearen, heriotza baino areago ezin zimelduzkoaren presentziari eskaintzeko”.

Baina zorionez, ez Mariak ez ezin dontzeilak ez zuen gaitzik jasan, eta ez zegoen munstroak haiei eraso egiteko edo molestatzeko intentziorik izan zezakeen arrastorik. Gelaz gela joan nintzen, haietako bakoitzaren ateak zuhurtzirik gabe irekiz eta kolpe batez itxita zeuden giltzarrapoak hautsiz -printzesaren gelako kasuan adibidez–, zigor gorena ekarri ahal ziezaizkidekeen interpretazio gaitzotara arriskatuz; zorionez, Maria eta bere segiziokoak sakon lo zeuden, gau honetan jotzen gaituen haizetea bezalakoaren ufadek kulunkatuta, eta gelak hain ziren handiak, ateen orrien zarata nire botaren presiopean irekitzean ere ez zen nahikoa koltxa azpian bular zuri

eta lurrinduak astiro mugitzen zuen arnasa akonpasatua eragozteko. Haietako inor ez zen esnatu, diodan bezala, eta haietako inor ez zen kaltetua izan. Zergatik eta norengatik etorri zen orduan piztia desitxuratu hura? Loew errabino maisuaren hitzak etorri zitzaizkidan ostera burura, gure azken elkarrizketan gauzen lehen kausaren eta kausa efizientearen arrazoiari buruz esandakoak, eta pentsatu nuen munstroaren presentzia Gaztelu barruan, ordu zehaztugabe hartan, ez zuela nahitaez ezein mehatxu-adierazpeni lotuta egon behar. Baina orduan, zer zentzu zeukan..? Izatez ez neukan ezein ziurtasunik, ez eta ustez ikusi nuen hartaz, beraz berehalako irizpideetara mugatu nintzen: hobe zen arropa okada-arrastoez garbitu eta inor ezertaz ez informatzea; bestalde, oraindik pixka bat gelditzen zen nire guardia amaitzeko.

Beraz, nire zaintza-tokira itzuli nintzen printzesaren ganberaurrean, gero eta jabetuago afera hartaz isiltasuna gordetzeko komenentziaz: ez zegoen kontsolatzeko posibilitaterik haluzinazio bat gertatu zela pentsatuz, baina munstroaren existentziaren atzean deskribaezinezko gorte hartako pertsonaiaren baten erabaki ezkuturen bat ezkututzen zen hipotesia, bestalde demostraiezina, neukan buruan: Antoni dukea, zeinari buruz aspaldian ez neukan berririk, higuin harekin batera zetorkidan lehena zen noski, baina gutxien jotzen zuena zen: Antoniren trebetasunak armen, inteligentzia militarren, eta diplomazia konspiratzailearen bidez hedatzen ziren, magiari eta beste arte ezkutu edo debekatuen oso aurretik, izaki higuingarri hari, zalantzarik gabe, bidea eman ziotenak bezalakoak. Ez, holako gauzak gehiago egokitzen ziren Joana erreginaren interes eta curiositateekin, adibidez, eta are gehiago Frederik berarenekin. Baina erregina orain susmo guztietatik kanpo geratzen zen, haren sorginkeriak lizunkeriaren plazerrak intentsoago gozatzeko iragazki eta edabeak elaboratzera mugatzen ziren. Erregea izan zitekeen, beraz, zeina, zientzia ezkutuen arakaketa haietako baten barruan, uneoro inguratuta izan ohi zen mundu ezagun osotik etorritako mediku eta alkimista haiekin egindako esperimenturen batean, eta zeinengatik maiz bere betebeharrak militar eta politikoak ahazten zituen, naturaren lege funtsezkoenen aurkako piztia-klase hura pentsatu eta askatu zuena? Zein xederekin?

Azken finean, Frederiken gustuak eta portaerak bitxiak izan arren, ezin nuen pentsatu soilik kapritxoak eta doakotasunak mugituta jardungo zuela, eta bestalde gero eta nabarmenago egiten zitzaidan munstroaren existentzia ez zela infernuko kontu bat, edo edozein kasutan ez soilik hura, baizik nahitaez mundu honetako norbaiten erabakiak eta xedeak hartzen zutela parte.

Pentsakizun hauetan murgilduta nengoen eta, bat-batean, beste birao bat (baina oraingoan ez zetorren kaperatik baizik alboko pasabide-aretoetik zetorrela zirudien) entzun zen isiltasun handiaren eta gau ilunenaren barruan, eta ostera tentsioan ipini ninduen. Beraz, oraindik handik zebilen munstroa! Orduko hartan asaldura, misterio hartatik azalpenen bat ateratzeko aukerak sortua, beldurrari nagusitu zitzaion: ostera atera nituen armak eta, nire kemen guztiarekin, pasabide-aretoan sartu nintzen, alboko atetik hain juxtu, eraso-jarrera hartu eta nire indar guztiekin oihu egiten nuelarik:

—Piztia kirastuna! Ez mugitu edo nire odolaren izenean zin egiten dut kolpe batez itzuliko zaitudala sekula atera behar ez zinen gorotz-hatsetara.

Nire mehatxuaren oihartzuna jauregi barruan hotsa sortuz galtzen zen bitartean, harriduraz aurkitu nuen Frederik erregearen irudia pasabide-aretoaren erdian. Lo-atorraz jantzita zebilen eta eskuetan zurezko peana bat zen objektu ttiki bat zeukan, zeinaren gainean metalez egindako ardatz bertikal batean makilatxo metaliko batek alde batetik bestera oszilatzen zuen. Bat-batean belauniko jarri nintzen, Frederik, sonanbulu esnatu berri batek bezala, distraitu begiratu eta bereziki inorengana zuzenduko ez balitz bezala, zioen bitartean:

—Hara non, heroia topatzen dugun... —Eta jarraian, bat-batean animaturik eta alaiki—: Denbora asko zu ikusi gabe, Puppa! Nola zaude?

Nahasturik eta beldurtuta, altxatzen ausartu gabe, azalpen bat ematen saiatu nintzen:

—Ba... bazegoen... Guardia egiten nengoen... nire, nire guardia egiten nuen Berorren Gorentasuna, eta entzun dut... Uste dut entzun nuela...

—Agian, hau?

Eta begien aurrean eskuetan zerman objektu hura ipini zidan. Makilatxo oszilatzaileak erlojuaren bezalako tik-taka egiten zuen, etengabeko burrunda batekin batera. Ametsik ttikienari gauak

ematen dion prestantziak nire eszitazioan zaratatxo ergel hark asaldura sorraraztea lortu zuen. Ez nekien zer esan.

—Hau metronomo bat da —argitu zuen erregeak—. Erritmoa markatu eta neurtzeko balio du... Baina nolako mania daukazun lurrean egoteko, Puppa! Altxa zaitez, heroi!

Esaten zidana egin eta ezpata gorde nuen. Orduan aparailu bitxia nire eskuetan utzi eta jarraitu zuen:

—Bikain eraikitako metronomo bat da hau. Pieza metalikoak diamante eta altzairuzko aleazioz eginak daude, eta horrek iraunkortasuna eta oreka perfektua ziurtatzen dute, eta oinarriko zura milurteko sekuoia batetik ebakita dago... Ba al dakizu zer den sekuoia bat, Puppa? Han, Mundu Berrian hazten diren zuhaitz erraldoi batzuk dira. Diote zuhaitz hauetako batzuk giza leinua baino zaharragoak direla, eta San Nikolas katedrala baino adaburu zabalagoa edukitzera irits daitezke... Diote baita ere basati-tribu osoek beren herriak sekuoien adarren artean eraikitzen dituztela, espiritu ongilez populatuta daudela uste dutelako. Zuk sinisten al duzu hau, Puppa?

Ez nuen deus esan, baina ez nuen erantzunik ere itxaroten. Oinkada handiz zebilen pasabide-aretoan alde batetik bestera, lo-atorraren muturrak haizeratuz.

—Beraz metronomoak erritmoa kuantifikatzen du... Eta erritmoa, Platon zaharrak zioenez, denboran ordena da, baina adi! —nire aurrean ipini zen braustakoan begiak oso irekita, eta bere aurpegia asko hurbildu zuen nireira, marmartzeko: ametsetan denbora ezabatu egiten da, eta beraz, erritmoa ezinezkoa da. Ez dago ordenarik, ulertzen al duzu, Puppa?

Nire izena destainez ahoskatuko balu bezala ebaki zuen zatitan. Nik metronomoa eskuetan mantentzen nuen aztoratuta, eta Frederikek hartu egin zidan konfidentzia-tonuan mintzatuz:

—Hemen denak mintzatzen zaizkizu ametsetan, Puppa. Eta Gu ere bai, baina azken buru Gu erregea gara... —etenaldi bat egin eta gero, tonu oso-oso txeratsuan, mahai ongi prestatura esertzera gonbidatu banindu bezala, erantsi zuen—: Badakizu, ez hurbildu printzesarengana edo ez jaiotzea desiratuko duzu, ulertzen?

Buruarekin baietsi nuen eta Berorren Maiestateak bizkarra eman eta irten egin zen, oso pozik, pasabide-aretoaren ateetako batetik. Urruntzen zelarik, oraindik entzun nion esaten:

—Zu ere, heroi, gure ahuldadeaz baliatuko al zara?

Honekin ez ziren bukatuko neguko gau gordinean zain neuzkan enkontruak. Guardiako errelebo-ordua iritsita, printzesaren guardiako beste soldadu bati tokia ganberaurrean utzi eta nire gelarantz abiatu nintzen, atsedean hartzeko xedez edo, ezin izatekotan, leihoko beiraren aurrean zutik egoteko egunsentietako lamina ostera kontenplatzeko, zeina infinituki biratzen zen inoiz erreplikatu gabe. Nahiz eta nire kideei aditzera eman nien guardia, beti bezala, berririk gabe igaro zela, oso urduri nengoen munstroaren eta Frederiken presentziagatik, eta, hausnarketa egiten nuen arren, ez nuen bietako bakar batentzat azalpenik aurkitzen asmatzen. Zer esan nahi izan zuen erregeak hitz enigmatiko haiekin? Mezuren bat transmititu nahi zidan ala eldarnioa jasaten zuen, lunatikoek egiten duten eran?

Digresio haietan okupatuta, nire gelara iritsi eta presaturik sartu nintzen, alde batera presentzia desiragaitzen batek jarraitua izatearen beldurrak bultzatuta, eta beste alde batera patioko zabalgunean indartsu ziztatzen zidan haizeagatik, eta are beste alde batera, ohantze gainean luzatzeko eta nire pentsamendu baldarrean ordena ipintzeko gogoagatik. Horregatik, beraz, nire uniformeak sartzen nituen tiradera hondatuaren alboan zutik zegoen presentziaz jabetu gabe sartu nintzen. Bera izan zen aurkeztu zena:

—Ongi etorri etxera, Puppa. Kezkatuta dirudizu...

Oihu batekin erantzun nuen, pistola atera eta ahotsa zetorrela iruditu zitzaidan txokora destatuz. Gizonak eskuak altxatu zituen xede baketsuz aurkezteko seinaleztat eta urrats bat egin zuen aurrera, ilargi berriaren argiak aurpegia apenas argitzea ahalbidetzen zuelarik. Antonik irribarre egin zuen:

—Puppa: hiltzera etorri izan banintz, egina neukan.

Arrazoa zeukala pentsatu nuen eta nire deskuiduagatik madarikatu nuen- Pistola jaitsi eta galdetu nuen:

—Zergatik etorri zara, orduan?

Dukea eseri eta serio geratu zen, ideiak ordenatzen zituela aditzera emanaz, ni ere ohantzean eseri nintzen, ez deskonfiantzarik gabe, eta hark hitz egiten arte itxaron nuen. Kanpoan, haize minberak Gaztelua botatzeko asmoa zuen efektua egiten zuen. Azkenean, begietara begiratu eta bere bisitaren arrazoiak erakutsi zizkidan.

Beste ezer baino gehiago, ematen zuen Antonik gauetan hiria izutzen zituen ehizaldiez mintzo nahi zuela: Praga irakiten dagoen lapikoa zen Matiasen erregeordeak leihotik jaurti zituzten egunetik, eta egun horretatik —pentsatu nuen— ni ez nintzen Gazteluaren itxituratik atera (eta, pentsamendu horrekin lotuta, orduz geroztik lehen aldiz Errege Jauregia hornitzen zituen miragarri artistikoak etorri zitzaizkidan burura: bereziki, eskailera ikusgarria, erregeordeen odolarekin tindatua, burgoi eta harroa, alde banatan bere zutabe-joko' bikoitzarekin burutua, eta baita frontispizio errektangeluar hura zentauro, grifo eta adats ikusgarriak erakusten zituzten arrainez zizelaturako jeroglifiko hura zeukana; ideia-asoziazioen bidez, gogoratu nuen baita ere egundoko lorategi hura, argi fosforeszente bitxia irradiatzen zuena eta Tronuko Aretora iristeko gurutzatu nuen galeria huts handi hura goitik kontenplatu ahal izan nuena. Lorategia ez nuen osteria ikusi, eta izatez, une huraxe arte ez nuen gogoan eduki ere).

Baina dukeak mintzatzen jarraitzen zuen. Errepikatzen zuen ezen, Frederik eta Batasun Ebanjelikoa behin-behineko erregealdira eraman zuen matxinadaz geroztik, Praga goizean zalapartez eta ebasketez suntsituta zegoela; eta gauez, kapetan ezkutaturako hiritar-talde ttikiek Hiri Zaharreko zulorik gordeenetan izan ohi zituzten bilera konspiratiboez hunkituta, eta baita era hilketa, bortxaketa eta era guztietako biraozko ekitaldiz osaturiko krimen ugariz, elizen eta sinagogen espoliazioak, hilerrien biolazioak (jentila zein judua) eta sorginkeria eta magia beltzeko bilerak barne, zeinetan haurrak bizirik larrutzen ziren haien odola edan eta haragia jateko. Karlosen Zubia prediku-toki kuttuna zen itxura haluzinatuko igarleentzat zeinek, estatuen ondoan zutik edo zubiko barandan bertan (batzuk, mozkorragatik, ibaiko uretara jausten ziren), apokalipsi berehalako eta deigarriak iragartzen zituzten, eta merkatari askok lukurreria praktikatzen zuten, apaiz askok simoniarekin egiten zuten bezala, eta beste hainbat hiritarrek estuproarekin, proxenetismoarekin, deprabazioarekin edo diru-gosearekin egiten zuten bezala. Hots, Praga kaosak eta doilorkeriak gordintasunik handienarekin bere obra errepresentatzen zuten antzokia bilakatu zen, Sodoma eta Gomorra birsortua. Eta hura dena Frederik Palatinatuko behin-behineko gobernuaren berezko egonkortasun eskasera eta Bohemiako Dietako parlamentarioentzat zein Rodolf II.ak emandako Maiestate-Karta berreskuratzeko esperantzarako eta, hitz batez, Batasun Ebanjelikoaren interesentzako, egoera bereziki arriskutsua bilakatzen zen.

Holako panorama baten aurrean, ordena-minimo bat berrezartzea erabaki zuen dukeak terrorera erabiliz. Pertsonalki, Antonik egunez egun higuinik handiena sentitzen zuen buru zuten tropekiko; tximu-mundu hura mespretxatzen zuen (eta hura esatean barrakoietara seinalatzen zuen beso batekin), zeinek, pausoa markatu eta gauean Gaztelura igotzea onarturiko puten haragia eskuztatzen zuten bitartean, mozkortzea besterik ez baitzekiten. Iruditzen zitzaion Bohemiako legitimitate monarkikoa ergel sifilitiko-saldo hura konbatean sartzearen arabera baldin bazen, orduan konponduta zegoen Frederik: presazkoa zen, beraz, haiek konbaterako prestatzea. Horrela bada, eta Frederiken eta Ferran Estiriakoaren artean aurkakotasun belikoak argitaratu bitartean (zeina, bestalde laster gertatuko zen: Ferran ondo eta azkar maniobratzen ari zen enperadore koroatu zedin, bere familia bavariar errearen, Liga Katolikoko printzipeen et Felipe III.a Espainiakoaren oniritzi eta babesarekin, eta orduan protokolo diplomatikoak apurtzeko moduan egongo zen), partaide lutertar, kalbindar eta juduek osatutako armada erreala eskumen judizialek jantzitako polizia-gorputzaren funtzioak hartuko zituen. Ideia horren arabera, Antonik antolatutako ehizaldiek hiria sektoreka miatzea agintzen zien soldaduei, etxeratze-aginduaren ostean kaleetatik zirkulatzen zuten konspirazio-, agitazio- edo gaiztakeria- edo agian lapur-susmagarriak bilatu, atxilotu eta balizko exekuzioaren bila, kaltegabeko iruditu arren. Emaiza zen,

egun haietan Pragan izua hedatzen zuten gaizkile guztietatik beldurgarrienak Berorren Maiestate Frederik erregearean soldaduak zirela.

Antonik modu mekanikoan aletzen zuen bere kontakizuna, hark denak berarekin zerikusirik ez balu bezala. Nik hasieran bezainbeste nahastu eta beldurtuta entzuten nion: zergatik eskrupulurik gabeko piztia hura, Entrenamendu Aretoan jipoituta utzi ninduen egunez geroztik ikusi ez nuena, nigana zetorren orain bere maniobren berri emateko...? Nire pentsamenduak entzun ahal balitu bezala, dukeak bere isiltasuna eten eta esatera etorri zen harekin erantzun zidan:

—Etorkizuneko Erreginaren Maitale gisara, nik hasieran uste baino trebeagoa izan zara, aitortu beharra daukat. Orain ukiezin bizi zara, Puppa, denetatik urrun, lumaz betetako kuxinen, jaki finen eta amaierarik gabeko lizunkerien artean. —Gogoratzera nindoan oraindik nire gelan lo egiteko duineztasuna jasatera behartuta nengoela, baina eten egin zidan—. Jarraitu horrela: hauxe da zuri ematera etorri naizen aholkua. Erregea bere maniekin txoratuta dabil; gerra hastea itxaron besterik ez dago eta aitzakiarik onena izango dut hura baztertu eta erregeordetza okupatzeko, Mariaren alboan ezkontza on bat eszenifikatuz —ahoa ireki nuen deabrutara bidaltzeko, baina kementsu eten zidan berriro—. Isilik, Puppa: ez naiz zure iritzia eskatzera etorri; soilik ekidinezina ez denari buruz informatzera. Erregeak ezin izango du deus egin, eta erreginari, zuk aserik mantentzen saiatzen zaren bitartean, dena ondo irudituko zaio. Arerio ona izan zara, Puppa, orain izan zaitez aski azkarra zure aukeren mugak neurtzeko eta ez oztopatu gauzen gertaera logikoa. Nire errespetua irabazi duzu, beraz ez zaitut hilko zuk behartzen ez banauzu. Egin ezazu esaten dizudana: jarraitu orain bezala, ez hitz egin inorekin elkarriketa honetaz, eta utzi dena zu ukitu gabe igarotzen. Eta batik bat ez hurbildu printzesarengana, bestela ziur egon zaitezke damutuko zaizula.

Antoniren begi-nini distiratsuak begiratu nituen, ilargi-argitasun berdearen azpian: defuntu baten begien argi opakoa ikusi nuen bertan. Bere menpe nindukan oster, eta erantzutea eragozten zidan sumenez betetzen ninduen.

Ostera irribarre egin, altxatu eta gelako aterantz abiatu zen dukea, harro. Patiora ateratzeko unean zegoela, biratu egin zen:

—Ahazteko puntuan egon naiz: azken ehizaldian kinkilaritzat pasatzen zen ijito-banda bat atxilotu dugu. Antza denez haien buruzagia zen erraldoi bat hil, harrikatu behar izan dugu. Gure ziegetan daukagu haren alaba, seme bat dakarren eta zu bezala deitzen den pertsonaia bat azaltzen dituen bertso batzuk errezitatzen dituen oso-oso emakume eder bat. Zu ikustera erabaki nauen seinale bat iruditu zait... Hartu atseden, Puppa.

Kezko belo bat.

Kezko beste belo bat.

—Duela mende bat inguru, bere Moises amaitu berri, Michelangelo Buonarrotik eskaileratik jaitsi eta urrats batzuk atzera egin zuen bere obra amaitua ikusteko. Luze, geldi eta isilik, begiratu zuen marmolezko pieza handia, bere eskuekin artelan gorena bilakaturik. Bat-batean, erotu balitz bezala, estatuaren burura jaurti zuen mailua, hari oihu eginez: “Hitz egin ezak. Hitz egiteko agintzen diat”.

Loew errabinoaren ahotsa zen: areago ikusten uzten ez zidan landaredi sarriaren bidez zetorkidan, iturri kantari eta ur-jauziak ziruditen marmar ez oso urrunekin nahastuta. Ez nekien norantz biratu: mulu hostotsuek, basolibondoek eta zuhaixka nahaspilatuek, lezka-multzo mardulek eta belar gaiztoek, gizon baten besarkada baino adaburu zabalagoko oso zuhaitz altuek ibiltzea eragotzi eta ikusmena galarazten zidaten. Zuritasun hutsez sortutako argia, ezti-koloreko uhinez, bere kualitate likidoz distiratzten zuena. Ez nekien non nengoen, baina gustukoa nuen eta aldi berean halako beldur bat zekarkidan. Eta nondik mintzo zitzaidan Loew errabinoa? Haren ahotsa hurbilagotik ala urrunagotik entzuten nuen eta ez nuke asmatuko nondik zetorren. Ongi galduta nengoen. Oihu egin nuen:

—Errabino Gorena? Ni naiz, Puppa, galdu egin bainaiz! Non zaude? Maisu? Errabino Gorena!

Ahotsak jarraitzen zuen, ostera hariari helduz:

—Mailu-kolpearen eraginez, pitzatu eta ertz bat galdu zuen Moisesen bekainak: jada zuzentzerik ez zegoen inperfekzio bat. Munduko argira etorri berria, eta jada bere perfekzioa bere sortzailearen exijentzien erruz apurtua. Moisesen marka ezabaezina akats primigenioa dei genezake, jatorrizko akatsa: eta ordea ideia absurdua besterik ez zen izango. Ez al duzu uste, Puppa?

—Maisu? Errabino Gorena, ikusten al nauzu? Nik ezin zaitut ikusi, maisu, eta ez dakit non nagoen! Lagundu, maisu!

Ostera sentitu nuen, oso hurbil, ahots borobila:

—Akats handia, behar bada akats bakarra, erru-nozio krudel eta ergel hau da...

Eta nire ondo-ondoan hosto-murmurioa eta adar-karraska entzun nuen, eta nire ezkerretara pare bat metro, goroldio-putzu bat ikusi nuen, norbaitek aurrera egin nahi eta ni nengoen tokiraino iristeko zeharkatu nahiko balu bezala. Eta bihotza irekitzen zitzaidala sentitu nuen eta irribarre zabal-zabal batek aurpegi aztoratua lasaitzen zidala, eta besoak erdi zabaldu nituen, Loew errabinoa besarkadarik anaikor eta sentikorrekin hartzeko prestatuz.

Eta orduan goroldio-putzua errezel modura ireki eta haren errailetatik munstroaren estanpa higuigarria sortu zen.

Oihu egin nahi izan nuen, baina ahotsa ito egiten zitzaidan, korrika aterako nintzen, baina igitai batek hankak, gerri aldetik, moztu balizkit bezala zen. Munstroaren begi gardunak nire ninietan josten ziren errukirik gabe; ahotik isurtzen zuen bafada kirastunak burmuina presionatzen zidan ura ateratzeko ponpa baten erara. Une batez pentsatu nuen nahiago nuela hiltzea toki ezezagun hartan munstroarekin aurrez aurre topatzea baino. Baina, bat-batean, besoek erantzun egin zidaten: ezpata zorrotik atera eta guardian ipini nintzen, armaren muturra lasturaren aurpegi grisetik arra betera. Iragarpen guztien kontrara, munstroak pausoa gelditu zuen nire mehatxua ikusirik, bekain zurituak zimurtu eta kurrinka egin zuen galdera modura-edo. Besoak, konkorreraz beteak, jaitsita mantentzen zituen, eta burua eta gorputz zornatuak alde batera okertuta. Asto nekatu batek bezala hatsankatzen nintzen, begietan malkoak neuzkan, eta listua apur ttikiz ateratzen zitzaidan aho-ertzetik; baina aldi berean, nire urdailaren hondotik, nire birilitatearen toles intimoenetik antsia hura, jada galdutzat eman eta hainbat deitoratzen nuen koldar-alderdiarekin ordezkatzeko nuen sen predatzaile hura, birsortzen zitzaidala sentitzen nuen. Akabatu nahi nuen munstroa, hura izan arren egingo nuen azkena. Baina oldartzeko prest nengoelarik, berdetasun hezearen barrutik, pitzia sortu zen toki beretik, Loew errabinoaren figura lasaia agertu zen.

—Jaitsi burdina, Puppa.

Zalantzatan nengoen, maisuaren agertzetik munstroaren anomalia ustez inofentsibora egiten nuen jauzi, eta aurpegia desdoitzen zitzaidala nabari nuen. Errabinoak errepikatzen zuen:

—Jaitsi ezpata, Puppa. Ez iezaiozu kalterik egin, berak ez dizu egingo-eta: hau nire semea da, nire kreatura. Golem da hau.

—Go... Golem? —totelka, erantzuten nuena sinistu ezinik.

—Golem —errepikatu zuen Loew Errabinoak, irribarretxoak abiatzen zuelarik—: Talmudaren arabera, arimarik gabeko arima, Adan bezala bere bizitzako lehen hamabi orduetan. Adan bezala baita ere, lohiz moldatu nuen nire eskuekin, eta bizitza eman nion ahoan Jainkoaren izen sekretuetako bat idatzita daraman paper-mutur bat sartuz. Eta galdetu baino lehen, abisatzen dizut ez dizudala errebelatuko zein izen den gauza inanimatuei bizi-arnasa emateko propietatea daukan hau. Nire aztoramendua erabatekoa zen. Munstroari begiratu nion, Golem deituari alegia, zeina bere so izugarriarekin begira baineukan eta, bere gorpuzkera traketsaren jarrera babuarekin. Gutxika-gutxika ezpata jaitsi nuen: ebidentziara makurtu nintzen horrela eta edozein gauza asumitzeko prest agertzen nintzen. Loew Errabinoak irribarre handi batekin aurrera egin eta besarkatu egin ninduen.

—Puppa maitea, gure azken enkontruan izandako eztabaidaren korolariora daukazu zure begien aurrean. Ikusten duzu, adiskidea: gauza kausatuak eta printzipiatuak ezagutzeagatik ezin dugu esan kausa eta printzipioa ezagutzen ditugunik, ez eta kausa eta printzipio hurbila ere. Erosotasun

edo koldarkeriagatik sinistu nahi izan dugunaren kontra, ez dago kausa eta efekturik kreatzailearen eta kreaturaren artean. Ez dago loturarik, eta, loturarik ez dagoen tokian, ezin da agindurik egon. Sinpleki bizitza sortu egiten da, izakiak jaio egiten dira, eta hitzak animatu egiten ditu: prozesu infinitua da, ez kausatua, prozesu naturala, zeinaren purutasuna arazotik kanpo geratzen den.

Asoziazio bitxiren bat tarteko, Antoni dukearen azken hitzak etorri zitzaizkidan burura: triste jarri nintzen Laido gogoratuz, dukearen sarraski batean hila bera, eta kezka handia sentitu nuen Morelagatik eta bere semeagatik, oso probableki nirea ere baibaita, Gazteluko ziega sufretsuetako batean lurperatuak eurak. Baina errabinoak bere diskurtsuarekin jarraitzen zuen.

—Nondik inferitzen den, nire adiskide maitea, erru-nozioaren falazia: ez gara errudunak, Puppa, bizitza ez da erruduna: Idazkietan dauden akatsetako bat besterik ez da. Zeren, errabino eta gizon jakintsu gehienak hori onartzeko prest ez dauden arren, Torak akatsak dauzka: Eskriba onak, zeinari Jahvek bere Hitza diktatzen zion —azken finean, gizaki bat zen, eta, beraz, hutsegile—, bere garaian egindako distrakzioen emaitza dira. Eta Toraren akatsen irakurketa txarra da, eta batik bat erruari dagokiona, kristautasuna bezala ezagutzen dugun herexiari bide eman ziona. Begira bizi ditugun garai nahasiak, Puppa, begira hasteko zorian dagoen eta gu guztioi debastazioa eta lotsa besterik ekarriko ez digun gerra hau, belaunaldiz belaunaldi mendeetan barrena komunikatuko den lotsa. Begira liskarretan dauden bandoak, eta esadazu denak (katolikoak, lutertarrak, calvindarrak, husitak— ez zote diren errukigarri eta lastimagarriak.

Ostera begiratu nion Golemi, jada lasturarik gabe, baina oraindik zurtuta. Munstroak irribarre egin zidan begiradarekin, ahoa ireki eta marru-moduko bat atera zuen. Loew Errabinoak ostera egin zuen irribarre:

—Bi motiboengatik erabaki nuen Golem eraikitzea: alde batetik, trikimailu eta konspirazio politiko-inauterian errepresentatu dudana papera kitatzeko, azken finean ez baitu ezertarako balioko, antzeman zitekeen emaitza, banitateagatik edo irrikagatik, beranduegi izan den arte asumitu nahi ez dudana. Eta beste batetik, benetan sinisten dudana demostratzea ahalbidetzen zidan: gizakiak, Gorenaren irudira eta itxurara eginak hain zuzen, sormenerako gai direla, eta horrek Gaizkiak esleitu nahi digun edozein akatsetatik salbatzen gaitu. Eta hementxe daukazu: nik sortu dut, nik moldatu dut bere gorputza eta bizitza eman diot, nahiz eta oraindik ez naizen gauza izan adimen, ahots eta edertasunarekin osatzeko, eta horregatik ematen dizu higuina. Aldiz ez da higuingarria: bizia da, jatorrizko indarraren adierazpen nabarmena da, eta zuk eta nik bezala, eta izaki bizidun guztiek bezala, dibinitatearen atribuzioak partekatzen ditu. Zoritzarrez, ordea, bere ahotik izen idatzia daraman papera atera eta aldi baterako lo uztea, nork daki betiko, beste erremediorik ez dut edukiko...

Errabinoak azken hitz hauekin zer esan nahi zuen intrigatzen ninduen, baina beste galdera batek kezkatzen ninduen oraindik:

—Non gaude, maisu? Zein toki da hau?

Begirada adeitsu bat bota zidan, esku bat hartu eta esan zidan:

—Etorri nirekin, Puppa. Bada hemen zure zain dagoen norbait, zure galderei nik baino hobeto erantzungo diena.

Eta bera eta Golem atera ziren goroldio-putzu handirantz gidatu ninduen, eta azken hark ere bere mugimendu eztrebeekin jarraitzen zigun, zeinak halako samurtasun bat probokatzen hasten zitzaidan, haurrek eta animaliek sorrarazten dutena bezalakoa. Goroldio barruan sartu eta itsumustuan ibili ginen haren barruan: horma begetalen ikutu labainkor eta organikoa nabarmentzen nuen, plazentakoaren antzekoa. Horrela ibili ginen luzaroan, harik eta azkenean beste muturretik kanporantz atera ginen, eta bat-batean sinisten ez nekien beste eszenatoki batean geunden.

Nekosta zuzen eta altuetako etorbide bat zegoen, kono zorrotz eta guzti, bere naturak berez eskaintzen zuen hostotza mardulekoa, distantzia egokian ordenatuki ipinita. Zorua, nibelatuta, alde guztietatik inkonte-belar oso-oso berdez estalita zegoen, zeinaren barruan loretxo urdinska bereziak zeuden. Bide eder hark, lau estadio luze eta zabalero egokikoa, itxitura berde batera

zeraman zuzenean; nekostak maila berberean bananduta zeuden haren irekidura arte. Itxitura hartara iritsi ginenean, konturatu nintzen alboak berdin-berdinak zituela, horma zuzen baten antzeko hiru hegalekin, bideko nekosta altuenak beste altu. Hostotza sarriko zidrondo, laranjondo eta limoiondo ederrak zeuden, elkarren ondo-ondoan trebeki ipinita. Erdian zuhaitzek berberak osatutako arku bat zeukan atea zegoen, ikusgarri hartako egileak hain trebe kurbatuta, ez baitziren gehiago kabitzen. Gainean, eta dagokion tokian, ordenatuki banandutako leiho batzuk zeuden. Gainazalean ez zen enborrik ez adarrik nabarmentzen, baizik hostotza loretsuen berdetasun alai eta atsegina besterik ez zen. Orri mardul eta bizien artean mandarina-lurrin sotila jariatzen zuten lore zuri ugari zeuden, eta begi desiratsuen aurrean fruitu berde eta heldu ugari ageri ziren. Jarraian, ez harridurarik gabe, ikusi nuen beheko alturan adarrak halako trebetasunez batuta zeudela, denen gainean eroso ibili zitekeelarik, eta barrutik ibiliko zirenak ezin ziren ikusiak izan, batutako adarrak trinkoak baitziren.

Loew errabinoa eta biok, Golem baldarrak jarraituta, itxitura berde eta hain atseginean sartu ginenean, begietara oso-oso ederra eta adimenerako estimagarria bera, beste klaustro dotore bat aurkitu nuen inpresio sakona eman zidan tenplu zabal-zabal baten aurrean: patio begetaleko laugarren hegala hartzen zuen estilo gotikoko eliza bat zen, bere arkitekturaren joko simetrikoengatik nabarmena. Gutxienez hirurogei urratseko neurria zeukan, baina atentzioa gehien-gehien erakarri zidana zen, beso eta hanketako biloak lastu arte, dena giza hezurrez eraikita zegoela (gutxienez hori ematen zuen aditzera bere fatxada latz eta zorrotzak). Hura ikustean, isildu egin nintzen, bat-batean iruzkinik ñimiñoena egiteko ezgai.

Bestalde, oso gune nabarmen honen erdian zilarrezko urak zeuzkan egundoko iturri kantaria zegoen, finezia handiko turrusta ugariren bidez ia itxitura berdearen alturaraino igo eta amatistaz zizelkatutako katilu zabal batera jausten zirenak. Katilu hura fundizio ederreko erliebearekin hornituta zegoen, izaki akuatiko kapritxosoak errepresentaturik, obra ikusgarria eta Dedalo bati zegokiona; eta jaspezko kalostra miragarri baten gainean modu jakintsuan ipinita zegoen, akuamarina kolore arreko kalzedonia aratzez tartekatua: oso faktura noblekoa, lepo estuko bi ontzi zeuzkan, bata bestearen gainean kokatuak, korapilo bikain batez bananduta. Kalostraren inguruan, katilu edo moluskuan behera, plintoaren aurrean —ofitaz egina bera— urrezko lau harpia bere hatzamarrekin. Kalostrari bizkarra emanda zeuden eta elkarren aurka ipinita, eta bere hegala zabalduekin bioleta-koloreko katiluari eusten ziotela zirudien; dontzeila-aurpegia zeukaten eta adatsak bizkar gainean erorita; beren suge-isatsak, kiribildu eta muturrean hosto hedatu ugari bihurturik, arazorik gabe lotzen ziren beheko ontziarekin, modu harmoniotsuan.

Amatistako katiluaren erdian eta kalostraren lerroari jarraituz, beste ontzi bat zegoen ahuspez, alboen mailatik irtena, beren alboek hondoari zegokionean egiten zuten bezala. Bere gainean idulki polit bat zegoen, eta haren gainean, hiru Graziak biluzik, neurri naturalean urte fin-finean zizelkatuta, euren artean batuta. Euren bularren titi-buruetatik ura sotilki jariatzen zen, zilar errauskara, liso eta ditziratsuko haritxo-forman, Txipre irlako harri-toska zuri-zuritik destilatuak balira bezala. Bakoitzak eskubiko eskuan oparotasun-adar bat eusten zuen, beren burutik gorago ateratzen zena: hirurak dotorezia handiz batzen ziren zirkunferentzia bakar batean, eta hainbat fruituz eta hostoz beteta zeuden, albo edo ezpainetatik kanpo isuriz.

Eszenatoki entretenigarri hura kontenplatzen nuen nik zer esan jakin gabe, mutu eta aho zabalik, hain handia baitzen inspiratzen zidan miraria. Loew errabinorantz biratu eta zuhurki irribarre egiten zuela ikusi nuen, aditzera emango balitz bezala, oraindik zera harrigarrienarekin topo egin behar nuela, eta Golem bera, bere ergeltasunean, hainbat edertasun eta eskuzabaltasunean, jostatzen zela zirudien. Orduan Loewi esaten entzun nion: —Atera zaitezke Berorren Gorentasuna.

Nire harridurak txundidurari egin zion bide, iturri kantariaren atzetik hiru Grazien talde zoragarriaren tartean, Maria printzesaren figura maitagarria atera zenean, kerubin-saldo batek nire begien aurrean ipini balidate bezala. Zeru-koloreko tunika sinple bat zeraman soinean, kordel urrekara batekin bular azpian delikatuki lotuta, eta pare bat txapin zeramatzan, oin delikatuen filigrana haragiztatua agerian utziz. Maiestatetsu abiatu zen guregana urrats hegalariz eta herabetasunezko irribarre batekin bere aurpegi erabat gorritua argiztatuz. Konturatu nintzen ni

ere gorritu egiten nintzela, lehertzeko zorian dagoen tomate heldu baten antzera, nire aurrera iristean printzesa gelditu eta begietara so eginez, esan zidanean:

—Ikusi eta zurekin hitz egin nahi nuen, Puppa. Ez nekien nola egin, eta horregatik eskatu nion gu bion aholkulari komunari, Judah Loew ben Bezalel Errabino Gorenari, enkontru hau presta zezala. Berak diskrezio eta onarpen handiarekin onartu izanari zor diogu aukera honen poza.

Loew errabinorantz biratu nintzen nire eskerronik bihozkorrena adierazteko asmoz, baina soilik lau berba toteltzea besterik ez nuen lortu.

—Maisu... hain, hain... eskertuta...

—Bakarrik uzten zaituztet —moztu zidan Loew errabinoak irribarre erabat jostariarekin. —Orain ez nauzue behar, eta beste aldetik, zeregin bat daukat egiteke Golemekin— eta begirada azkar, errukiz betea, zuzendu zion munstroari, zeina txorien kantu polifonikoarekin eta hego hori-beltzeko pinpilinpauza handi baten hegaldi azarotsuarekin, liluratuta baitzegoen—. Gizajoa...! Intziri egin zuen Loew errabinoak, eta ondoren, Golemen hatz deforme eta lohitsueta bat hartuz, erantsi zuen:

—Goazen seme, hemen sobran gaude.

Eta irribarre egiteari utzi gabe, errabinoak bizkarra eman eta nekosta-etorbiderantz abiatu zen, munstroaren alboan, zeina bere sortzailearen bikoitza zen garaieran eta handitasunean, baina haren alboan murrizte-efektua egiten zuen kurioski. Urruntzen ikusten genuen bitartean, ostera inoiz ikusiko ez nuen aurreikuspena izan nuen, eta une batez malenkonia sakon eta ilunak harrapatu zuen nire espiritua. Hala ere, pentsamendu ilunak bat-batean desegin ziren Maria printzesa nire alboan neukala gogoratu eta, nire aspirazioen gailurrean han geundela, berak, nire aurrean egotearren, maniobra antolatzea erabaki zuelako. Orduan Mariak, oraindik gorriturik, esan zuen

—Mesedez, etorri nirekin, Puppa. Eser gaitezen banku hartan.

Eskatzen zitzaidana egin nuen eta, Mariak esan zidanez, Faetok gidatutako Eguzkiaren Txalupa errepresentatzen zuen boliz zizelkatutako banku eder batean jesarri ginen. Bankua bere itzalarekin suspertu eta lehen, intentsoegi eta beroegi, toki guztietan zuzenean jausten zen argi zuriago eta distiratsuago batetik bakartzen gintuen pergola baten azpian geunden. Han-hemenka erreka eta jauzi ttikitak lasterka zihoan ur gozoaren zurrumurru garbiak kulunkatzen gintuen. Bat bestearen alboan eserita geunden, bi nerabe lotsati bezala, hitz egiten hasteko aitzakia egokirik otutzen ez zitzaidalarik. Bat-batean, oinkada dotore eta diskretuekin, lehen aldiz Frederiken aurrera, Tronuko Aretoan, aurkeztua izan nintzen egunean Mariaren besoetan ikusi nuen setazko ilajeko katu hura azaldu zen eszenan. Presarik gabe guregana hurbildu eta printzesaren oinetan uzkuritu zen. Eskuekin hartu eta bere magalean jartzeko makurtu zen printzesa, eta orduan, isiltasuna apurtzeko baliatu zuen mugimendu hura, gu geunden tokiaz eta hola nire susmoak baietsiz informatzeko.

—Lorategi Fosforeszentean gaude, Puppa, zeinari buruz Errabino Gorenarekin elkarrizketaren batean interesatu zinen. Ongi, agian ezagutzen zenuenez, toki hau Giuseppe Arcimboldo maisuak Berorren Maiestate nire aitaren eskariz asmatu zuen, zeinari aita erretratu batzuk ere enkargatu zizkion, eta italiarrak modu miragarrian egin zituen, erregearen hazpegiak osatzeko frutak eta ortuariak erabiliz. Hau izan zen aita Arcimboldori egindako enkargu zehatza: “espazioz kanpoko espazio bat eta denboraren tiraniatik aske, atomoen sakabanaketarako eta espirituaren kontzentrazioarako egokia”. Eta haxe duzu emaitza: neurriz kanpoko dimentsioko lorategi bat —arimaren eta giza desioen neurria baitauka—, eta, beraz, edozein tokitara garraiagarria eta berreraikigarria, ez baita existitzen berehalako pertzepzioaren muga arauemailearen arabera, baizik norbanakoen imajinazioaren, sentimenduaren eta borondatearen bulkadetatik abiatuta sortzen da. Hemen, naturaren fenomenoak —argia, zuhaitzak eta landaredia, flora eta fauna— arimaren edukien eta norberaren nahien arabera ekoizten dira. Etengabeko eraldaketa-prozesuan dagoen lorategia da, eta, norberak ez badu bere burua ezagutzen, alferrik da ematen duen hurrengo pausoan zer aurkituko duen asmatu nahi izatea. Nik-neuk ez dut inoiz ziurtasun erabatekoaz ibiltzerik lortu, baina ohar zaitez, Puppa: bere baitan hartzen gaituen deskribaezinezko edertasuna daukan itxitura hau gure espirituaren, zurearen eta nirearen,

elkartzearen ondorioz sortu da... Lorategia estaltzen duen luminiszentzia malbari dagokionez, magia-truku bat besterik ez da, Arcimboldok berak, estaldura babesgarri modura, asmatutako ispilu-dispositibo handi baten errefrakzioaren efektua: itxitura honetara, aldi berean sakratua eta profanoa bera, uneren batean sartzeko tentazioari amore eman ahal duten arima inpuruentzako disuasio-efektuko elementu bat da. Urrunago joan gabe, argi-malkoak zu lehen unetik erakarri zaituen bezala —eta horrek zure pertsonarekiko nire interesa biderkatu du—, Antoni dukeak sekula ez du ezkutatu dakarkion higuina...

Azken hitz hauek tonu progresiboki tristean eta aurpegiaren espresio ilunarekin esan zituen Mariak. Horrek azkenean zer bait esatera bultzatu ninduen:

—Zure aurpegiak samina adierazten du, anderea.

Maria isilik egon zen minutu batez, begiak ur aratzez oparo zen iturri kantariko hiru Grazien bularrei begira galduta. Gero niganantz biratu zen eta, ni bere begi-nini berdeen distirarekin argiztatuz, esan zuen:

—Berorren Maiestate nire aita gajoa eromenaren setioaren mende dago modu gupidagabea, justu orain denok haren argitasunaren premia handiagoan gaudenean. Horrek Antoniren anbizio eznoablearen mesedean dago, zeinak erregearen ahultasunaz baliatzen den probabilitate guztien arabera galduko dugun baina erregeordetzara eramango duen armistizioaren sinaduraren bat edo itunen bat ahalbidetu baitezake, oinordekotza-lerroan nire tokia betetzekotan ezkontzeko baldintza inposatzen didan lege salikoaren iraunaldiaz baliatuz. Zentzu horretan, Antonik printzipe ezkontide bihurtu eta Palatinatuko eta Lobkowitz-Lorenatarren arteko auzi zaharra itxiz, nirekin ezkontzeko plana erregeak eta nik-neuk behin eta berriro zapuztuta ikusi duenez, eta bere burua Etorkizuneko Erreginaren Maitale-kargutik zuk kenduta ikusirik (une honetan ni izan nintzen gorritu nintzena), bere komandanteburu posizioaz baliatzea erabaki du, erregea saihestu eta oinordekotzatik ni baztertzeko. Beste hitz batzuekin esanda, ez banaiz berarekin ezkontzen, ez naiz beste inorekin ezkontuko. Antonik ahal izan duen guztia egin du aitari ideia hau sartzeko, zoritxarreko ondorio honekin, alegia, erregeak, ni senar bati eskaintzeko aginduarekin beti bezala jeloskor, eta materia inanimatuari bizitza emateko Loew errabinoak daukan obsesioaren aurrerakuntzez jabeturik, ni Golemekin ezkontzea erabaki du!

Nire aurpegia zurbiltzen sentitu nuen. Eten egin nion Mariari:

—Golemekin? Zu harekin ezkontuta...? Baina, nola otu zaio halako astakeria?!

—Bere eromenean, Berorren Maiestate nire aitak dio munstro hura nitaz arduratu eta bere heriotzaren ondoren errege izateko gizon perfektua dela... Golem gizon berria dela mantentzen du, garaien gauetik gure espezieak metatzen dituen akats eta inperfekzioetatik garbi. Artearen, zientziaren eta magiaren semea, ametsaren inperiorako mandatari ideala... Bestaldetik, soluzio aberrante honek Antoniren haserrea ekarriko du, asmaezinezko ondorioekin... Horregatik, betetzera behartuko duen ediktuaren forma hartuko duen erabaki hau baino lehen, Loew errabinoak oso xede desberdinekin sorturiko bere kreaturea desagitea erabaki du. Errabino gajoa, enpresa honi jarraituz bere jakinduriaren eta bere bizitzaren onena hondatu du, eta orain, arrakastaz burutu ondoren, hain emaitza maitatua desagitera beharturik dago gorteko azpikeriengatik. Baina beharrezkoa da, ez dago atzera bueltarik.

—Eta erregina...? —iradokitzen ausartu nintzen.

—Sorgin ninfomano hau —erantzun zuen printzesak destaina nabarmenez— bere likiskeria asetzeko besterik ez da bizi, eta, erregearen emazte legítimo bezala, nire aitaren permanentzia tronuan zuritza mugatzen da. Jauregiko beste aferei dagokienez, ahal duen beste mantentzen da bazterrean, eta bere baledizko eragin edo iritzia ez du inork kontuan hartzen. Eta agian hobeto horrela...

Jarraian, Joana erregina aipatzean galduriko neurria berrartu zuen Mariak, eta orduan bere hazpegiek edertasun proportzionatua nabarmentzen zuen malenkonia nabaria islatu zuten. Esan zuen:

—Beldur naiz, Puppa. Loaldian zein esna-aldian, gure mundua hondoratzeko zorian dagoen intuizioa gailentzen zait... Eta, ttikitandik, maiz galdetu diot neure buruari zein zen nire

munduaren egia, inguratzen ninduen guztia erreala eta tinkoa ote zen ala itxura bat besterik ez, errepresentazio bat, auskalo nondik etorritako irudiak islatzen zituen burbuila hutsa...

Burua apaldu eta begiak malkoz bete zitzaizkion. Samurtasun sakona sortu zidan, eta, besarkatzen nuelarik, zuhurtziagabetasun bat egiten ari nintzen aukera deitoratu nuen. Eta orduan gertatu zen zalantzarik gabe nire bizitzan izan den gertakari garrantzitsuena: Mariak burua altxatu eta, ezpain akuilatzaile eta urrunekin, nire ahoa musukatu zuen. Musu laburra izan zen, baina ikusi ahal izan nuen nola, gertatu ondoren, klaustroko landaredi guztiak bere mardultasun ederra hirukoizten zuela. Mariaren magalera jauzi egin eta lorategi barruan urrundu zen katua, iruditu zitzaizkidan ezein bizidunik inoiz egikaritutako mugimendu segailenekin. Orduan, nire pentsamenduaren nahasmenduaren erdian distiratsu eta sendo, ideia bat azaldu zitzaidan, nire bizitza zerbait desitxuratu eta groteskoaren ordeztasun egitate perfektu, esanahi burutukoa, osoa zela, existitzeko azaretik beretik eratortzen zena. Eta beste galdera bat agertu zen: benetan *existitzen* al nintzen? Gertatzen ari zen hura guztia *erreala* al zen gertatzen ari zen motibo hutsagatik? Edonola izanda (ondorioztatzen nuen, Mariaren aurpegian, orain nirearen kontra estututa, lehen ukitu izan banu bezala, arrasto bat, hats-bitxiki familiarra nabarmentzen nuen bitartean), Mariaren presentziak edo aipamen hutsak sorrarazten zidan urduritasun hark begien bistakoa agertzen zitzaidan izen bat zeukan, maitemina alegia.

Besarkada gozoa desegin gabe, Mariak burua pixka bat atzeratu eta murmurikatu zuen:

—Zoriontsu naiz orain, baina badakit zorion honek nire aitaren begietan errudun bihurtu eta Antoniren menpe jartzen gaituela... Ikusten al duzu tenplu eder baina ikaragarri hura? —eta begiradarekin, giza hezurrez osatutako tenplurantz seinalatu zuen: nik baietsi egin nuen—. Ez ote da izango abisu bat, itxaroten gaituen etorkizunaren irudi bat?

Nigandik banandu, Eguzkiaren Txalupa utzi eta elizaren aterantz abiatu zen, bat-batean aztikerian jauzi balitz bezala. Nik jarraitu egin nion, edozertarako prest.

Tenpluko ateak modu espektralean ireki ziren, albora iritsi eta gurutzatu genituenean. Fatxadak aldarrikatzen zuena ilunpean murgildutako barnean baiesten zen: lurra, hormak, arkuak, zutabeak, kaperak eta baita lanparak, belaunaulkiak, erregailuak eta hiru sekzio eta aldare atzean kokaturiko erretaula handi bat, Azken Epaietako azken eszena errepresentatzen zuena (erdiko sekzioa Jainko Pantokratorraren irudiak betetzen zuen osorik, eskubikoan berriz justuak eta salbatuak ikusten ziren hodei onbera eta aingeru arpa-jotzailez inguratuta; ezkerreko sekzioan madarikatuak eta irredentoak zeuden, garren artean erre, infernuetako basatza betierekorantz pasarazteko zorigaiztoko gorputzak sardeekin presionatzen zituzten deabru adardun eta deforme pila baten isekak inguratuta), hura dena beldur ematen zuen lepauztai, tibia, burezur, saihest-hezur, bularrezur, bizkarrezurreko medula, perone eta hezur sakroz egina eta eraikia zegoen. Zehazki aldareari zegokionez, oinarri guztia burezurrez eginda zegoen eta, beren dimentsioak kontuan hartuta, oso adin ttikiko umeenak ziren. Zenbat hil behar izan ziren monumentu hura Jainkoaren suminari eta gizaki guztien destino ukaezinari eskaintzeko? Eta zer egiten zuen, zer esan nahi zuen, Lorategi Fosforeszentearen miragarrien erdian kokatua egoteak? Tenpluko barrualdea ahul argizatzen zen hezur zurituen distirarekin, zeinei, berniz modura, usteldura atzeratzen zuen konposatu kimikoren bat aplikatu zitzaien. Baina hura ere *erreala* al zen?

Bat-batean Maria agertu zen kaperak haletako baten barrualdetik, eskuetan alaitasun handiz liburu bat eutsiz. Keinuka erakutsi eta esan zuen:

—Ikusten al duzu liburu hau, Pupa? Hemen barruan aurkitzeko intentzioa neukan, eta halaxe gertatu da. Horrek esan nahi du salbatuta gaudela, arrisku guztia haizeratua izan dela. Ez al dakizu zein liburu den hau, Pupa maitea? Inoiz ezein gizonek idatzi duen liburu garrantzitsuena da. Homero zeritzan greziar itsu baten obra da, nahiz eta bere benetako nortasuna legenden sekretu barruan galtzen den. Odiseoren, Ulises deituriko Itakako erregearen, ibilkerak kontatzen ditu, zeina infernura jaitsi eta itsasoarekin eta hildakoen arimekin eta izaki jainkotarren boterearekin borrokatu zen, etxera itzuli eta zegokion tokia betetzeko. Erredentzioaren liburuak da hau, eta eta hemen zegoen gure zain, ulertzen al duzu, Pupa?

Mariaren exaltazio zoriontsua ospatu nuen liburua bere eskuen barrutik hartu eta aztertzen hasi nintzen bitartean. *In quarto* eginiko liburuki bat zen, potoloa, kualitate txarreko paper-orri gaizki josiak zituen, txerri-azalekoa zirudien larru zakarrez forratutako tapaz koadernaturik. Niri mintzatzen jarraitzen zuen Maria:

—Ukitu ezazu, Puppa, ohitu zaitez bere ukitura irakurri aurretik, eta egiten duzunean, ez utzi determinazioz eta arduraz ukitzeari: instrukzioaz gabetzeko injustizia egin dute zurekin, liburuak maitatu eta haiek maita zaitzaten jaiotako gizon bat izan arren —une batez isilik mantendu eta gero erantsi zuen, bere baitarako hitz egingo balu bezala—: funtsezkoa da liburuak gu babesten uztea, gure azal hilkorra liburuaren azalean dagoen zera iraunkor hartaz zopatzeko uztea...

Ez dakit zer gertatu zen Mariaren ahotsaren tinbrean, bere jarreran, bere suhertasunean Homero haren liburuaren presentzia aurrean, baina zerbaitek ezabatu zuen nigan edozein herabetasun-arrastorik edo formalitateekiko ardura, eta aldiz han bertan, eliza beldurgarri hartan, nire egiteko desira eutsiezina esnatu zuen. Liburukia hatz-falangeak ziruditenez eginga zegoen atril baten gainean utzi nuen, basatiki besarkatu nuen Maria eta, instant batean, haren tunika erantzi eta bere gorputz bikaina begietara eta eskuetara eskaintzen zitzaidan, pisurik gabeko granada antzeko bular haiek, sabel liso eta bero hura, atsegin amaigabe eta kontaezinak promesten zituzten hanka haiek. Mariak nire oldarrari musu- eta hozkada-jasa izugarriarekin erantzun zion, makurtzen zelarik jada lizunkoi, aldare gainean likiskeria noble eta urduria erakutsiz. Nik ere nire armak eta jantziak erantzi nituen, eta delirioraino egarriz aldare izoztuaren gainean igotzen nintzelarik nire gorputza printzesaren gainean luzatzeko, belarrira sukartsu murmurikatzen zidala entzun nuen:

—Ez dakizu nola desiratzen nuen une hau iristea oihal-etxolako gauaz geroztik.

Vor der Abstraktion ist alle eins –aber eins, wie das Chaos– nach der Abstraktion ist wieder alles vereinigt –aber diese Vereinigung ist eine freie Verbündung selbständiger, selbstbestimmter Wesen– aus einem Haufen ist eine Gesellschaft geworden –das Chaos ist in eine mannigfaltige Welt verwandelt.

Beraz, ikusten duzue gazte lagunak, tabernari koipeztoa, nola koadernatzaile enigmatikoaren historia itzulerarik gabeko puntura iristen zen. Norekin etzan zen fortuna-bilatzaile gaztea gau hartan ijitoen oihal-etxean, Morelarekin ala Mariarekin? Norekin egiten zuen soldaduak sakrilegoki maitasuna Lorategi Fosforeszenteko bihotz sekretu-sekretuan eraikitako hezurretako aldare gainean? Ala ez al dizu behatzea merezi, ekarpenen bat zure partetik? Norentzat hitz egiten dut, orduan? Kaparraz kargaturiko katu honentzat? Tabernari, non sartu zara? Ala beraz denak lotan zaudete?

—Ez daude lotan, txo, egon ez daude. Beti nahasten zara.

—Nork...?

—Noiz utziko diozue gure burua nahasteari?

—Puppa...?

—Oraintxe. Hemen nago, zutik lan-mahaiaren aurrean, zure hankako larruazal onduari ukendu-eta albumina-geruza bat emanez bizkarreko eta tapen kartoiaren oinarri gainean finkatu baino lehen, ostera zuen txorakeriak entzuten ditudan bitartean. Beti nahasmendu berbera, txo: su ttikia berbera da, eta ekaitz berberak jotzen du gure etxola ankerkeria berberarekin, baina hemen ez dago tabernarik, ez tabernaririk, ez edateko lagunik. Hauek denak ametsei buruz mintzatzen zaizkizu, txo. Ez daude. Hemen zu eta biok besterik ez gaude, eta gu nahastu nahi gaituen deabrua. Baina nik aski hitz egin dut eta orain lanean kontzentratu beharra daukat: egiten dudana bitartean, zuk amaitu historiaren azalpena.

—Baina...

—Ez, jada ez dute aitzakiek balio. Aski presentzia asmatuez, artifizioez, figura tartekatuez...! Hemen kontua zure eta nire artean ebazten da, txo, eta hemen gero eta gehiago egon nik egin behar dudana egin gabe, okerrago biontzat. Beste behin errepikatuko dizut: nire historia zurea

ere bada, beraz amai ezazu azalpena mesedez, izan ere horrela nire lana bukatzen saiatuko bainaiz.

—Ez dut asmatzen...

—Lagundu iezadazu behingoz, mesedez.

Eta Puppak esan zuen:

—Ados.

Incipit fabula

edo

Ekaitza

Infanteriako tropen talka Mendi Zurian giza begiek ikusi duten odoltsuenetakoa izan zen. Edonora begiratuta gizonak ditut gogoan oker-oker eginda, nola kainaberak haizetean, hil urrenak erraien multzoari eskuekin eutsiz elurraren zuritasun inpolutuaren gainean betiko erori baino lehen, zeina altzairuak eta berunak irekitako zaurien gorritasunak tindatuz zihoan. Harkaiztien eta labarren isiltasun zirraragarria gogoratzen dut, zaurituen intziriek eta borrokalarien oihuek apenas aldatua: atzeraguardiako arkabuzen eta kanoien detonazioak moteltzen zuen isiltasun hura, kotoizko izpiak eta gasazko malutak jaurtiko balitu bezala, bataila osoa inguratu eta figura ñimiño—ia inurri odolzale, zuri eta beltzak, zergatik jakin gabe euren artean elkar irentsiz, gu baino izaki gorenago eta boteretsuago baten aurrean, gure inmolazioa sorgor ikusten zuena—bihurtzen gintuen isiltasun beti bat hura. Egun hura gogoratzen dudak bakoitzean, gogora etortzen zaidan lehena Mendi Zuria da, osoro elurtua, osoro isila, bere isiltasunaren beloarekin, bere oinetara, elkar txikituz, jausten ziren inurri haien guztien alde halako hileta-kantu bat, agian errukizko hitzen bat, hedatzen zuelarik.

Zatika gogoratzen dut nire parte-hartzea hilkintzan. Hura ere gogorapen isila da, ahotsik eta zaratarik gabea, aurpegia estali eta begiak itsutzen zizkidaten odol-zipriztinen, aire geldian hedatutako bolboraren, bularrean eta sabelean eta galtzarbe azpian izozten zitzaidan izerdiaren usainek lurrindua. Laster abiatuko zen zurrunbiloaren haize-zirimolak altxatzen ziren aldika, eta orduan haizeak beste daga batek bezala moztu eta soraio bihurtzen gintuen. Ez nekien zenbait zauri metatzen nituen, ez eta zenbateraino ziren larriak; nekien bakarra zen ez nengoela hilda, borrokatzen jarraitzen bainuen. Begiak hustu nituen baionetarekin, sabelak eta sorbaldak txikitu nituen sablearekin, burmuinak lehertu nituen arkabuzarekin eta pistolarekin. Ostera agertzen zen ni beti izandako hiltzailea, orain jada zalantzarik gabe, bere distira osoan, eta liskarraren erdi-erdira bultzatzen ninduen botatako arerio bakoitzak nire bizitzako une bat adierazten zuen konbikzioz: gogoratzen naiz hori pentsatzen nuela. Eta gogoan dut baita ere, kolpe eta oinazeen erdian, Mendi Zuriko hotz eta isiltasunaren erdian, odol- eta hilotz-dantza makabroaren erdian, gertakariak haraino eramanez ninduten forma berregiten saiatzen nintzen.

Mariarekin Lorategi Fosforeszentean gertaturiko atal zoragarriaren ondoren gogoratzen dudak lehen gauza da —nola jakin gabe, nire logela, ganbera lotsagarri hura, non zakur batekin egingo luketen modura gauetan sartzen ninduten— zegoen patioko zabalunean egotea. Zehaztugabeko ordu bat zen, argi neutro bat flotatzen zuen gauzen gainean argitu gabe, eta auskalo arratsa ote zen ala egunsentia hurbiltzen ari zen. Nahasmenduan harrapatuta sentitzen nintzen, baina ezohiko egoerak onartu beharraz ohituta, logelara joan, bertan itxi eta laburbiltzea erabaki nuen. Ez zitzaidan hain erraza gertatu: nire logelatik banantzen ninduten ehun metro baino gutxiagoko haietatik bat eman nahi izan nuenean, ostera errepikatu zen Tronuko Aretoan eta Joana erreginarekin, gorputzaren mugikortasuna errepikatu nuenean, igaro nuen lehen gauean eragina egin zidan fenomeno arraroa. Tokitik mugitu gabe ibiltzeko inpresioa, edo, behintzat, ni aurrera egiten saiatzen nintzen heinean gauzek atzera egiten zuten pertzepzioak sorrarazten zidan perspektiba-efektu hura gertatu zen berriro (ala behar bada etenaldi bat zen, egitateak bat bestearen segidan, modu orekatuan, hautematen dugun denbora-sekuentziaren mozketat?). Norberaren eta inguruaren dispozizioan lotura logikoa galtzea bezala zen, nire inguruko elementuek distantziaren proportzioa eta bere egoeraren finkotasuna espazioan bat-batean galduko balute bezala. Aurrekoetan bezala, efektuak iraupen laburra izan zuen eta berehala berrosatu zen pertzepzioen normaltasuna, baina orduko hartan ganberara iritsi eta ohantze gainean luze jartzeko presatzea eragin zidan zorabio bat ekarri zidan, gutxienez oreka mantendu eta pentsamendua ordenatzeko zereginean saiatzeko ardura ez hartzearen.

Azkenean ganberako atetik sartu nintzenean, berehala konturatu nintzen ohe gainean bi objektu zeudela: bat izaren gainean, eta bestea azpian, korapilo bat eginda. Zalantza egon nintzen une batez, atea zeharkatzen ausartu gabe, bihozkada txarrenak paralizatuta.

Gero ohera hurbildu nintzen eta azkar asko apartatu nituen izarak eta manta, azpian zer ezkutatzen ote zen jakiteko irrikaz. Soldaduek kanpainan eramanez ohi duten bezalako larruzko zaku bat, goiko partean estuki lotuta, aurkitu nuen. Kolpe batez askatu eta antsietateak terroreari utzi behar izan zion lekua, ohartzean giza buru bat zeukala barruan. Nazka gaingiduz, poltsa

barrutik atera nuen adatsetatik oratuta, eta lazdurari men egin behar izan nion Loew errabinoaren hazpegiak ezagutu nituenean –zikintzen zuen odola eta desitxuratzeko egin zizkioten tortura nabarmenak izan arren–. Nire besoez eta hankeztan jabetu zen dardar bortitza mendean hartzea lortu nuenean, burua tiradera-altzari gainean utzi eta hari begira geratu nintzen. Beraz, errabino zintzoak Mariarekin prestatu zidan enkontruaz jabetu eta salatari moduan exekutatzea erabaki al zuen Antonik...? Malko garratzak isuri nituen maisu maitatuagatik, eta azken areriotasun-adierazpen modura, Antonik bere eskuz sinatutako heriotza-kondena bezala hartu behar nuelako egiazkotasuna gailendu zen tristurak eta amorruak lausotutako nire pentsamendu barruan. Orduan konturatu nintzen moztutako buruak mihian zerbait itsatsita zeukala, zeina kurrikekin erauzita izan ziren hortz eta ezpainetatik geratzen zen gainean barregarri esekita agertzen zen. Paper tolestu bat zen: bi hatzekin eutsi, Loew errabinoaren mihitik askatu eta destolestu egin nuen. Zorionez, odol-orbanek ez zituzten tinta urdinez idatzitako hitzak ezabatu. Baina bestalde ulertezinak ziren: eta ez nire ezgaitasunagatik (garai hartan gai nintzen akatsik gabe irakurtzeko), baizik eta sinpleki zentzurik gabeko hitzak zirelako, ezer aditzera iristen ez ziren lauzpabost hitz-pikor, jaioberri baten edo erabat onik ez dagoen baten hitz zezelak balira bezala. Hortaz zer egiten zuten opari makabro haren ondoan?

Orduan ohande gainean zegoen beste paketeaz gogoratu eta literalki azkartu egin nintzen hura irekitzeko. Erraz atera nuen babesten zuen estupazko fardela eta liburu bat zegoela konturatu nintzen. Bi eskuekin hartu, ireki, eta, azarez ateratako orriari so egiterakoan, berehala konturatu nintzen testua *Hypnerotomachia Poliphili* besterik ez zela, Poliaren eta Polifiloren historia, Loew errabinoak opari bezala eman zidana, hartatik onura atera eta irakurketan treba nendin. Zalantzarik gabe ale berbera zen, baina norbaitek konpondu eta egoera onera bueltatzeko ardura hartu zuen: egoki josi eta kolatuta zegoen berriro. Eta tapa zein bizkar berriak ipini zizkioten, ur berde eta urdinezko azalez tindatuta, eta lisoa: ez erlieberik, ez errematerik, ez filigranarik gabe, eta ezein titulu zein autore-izenik gabe. Zer adierazten zuen kortesia-moduko hura errabinoaren buruaren alboan...? Soilik nire *Hypnerotomachia*ren koadernazio berria begiratu eta haztatu ondoren konturatu nintzen lasturarik handiena tapa berri-berri haietan zegoela hain zuten.

Praktikan ezinezkoa da azal baten ukitua errekonozitzea koadernatzeko gai bihurtzen duten prozesu kimiko eta artisautzakoak jasan ondoren, baina txuntxur bat, espresuki gaizki ondu edo prestatutako azal-beta bat aski izan zitzaidan Mariaren azalaren testura nahasezina errekonozitzeko –oraindik ukituaren memorian gordeta baineukan–, zeina, bere aldetik, Morelarenaren berdin-berdina baitzen. Etsirik, ikusmenarekin, usaimenarekin egiaztatzen saiatu nintzen, baina alferrik: soilik ukimenak erantzuten zion laidoaren probari, ukimenak ez baitzuen gezurrik esaten, ez hutsik egiten. Konprobazioan kontzentratuta, beste beta-mota batzuen presentzia nabari nuen, azal are samurragoan eginak: inoiz Morela nire seme batez erditu bazen, haren azal zorigaiztokoa ere munstrokeria hura gauzatzeko erabilia izan zen. Morela ziega batean itxita irudikatu nuen, bere semea arratoietatik besoez babestuz, bere herrira askatasuna eta erredentzia ekarriko zuen semeaz erditu zen konbentziturik, berak eta Laidok nire agerketarekin beteta uste zuten Profeziak aldarrikatzen zuenez. Eta, Antonik azaldu zidanez, haurrari, adorea emateko, *Husitak* poemaren azken estrofa errezitatzeko irudikatzen nuen, zeinetan esku hutsez klanetako baten burua gailendu eta Morela zorionekoak, emakume guztien artean aukeratuak, Puppa izena jarri zion atzerritar anonimo batez mintzatzen baitzen nonbait. “Puppa da zure izena”, marmartuko zion gozoki bere semeari bertsoen deklamazioa etenda, “eta egun batean elkar topatuko duzue eta zuk Aro Ilunaren amaierara eramango gaituzu”. Baina Aro Iluna Morela eta bere semea azala tiratan erauzteko leotzetik atera zituztenean iritsi zen bere amaierara.

Hatzen mamiarekin txuntxur salatariak eta nire pertzepzioaren ziurtasuna indartzen ziren neurrian, hiltzeko, sakailatzeko, mina hedatzeko premia hazten sentitzen nuen nire barruan. Beranduegi iristen nintzen ulertzerik nik-neuk, minbizi bat bezala, bihotz barruan hazten utzi eta denbora gehiegi inoiz errepikatu gabeko egunsentien lamina biratzaileak kontenplatu, eta Joana Anbereseakoaren ohean lizunki lastantzen uzteko ostrazismoan mantendu ninduen

Jainkoarekiko beldur haren faltsutasuna. Eta erreginaren izena ebokatu ahala ideia bat argitu zen nire burmuinean.

Ostera zabaldu nuen Loew errabinoaren mihitik askatu nuen paper-muturra, eta ostera erreparatu nien bertan idatzita zeuden hitz absurdoei: supituki, oso argi errekonozitzen nituen. Agian ez zuten zentzurik izango, baina maiz entzunak nituen. Bere kitzikaduraren *crescendo*an Joana erreginak nekatu gabe salmodiatzen zuen errituzko formula-modukoa eta plazerraren gailurra iristean oihuka errepikatu ohi zuena zen. Sekula ez nuen jakin zer esan nahi zuten hitz haiek, zerbait zehatz esan nahi baldin bazuten, eta sekula ere ez nien puta koroatu haren edozein sorginkeria merkeetakoren bati baino garrantzi gehiago eman. Baina hantxe neuzkan, fidelki transkribatuak, eta tinta urdinez idatzitako karaktereen disposizioari begiekin jarraitu besterik ez neukan Joanaren ahots histrionikoa entzuteko, objekturik gabeko sorginkeria-klase hura errepikatuz entzuteko. Horrek liburu koadernatu berria mintzo zen kalifikaezinezko krimenaren konplize bihurtzen al zuen...? Edozein moduz, beranduegi gainditu nuen Jainkoarekiko beldurra: beranduegi Morelarentzat eta beranduegi inoiz ezagutzera iritsiko ez nintzen semearentzat. Baina ez hainbeste erreparazio bat kobratzeko (erreparazio ez nahikoa, baina uko nahi ez nuena) Antoniren, Joanaren, erregearen eta behar izanez gero Jainkoaren beraren bizitzetan: posible al zen azken buru hitz likits et zentzurik gabeko hitz haiek Jainkoaren izenetako bat osatzea...?

Gelatik irten nintzen, armak prest, bularra gogotsu mendekua hartzeko. Bazirudien argi antzu berberak planeatzen zuela patioko zabalunean, baina jada ez zegoen hutsik: erdi-erdian oholtza bat jaso zuten tarima batekin, komedia bat antzeztuko balitz bezala. Eta halaxe zen: aktore-multzo bat igo zen une hartan eszenatoki erdi inprobisatu hartara, pantomima baterako jantzita eta makilatuta balitz bezala, non, zirudienez, ni nintzen ikusle bakar. Deklamatzen zuen ahots bat entzun zen orduan.

—Adiskideak, hurbildu zaitezke azkar! Ireki ondo begiak eta belarriak, Palatinatoko Maria printzesa eder-eder eta zoritxarrekoaren historia entzun ahal izateko, zeina, komeni ez zen batek maitatua izan ondoren, bere gaztetasun, grazia eta betetasunean, judu izugarri batek lohitik eskuz mamitua izan zen munstro ikaragarri batek akabatu zuen! Hurbildu zaitezte, adiskideak, ez ezazue munduko ezerगतik galdu! Eta, gainera, doan da...!

Berehala errekonozitu nuen rapsodaren ahots kirrinkari eta deitoragarria: ez zen Frederik erregearena ez beste inorena. Begiekin bilatu eta patioko albo batean aurkitu nuen, behin-behineko oholtza baten gainean altxatutako tronu-moduko baten gainean igota. Berorren Maiestatea erabat biluzik zegoen, eskutada handiak ematen zituen eta begirada galdua zeukan. Bitartean, antzezleek beren tokia hartua zeukaten eszenatoki gainean: zazpi ziren eta denak zarpailaz jantzita zebiltzan, eta hauts zuri eta gorri gehiegi zeramaten, zeinak aire sinpatikoa eman ordez presentzia siniestro bihurtzen zituen. Zazpietatik bi koroatuta zeuden eta haietako bat egundoko bularrordeak zeukan: zalantzarik gabe Frederik erregea eta Joana erregina errepresentatzen zituzten. Beste batek ere bularrak ipinita zeuzkan, baina ez hain nabarmenak, estupa-hariz eginiko adats luze bat orrazten zuen plantak egiten zituen, magalean zeukan katu itsusi eta ziztrin bat laztantzen zuelarik, eta neska ergelaren itxura zeukan: Mariari buruzko parodia higuigarri bat zen. Beste bik makila zedendu bana astintzen zitutzen ezpata gisara, horrela aditzera eman ez soldaduak zirela, baina bat segail eta lerdena zen, eta bestea ttikia eta makerra: hurrenez hurren Antoni dukea eta ni neu antzezten zuten. Seigarrenak igeltsu-oreaz eginiko sudur kakodun handia zeukan ipinita, eta adats eta bizar beltz eta oso luzeak: argi dago, hark Loew errabinoa irudikatzen zuen. Amaitzeko, besteak baino handiago eta altuago bat zegoen, biluzik zebilena eta gorputz osoa lohiz igurtzita zeramana: mugimendu espasmodikoz Golem imitatzen zuen. Ni zutik nengoen nire bizitokiaren ateetan, oholtzari begira, harriturik hainbesteko trufaren aurrean. Baina Frederikek, bere tronuaren gainean berotuta, oihuak ematen jarraitzen zuen bere ahots kirrinkariarekin.

—Azken finean azaldu nahi dizuedan historia laburra da, baina probetxu handikoa! Honela dio: Oso denbora asko dela —edo agian ez hainbeste— oso erresuma oparoan, errege bat eta erregina bat bizi ziren, zeinek, herriko arerioen gaiztakeriak gaiztakeria, zorionaldi bat eskuratu zuten beren menekoentzat! (Frederik erregea errepresentatzen zuen aktorea eszenatokian zehar

zebilen aire-faltan balego bezala, eta aldian behin ipurdia altxatu eta uzker ozenak jaurtitzen zituen; bitartean Joanarena egiten zuenak bularraldea ukitu eta keinu lizunak egiten zituen eskuekin eta mihiarekin). Erregearen tropen komandanteak, gizon noble kementsu eta planta onekoak —edo agian ez hainbeste— haur bat bezala maitemintzen zen erregearen alabarekin, Platon baino printzesa ilustratuagoa eta eguzkiaren izpiek baino politagoa bera! (eta Antoniren ordekoa Maria itxurakoa jarrera irritsuz jazartzen hasten zen, printzesak jauzitxo ergelak egin eta abesti zozo bat kantatzen zuen bitartean). Aldi berean, erregearen adiskide omen zen judu nazkante batek printzesari letrak irakasten zizkion eta denbora librea gizontto izugarri eta blasfemoa eraikitzen ematen zuen! (une hartan Loew errabinoaren imitatzailleak adatsak eta bizarra haztatzen zituen zorriak baleuzka bezala, eta gero Golemen gorputzaren gauzatzea imitatzen zuen barrabilak laztanduz kitzikatu artean; ondoren, hura masturbatzen hasten zen). Egun batean erregearen konfiantza irabazi zuen zoritxarreko bat gortera iritsi eta printzesaren guardiakoen artean sartu zen, eta ondoren modu ezegokian maitemindu zen harekin —edo agian ez hainbeste!—. Zoritxarrez eta modu ulertezinean, printzesak ondo erantzun zion (orduan “nire” doblea printzesaren inguruka zebilen eta printzesak musutxuekin eta ferekekin erantzuten zion; erreginak eta dukeak aurpegi txarrez behatzen zuten, erregea oholtzaren alde batetik bestera zebilen eta ustezko Errabinoak Golem masturbatzen jarraitzen zuen). Judu salatariaren laguntzarekin zoritxarrekoak eta printzesak erregearengandik ezkutuan batu eta gauza itsusiak egin zituzten (ni eta Maria antzezten gintuztenek koito esperpentikoa simulatzen zuten, dukeak eta erreginak ahoa eta begiak asko irekitzen zituzten haserrea adierazteko eta Errabinoak, suhartuta, bere egitekoa bukatzen zuen Golemekin, zeinak oparo eiakulatzen zuen, ufa eta oihu nazkagarrien artean). Erregea konturatu zenean, tristura handiak abaildu zuen —edo agian ez hainbeste!— (eta Antoniordea erregearengana lasterka joan eta bizkarra ukitzen zion lotsagabe, informatuz-edo; erregeak burumakur jarraitzen zuen eszenatokiaren txoko batean). Gero, munstroak sumindura-atake irrazionala izan zuen eta, ukaldi batez, judu artekaria hil zuen (eta, eszenatoki gainean, Golemek, oraindik erdi ase, *benetan* ateratzen zizkion erraiak Loew errabinoaren imitatzaileri, dukeak eta erreginak ia barrez itotzen zirelarik, eta oholtza odolez betetzen zen). Ondo egina, esango zenukete! Baina, ai! Munstro itsutuak odol gehiago nahi zuen, eta printzesaren bizitza bera ere akabatu zuen! (eta Frederikek hitz hauek oihukatzen eztarria erretzen zuen bitartean, Golem faltsuak Maria itotzen zuen dukearen barre artean, erregearena egiten zuena beranduegi arte ohartzen ez zelarik; hura gertaturik, negar egiten zuen itxura egiten zuen). Justizia-zentzu handi batekin —edo agian ez hainbeste— komandante kementsuak munstro odolzalea merezi zuen moduan zigortzeko ardura hartzen zuen! (Antoniordea zen orain Golem garaitzen zuena egundoko jipoia emanez: amaituta, erregina faltsuak, goreneraino kitzikatuta, dukearen besoetara jausten zen, erregeak haren alboan jarraitzen zuen bitartean, begirada galdua, patxadaz errepikatzen zuelarik: “Eraman nazazue Carolinumer, Guk Carolinumer joan nahi dugu...”). Eta orain soldadu lotsagabea bilatzen da, gertatzen zena ikusirik koldarki alde egin zuena (egia esan nire imitatzaila oharkabea alde egin zuen eszenatokitik), bataila-eremura eramana izateko, han heriotza izugarria aurki dezan eta bere sarratsa animalientzako bazka izan dadin —eta agian ez da aski izango!—. Hauxe da gure historia triste eta polita, adiskideak! Zer iruditut zaizue?

Oholtza hiltoki bihurtua zen, sarrats-isurtzaila, eta biziraun zuten aktoreek zakarki egiten zuten agurra txaloaren zain baleude bezala. Horixe zen, beraz: dukeak eta Joanak, nire zorionaren eta Mariarenaren jeloskor, konpontxoa egin zeukaten printzesaren eta Loew errabinoaren heriotza antolatzeke, era horretara Frederik erregearen zoramena agerian jarri eta Antoniren tronurako bidea zabalduz, erregeorde bezala eta Joanaren geroko senar gisara. Golemi esleitu zizkioten errabinoaren eta Mariaren heriotza, eta gero Antonik munstroa eliminatu zuen denen begien aurrean ekintza heroikoa antzeztuz. Eta orain nire eliminazioarekin burutuko ziren gertakariak hurbiltzen ari ziren, azkenerako utziz mingarriagoa egin nahi izan baitzuten. Frederiken tronurantz biratu eta erregearen gorputz biluzia ikusi nuen han, saltoka eta dantzaka jai-giro nabarmenean, erabat erotuta. Nire birikek utzi zidaten beste indarrez oihukatu nuen —Aski da! Aski da!

—Aski? —erantzun zuen Frederikek, bere dantza braustadan etenda—. Bai, aski da! Ez dago denbora gehiago komedietarako, dibertitzen gaituzten arren! Zeren azkenean, gerra lehertu da! Armetara denak! Gerra abiatu da! Gerra abiatu da! Gerra abiatu da!

Eta, beraz, jarraian soilik gerra oroitzen dut, Mendi Zuriko batailan ankerki hasia. Lorategi Fosforeszenteko egonaldia nire bizitzako zorionik handieneko atala ez ezik, laburrena eta iheskorrena ere iruditu zitzaidan. Alabaina, kontua da beste urtebete osoa pasa zela, zeinean Antonik aditzera eman zizkidan zurrumurruak gauzatu ziren: Ferran Estiriakoak enperadore izendatua izatea erdietsi zuen, halako moldez non *gertakari txekiarra* deituak proportzio inperialak hartu zituen bat-batean, eta haren ondorioekiko beldurra kontinente europar osoan eragina zeukan afera bilakatu zen. Ferran enperadoreak eta Frederik matxinatuak norberaren kausaren aldeko euskarri kanpotarrak bilatzen eman zituzten hurrengo hilabeteak, eta Ferran, Frederik baino trebeagoa eta —esan beharrik ez dago— askoz ere argiagoa, bere aurkaria baino askoz hobeto atera zen. Estiriakoa, Antonik espekulatu zuen bezala, bere aliatuen artean Maximiliano Bavierakoa, Liga Katolikoko printzeak, Vatikanoko hierarkia gorena eta Felipe III.a Espainiakoa zeuzkan: denek ipini zituzten altxorrek eta armadak kontraerreformako kausa inperialaren alde. Frederikek, aldiz, egunean-egunean eroago eta ahulduago, txontxongilo narriatua Antoni itsutuaren anbizioen doinura dantzatuz, Jakobo I.a Palatinatuko printzearen errezeloekin egin zuen tupust, elkarren senide izan arren; Luis XIII.aren arbuioarekin, bere protestanteen matxinada-saio bat menderatu berri —eta ez galera eta sakrifizio handirik gabe—, eta barruko aurkakotasunekin hondatuta zegoen Batasun Ebanjelikoaren abstentzioarekin. Azkenean areriotasunak abiatu zirenean, indar-korrelazioak nabarmenki ezberdinak ziren, eta Mendi Zurian ikusi zen argien bi aldeen desproporzioa: ebanjelikoen uniforme beltz bakoitzeko katolikoen hiru jantzi gorri zeuden; zaldizko lutertar batek erabilitako zaldi bakoitzeko, Elizaren alde bridatutako lau ageri ziren; Antonik zuzendutako artillerok desarratutako kanoi bakoitzeko, bost jaurtitzen ziren kontraerreformaren aldetik. Eraso-aginduen aurreko minutu amaiezinetan, non tropa ebanjelikoek eta katolikoek askoz jota bostehun yardako distantziaz bananduta kontenplatzen gintuzten, mundu guztiarentzat nabarmena zen Frederik matxinatuaren tropen zampaketa eta desegiketa, eta hark Mendi Zuriko elur azpian lurperatuta ikusiko zuen bere aspirazio monarkikoa, ehunka gizonen gorputzekin batera. Baina arazo haiek guztiek niretzat ez zuten axolarik: Antoni aurkitu eta bertan hiltzeko gogo hutsak bultzatuta erabaki nuen nik batailara abiatzea. Behin hura eginda, ez neukan batere arazorik han bertan hiltzeko, ezer batzen ez ninduen beste hainbat gizonen alboan. Baina inoiz ez nire eskuekin Antoni hil aurretik.

Gure tropen ibilbidea, erlatiboki motza, Gaztelutik bataila-eremuraino, aurreko egunean hasi zen, baina asko luzatu zen hamaika konplikazio ondoren. Adibidez, egunsentia baino lehen, Antoni dukeak bere furriera soldaduen barrakoira bidali zuenean korneta bilatu eta kanpaina-formaziora dei zezan, ez zen zirudien bezain erraza izan. Furrierak gorriak ikusi zituen gau hartan soldaduek, jakitun ia seguru zela biharamunean konbatera atera beharko zutela eta beraz hura azken parranda izan zitekeela, ardo beroarekin eta neurri eta itxura guztietako putekin antolatutako bakanal handiaren erdian korneta topatzeko. Furrier gajoak bere uniformearen substantzia ugariako zipriztin asko metatu zituen korneta litera hondatu baten gainean luze-luze agertu zitzaion arte, non armakide bati felazio egiten saiatzen ari zen, edozein burdel deserosotik etorritako urdanga bat setati ahalegintzen zen bitartean mozkorraren eraginez soilik erdizka animatzen zen zakilaren gainean igotzen. Azkenean furrierak anaiarteko bilkura hartatik korneta ateratzea lortu zuenean, are ahalegin handia egin behar izan zuen korneta anaiarteko bilkura hartatik atera (neska baten konpainian tresnaren erabilpen ezohikoak esperimentatzen ari baitzen), janzten lagundu eta literalki patioko zabalunera arrastaka ateratzeko, nondik gainerako soldaduei deia egin behar zien; hori, ordea, ez zen posible izan, lehen saioan nota izugarri desafinatua egin ahala korneta zerraldo jausi eta patioko lurrean mozkorra pasatzen saiatu baitzen: eszena gaizki amaitu zen zeren, bere bulegoko leihotik —zabalunera begira egonik— Antoni dukeak gertatzen ari zena ikusi eta ez baitzuen zalantzarik eduki: pistola atera, zerraldo zegoen kornetarengana destatu eta tiro

batez muinak erauzi zizkion, eta horrek zoritxarreko furrieraren atsekabea ekarri zuen, kidearen masa entzefalikoarekin arropa ostera zikindu zuelarik.

Bestaldetik, gertakariak sumindu egin zuen Antoni, zeina zuzenean jaitsi zen barrakoietara bere soldaduak lerroetara deitzeko. Haserre bizioan jaitsi zen orgiara eta sablearekin eta pistolarekin gutxienez bost soldadu eta dozena eta erdi prostituta hil zituen denen bistan, ondorioz gure tropak jantzi eta patiora jaitsi ziren jasaten ari ziren mozkor-graduak ahalbidetzen zien presarekin formatzera, biziraundako putek biluzik eta ziztu bizioan ihes egin zuten Gaztelutik hirirantz jaisten zen maldan behera, lazturazko alarauak jaurtiz. Soldaduen artean armamentua eta kanpainarako guztia prestatzen zuten bitartean sortu zen nahasmendua deskribaezina zen, eta dukeak agintzen zien galdeketa –hark gainbegiratzeko baitzituen maniobra eta ez baitzuen zalantzarik ezgaitasun gehiagorekin aktuatzen zuten soldaduei lepoa mozteko– nahasmena gehitu besterik ez zuen egiten. Tarte luze baten ondoren gehitu nintzen ni, dukea nitaz gogoratu eta zoritxarreko haletako bi nire bila bidali zituztenean ganberara, non gaua beilan pasatu nuen Loew errabinoaren buru moztuaren eta Morelaren (edo Mariaren...?) eta sekula ezagutuko ez nuen semearen azalarekin koadernaturiko Colonnaren *Hypnerotomachia* alearen konpainia zorigaiztokoan, azken gertakariari azalpenen bat topatzeko benetan etsirik. Nire ganberako atea ireki eta ordena transmititu zidatenean ez nintzen erregutarazi: konbateko uniformeak presaka jantzi eta armak hartu nituen, ez ordea lehenago liburua eta errabinoaren burua aurkitu nuen zaku berean utzi eta, guztizko ekipajea bezala, bizkarretik eseki baino lehen. Errabinoaren mihian norbaitek jarrera makabroarekin, Joana gorrotogarriaren sorginkeriaaren transkripzioarekin, itsatsi zuen papera ere hartu eta dagaren zorroan gorde nuen tolestuta. Hura eginda, begiak altxatu nituen soldaduengana, zeinek euren artean harridurazko begiradak trukatzeko zituzten, eta haiei jarraitzeko prestatu nintzen.

Antoniren presentziara eraman ninduten zuzenean, zeina Frederik V.a Palatinatukoaren armadak ikuskatzen ari zen, azkenean martxarako prest. Hurbildu ahala, ilara luzeetan jarrita patioko zabalunea betez (artileria astuna, fusildunak, arkabuzdunak, oinezko infanteria, zaldizko infanteria), heriotza segururantz abiatu baino une batzuk lehenago, gehiegikeriazko gau baten efektua arrakastarik gabe disimulatzen saiatzen ziren gizon-sortak kalkulatzeko saiatzen nintzen. Ergel-saldo hura (zenbat ehuneko?, zenbat milaka?) ajearen eraginpean estropezuka eta balantzaka zihoan historiak ezaguturiko kanoi-bazka mespretxugarriena bihurtzera, eta niri iruditzen zitzaidan horrek zeukan alde deitoragarri bakarra lehen gertatu ez izana zela. Ia haren parean geundelarik, Antonik biratu, poz garailea ezkutatu nahi ez zuen begirada sarkastikoa bota eta agur gisara esan zidan:

—Nolatan ez zaude jada ilaran, puta semerik semeena? Nolatan ez zaitut oraindik zanpatu, zaren barea izanda?

Gelditu eta une batzuk mugitzeke geratu nintzen haren begiradari eutsiz eta bere iseken oihartzuna airearen hotz zirtakariaren barruan deuseztatu zedin utziz. Gero zakua bizkarretik jaitsi, liburua eta errabinoaren buru moztua atera eta Antoniren oinetara bota nituen. Liburuak kolpe lehorrez jo zuen lurra, nire maisuaren burua, berriz, hauts gainean biraka abiatu zen. Dukeak oinarekin gelditu eta bere aurretik apartatu zuen ostiko batekin. Ahotso altxatu gabe esan nuen.

—Jendaila honek itxaron zezakeen amaiera izugarria izan arren –besoaren mugimendu batekin seinalatu nituen tropa formatuak– fortunatuak izango dira zure parean.

Antonik makurtu eta *Hypnerotomachia*ren ale bat lurretik jaso, bi eskuekin goiko aldetik eutsiz ireki eta, kolpe batez, goitik behera urratu zuen. Pleguak eta tapak errabinoaren buru hautesztatuaren gainean erortzen utzi eta mundu guztia –lehenengoz ni– izoztuta utzi zuen algara egin zuen. Jarraian bere zaldi gainera igo, troparen aurrean ipini eta abiatzeko agindua eman zuen. Abiatu ginelarik, oinezko infanterian kokatu nintzen. Modu bitxian, pozik sentitzen nintzen: orain biok genekien bataila-eremua biotako batek bestea hilko zuen tokia izango zela. Azkenean hitzordu bat geneukan jarria.

Barrakoietakoa gertakariak zirela eta generaman atzerapena egundokoa zen, eta jada eguerdia zen Pragarantz abiatu ginenean: iradokitzen zenez, plana zen hiriko kaleak gurutzatuz bidea

moztea Mendi Zurira abiatzeko iparreko aldeari eraso eginez, non kanpamentua ezarri, gaua pasa eta lubakitu ginen armada katolikoaren zain. Imurtxi egiten zidaten suminarekin eta tristeziarekin nahastuta, askatasun-sentsazio herabeak hartu ninduen, izan ere, Lorategi Fosforeszente barruko inkurtsioa kenduta –hain urruna zenez amestu ote nuen pentsatzen hasia nintzen–, huraxe baitzen bi urte baino gehiagotik Gazteluko esparrutik ateratzen nintzen lehen aldia. Baina poza, horrela deitzerik izatekotan, berehala desagertu zen: ordu aurreratua izan arren, eguna ilun zegoen eta zeruak ekaitz berehalako eta suminkorra iragartzen zuen. Aire izoztua arnasturik eztarria urratzen zigun, zaldiek nahiezik egiten zuten irrintzi eta belar txarrek bidearen alde banatan hil hurren hozmintzen ziren izotzaren eraginez. Gazteluaren malda jaitzita, Pragako hamaika dorreak zerua zeharkatzen zuen hodeien belztasun astunaren pean uzkuratzen ziren, laba hoztuko masa nahastua bezala.

Gure armadaren igarobidea hirian zehar atal deitoragarrian amaitu zen. Holakoetan gertatu izan ohi denez, gure aberkideak, Pragako auzoak, kaleetara irtenak ziren gure segizio martziala bataila-eremurantz pasatzen gogotsu ikusi ahal izateko: baina ez zuten prezeski gu aintzesteko edo goraiatzeko egiten Antonik eta bere gizonak azken urte eta erdian hiriko gauak erraustu zituzten ehizaldi izugarriak halako eragin txarra izan zuten komunitatearen sentimenduetan; izatez, oso arraroa zen bere kideetakoren bat galdu ez zuen familia errege-soldaduen oldarraldi odoltsuren batean edo bestean. Horrela bada, beren askatzaile bezala ikusi arren, Pragako hiritarrek beren existentzia zamatzen zuen mehatxurik behinena eta krudelena bezala hautematen zituzten Frederiken eta bere komandanteburuaren osteak. Eta hala, espaloietan edo etxeetako atarietan zutik itxaroten gintuzten, balkoi eta leihoetatik begira, beren aurretik pasa gintezen eta infernura joan gintezen esateko itxaroten, inpazientzia garratzez beteta. Azken buru gugandik libratzeko norbait etor zedila espero zuten: edozein izanda gure arerioak, sekula ez ziren Antoni dukearen eta bereen basakeriak baino txarragoak izango.

Hasieran, isiltasun ikaragarrian murgilduta mantendu zen jendetza. Guk Aldi Ttikiko kaleetatik desfilatzen genuen hain pasabide estuak behartzen gintuen mantsotasunarekin, eta Pragako jendea guri zuzen begiratzera mugatzen zen. Zuzen, isiltasun osoan. Ehunka eta ehunka begi arakatzaille, maiz mespretxuzko imintzioak ekidin ezin zituzten aurpegi zurrun, dozenaka bekain zimurtu eta zainak gorrotoz edo nazkaz puztuta lepo. Gure boten takoiek lurra zapaltzean markaturiko erritmoa eta bataila-eremura garraiatzen genuen guda-makineriaren karrankak besterik ez. Lotsaren zapore mikatza, gure begiradak jendearenarekin borrokan, begiak apaltzeko premia, norbaitek atariren batetik zuk kalkulatu baino segundo batzuk gehiagoz soari eusten zionean. Hartatik landa, mututasunik durduzagarriena. Nolabait, uste dut denok arintasuna sentitzen genuela norbaitek luzaroan eusterik ez eta lehen madarikazioa zorrotz hegaldatzan zenean aire ekaitz-arrastoz kargatuegian: hori gertatzen zen gure segizioaren aurrealdea Carolinuketik pasa zenean, atzealdea oraindik hiri barrura sartu gabe zegoelarik.

Gero dena oso azkar joan zen. Oihuak iseka eta mehatxuekin alde guztietatik jausten hasi ziren; aldi berean zerutik euria botatzen hasi zuen, egundoko trumoikadarekin batera; barraban-talde batek gure zaldizkoak zalditik erorrarazten saiatzen ziren lintxatzeko intentzioarekin; bat-batean, barrabanetako bat lurrera zerraldo jausi zen burezurra txikituta, odola baldosen behera diluituz, gero eta burrunbatsuago labaintzen zen urarekin batera. Minutu batzuen buruan hiri osoa bataila-eremu bihurtu zen, eta kolpatzen gintuzten hotzak eta euri-jasak ez zuten asko laguntzen animoak baretzen. Nire posiziotik Antoni ikusi nuen lauhazkan urrutiratzen, bere ibilian heriotza hedatu eta bere zaldi zuri pikardatuaren gainetik tropari aginduak emanez, baina inork ezin zuen esaten zuena entzun trumoikadaren zalaparta ikaragarri eta jarraiaren eraginez. Bururatu zitzaidan ezen, segundo batzuk itxaroten banuen, laster nire parera ailegatu eta egokiera ona izango zela hura oztopatu eta akabatzeko; baina bat-batean Pragako hiritar batek hausnarketa haietatik atera ninduen nire lepora oldartu zenean hura mozteko intentzio nabarmenarekin. Kolpe batez biratzea lortu nuen, daga bere zorrotik atera eta nire erasotzailearen urdailean hondoratzen nuelarik. Beste behin bizitza salbatu zidan nire hiltzeko zorioneko sen hark, baina Antoni dukea jada pasea zen eta nire irismentetik galdu nuen. Lastima, pentsatu nuen, eta orduan ohartu nintzen, nire daga odolez bustiarekin batera paper bat neukala nire esku barruan.

Destolestu eta Joanak bere orgasmoen exaltazio basatiaren unean ahoskatzen zituen hitz erritualak zeuzkan paper-zatia errekonozitu nuen (ez nuen ostera hartaz pentsatu), nire zorigaiztoko maisuaren mihitik nik-neuk askatu nuena. Eta orduan, inguruan neukan sarraskia eta gure gainera erruki gabe jausten ari zen ekaitza modu azalezinean ahaztuta, ostera kontzentratu nintzen hura dezifratzen, paper-mutur hark nigan erakarpen ekidinezina izan balu bezala. Erabat jaitsi nuen guardia triskantzaren erdian, nire bizia ergelaren modura arriskuan jarritz, begiak odolez zikinduriko paperean iltzatuz: gogoan daukat, halako batean ahopeka aletu nituela bertan irakur zitezkeen hitz misteriotsuak –errabinoak lehen letrak irakasten zizkidanean bezala–, era hartara zentzuren bat harrapatzeko aukera handiagoa zelakoan.

Esan beharrik ez dago horrela ere ez nuela buruhaustea konpondu; baina begiak ostera altxatzerakoan, jada ez nintzen nengoen tokian. Nire inguruan ez zegoen inor, ekaitza tupustean gelditu zen, eta Pragako jendearen eta gure armadaren arteko liskarretik oihartzunik ere ez zitzaidan iristen. Nire aurrean plazaratu huts bat besterik ez zegoen, borobila eta inguruan hainbat buztinezko etxe desegin zeuzkala, zeinetatik harago hiria amaitu eta labore-soroak hedatzen ziren: haizeteak jotako txorimalo batek egiaztatzen zidan, ilunpean sartuta, landa zabala besterik ez zegoela. Eszenatoki-aldaketa hau ulertzeko ezgai, konturatu nintzen nire eskuek jada ez zutela une bat lehenago aztertzen ari nintzen papera, eta nire nahasmendua erabatekoa izan zen.

Orduan biratu egin nintzen eta, nire atzean, hirurehun bat urrats aurrerago, leiho batetik zetorrela zirudien distira bat zegoen. Harantz abiatu nintzen mesfidati, eskua dagaren sagarrean, tranparen batean erori ote nintzen beldurrez, iluntasunaren barruan niri eraso egiteko atezuan inor egon ez zedin zainduz. Baina ez zegoen inor. Nire urratsen zarata entzuten nuen hartxintzarren gainean, eta, plaza, etxe eraitsi eta txorimaloetatik gero eta urrunago, urratsak gidatzen zizkidan argi ahulera hurbiltzeko, orduan eta gehiago konturatzen nintzen ni ez nintzela presentzia bakarra toki hartan: baina horrek ere ez ninduen lasaitzen. Bakarrik edo hiltzaileekin batera, egin nahi nukeen bakarra handik irtetea zen, zalaparta eta ekaitzera itzultzeko baldin bazen ere.

Azkenean argiaren parera ailegatu nintzelarik, konprobatu nuen, hain zuzen, benetan leiho bat zela: zehazki, taberna baten itxura zeukan atari aldameneko leiho bat. Atea itxita zegoen eta zerbaitek nire barruan zera hura irekitzeko ideiaren kontra ohartarazten zidan, baina ahalegin bat egin nuen ni kontrolatzeko eta pentsatu nuen beharbada han barruan gertatzen ari zenaz argitasuna emango zidan norbait egon zitekeela. Horrela bada, atea bultzatu eta, gehiago pentsatu gabe, taberna barrura sartu nintzen. Atea nire bizkarraren atzean ixten zelarik, damututa nengoen berehala.

Areto hotz bat zegoen nire aurrean, grazia-rik gabea eta zikina, edozein moduz sakabanatutako hainbat mahai eta aulkiak zeuden, batzuk lurrean botata. Nire eskuinean, pipiak jandako arasa bat, luzaroan abandonaturiko gauzek izan ohi duten zahartasunak ukituta. Lizun-usaina zegoen airean eta erasokor jaisten zitzaidan nire urdaileraino sudur eta eztarritik barrena airean garagardo- edo ardo bero-txarro bat eusten zuen itxura izan nahi zuen keinu bat eginez. Gizona txor-txor ari zen burutik sano ez balego bezala, baina ez nintzen gai zer zioen igartzeko, bat-batean gaizki sentitu bainintzen, eta indarrek huts egin eta hankeak ez ninduten eusten. Bi eskuekin arasan bermatu behar izan nuen, txor-txor jarraitzen zuen gizonari bizkarra emanez, eta orduan une batez kontzentratzea lortu eta husitei buruzko poema bat errezitatzen zuela entzun nuen, eta are gehiago nire izena ahoskatzen zuela iruditu zitzaidan. Harengana hurbiltzeko asmoarekin biratu nintzen, baina urrats bat aurreratu nahi izan nuenean, ostera atzerapen edo desdoitze-efektu bat gertatu zen nire entzumenen eta gauzen disposizioaren eta denboraren joanaren artean, eta, tabernako perimetroa sabaiaren parean ibiltzeko ilusioa jasan ondoren ur labainkorren gainean jausi nintzen. Ezerezetik sortzen zela zirudien katu ilun eta argal bat hurbildu zitzaidan ni usaintzeko, eta horrek zapuztu egin ninduen. Lurrean etzanda entzun nuen nola ekaitza bat-batean hasten zen. Baina ez zen hasten: zehatzagoa da esatea berriro ekin ziola; norbaitek eten izan balu bezala zen, Frederik erregeak Arte eta Mirarien Ganbaran kolekzionatzen zituen automatetakoren bat balitz bezala mekanismoren bat traba, eta gero traba kendu izan balu bezala, Jainkoaren zigorra ostera martxan jartzea ahalbidetuz. Garagardo gehiago

zerbitzatzea nahi zuelako oihu egiten zuen gizon errenari entzun nion, eta gero jada ez nuen entzun, haizearen marruak eta trumoikadak haren ahotsa, entzungaitza egiteraino, estaltzen zutelako.

Lurretik altxatu eta aterantz jo nuen; zulo hartatik irten eta gizon nazkante harengandik urrundu beharra neukan, haren marmar jasanezinetik, enbarazu egiten zidan katu hartatik, kanpoan egurats gorriena nire zain zegoela inporta gabe: eta hala, ekaitzak aurpegira begiak indarrez itxiarazi zizkidan euri-jasa jaurtiz hartu ninduen, nire atzean tabernako atea zarratzen zuelarik. Haiek irekitzean espero ez nuena zen ostera nire armakideekin inguratuta egotea, elementuen zigor suminari desafio eginez zihoazenak eurak, istiluak geratu ondoren hiriko kaleetan zeutzan Pragako hiritar hilen kopuruak aditzera ematen zuenez. Nahastuta geratu nintzen nekez eta dolorez martxako pausoan desfilatzen saiatzen ziren soldaduen artean zutik; gizonetako batek nirekin egin zuen estropezu eta niri builaka hasi zitzaidan, bultzaka.

—Zer egiten duk, hemen, arranpalo bat bezala geldit? Aurrera, ergel hori, inork hiltzea nahi ez badukj Egunsentia baino lehen Mendi Zurian kokatuta egon behar gara!

Erantzun gabe obeditu eta pausoa ilararenera egokitu nuen, nire bularra, talisman bat balekar bezala, Maria printzesaren ahotsaren eta larruazalaren gomutarekin animatzen zen bitartean.

Mila eta hirurehun eta hogeiko azaroaren hamazazpiko egunsentia baino pixka bat lehenago, Mendi Zuriko ipar-malda menderatzen duten ainubeen azpian hedaturiko ordoki handian, ezinezko bihurtu eta soilik igoka jarrai daitekeen puntuan, euria eta trumoiak apaldu egin ziren eta, ekaitzetik edozein unetan berrasi zitekeen mehatxua besterik ez zen geratzen: zigor bat bezain haize izoztu eta zorrotzak ez zigun hura ahazten uzten. Gehiegizko esfortzua erakusten zuten ordu gutxi batzuetan, gure armadak azkenean hasierako plana burutu eta mendiari aurreikusitako aldetik ekin ahal izan zuen; aldiz gure aurkakoek hegotik inguratu zuten, batzuk eta besteak ordoki hartan batu arte, eta orduan posizioak hartu, kanpamenduak ezarri eta ilarak trinkotzen presatu ginen. Bataila aurreko unean, mendiaren isiltasun deigarria bi armaden danborren doinuak beste ezerk gezurtatzen ez zuenean eta gure gizonak —goseti, lo faltan eta akiturik— kopuruari, arma eta baldintza fisikoei zegokionez katolikoak gehiago zirela kontsideratzen murgildu zirenean, Antoni bistaratu nuen urrutitik. Sortzen ari zen eguzkiaren argi apal eta egoskorren pean, loaldi suspengarri batetik esnatu berri zela zirudien. Denbora izan zuen kanpainako komandante-jantzirik onenak soineratzeko, eta bere estanpa burgoia gizon asko heriotzera gidatzen dituela dakienaren autoritate nobleak azpimarratuta geratzen zen. Aginduak ematen zituen, keinuak egiten zituen, lehen lerroak atzera eta aurrera ibiltzen zituen bere zaldiaekin, eta nik eskertu egin nuen heriotza hartzeko modu duinean jantzi izana. Bere atzera-aurreko une zehatz batean, zaldia geratu eta tropen artean hedatu zuen ikusmena, harik eta bere begiek nireekin topo egin zuten arte. Irribarre zabala eskaintzen zidala konturatu nintzen, eta nik erantzun egin nion. Ordura arte sekula ez nuen inor hiltzeko gogo handiagorik sentitu.

Handik lasterrera denok entzun genuen Antoniren oihua karga egin genezan animatuz, eta segundo batzuetara infernu barruan sartuak ginen. Buruak enborretik bananduta birakatzen zuten, zaldiak sabel husturik jausten ziren, hilotz kontsumituei kea zerien, kanoien eta arkabuzen balak elur gainean edo haragi urratuan desagertzen ziren, eta oihu, intziri eta sarraskiaren detonazioak Mendi Zuriaren isiltasun olinpikoak xurgatzen zituen. Inoiz ez nukeen pentsatuko triskantzaren begia, batailaren muina, hain toki lasai eta isila izan zitekeenik. Lubeta batera korrika igo eta metro batzuk harago kokatutako desnibela gainditzen duzunean arerio-horma bati eraso egiteko eta, oinatz batzuk aurrerago konturatzen zarenean zure taldea osatzen zuten beste gizonak arratoiak balira bezala jada eroriak direla zure inguruan (bat bala batek bihotza lehertuta eta ahoa azken madarikazioarekin irekita; bestea aurpegia ezkel, pittin bat grazioso, bihurtzen dion begi bat zapartatuta; haruntzagokoa konbultsioen artean ahuspez hil hurren dagoenean, lurrean galdutako zer bait bilatzen balego bezala), burbuila bat bezala inguratzen zaituen isiltasunaren araztasuna egiaztatzen duzu, eta frogatzen duzu isiltasun hura batik bat hiltzeko bultzada bat dela, eta korrika jarraitzen duzu parapetorantz pistola esku batean eta arkabuza

bestean, eta tiro egiten duzu, eta panpina bat lur-zakuen atzean astun jausten ikusten duzu, hariak moztu izan balizkiote bezala, eta are azkarrago zoaz korrika eta hurbilago zaude, eta ostera tiro egiten duzu eta beste panpina bat jausten da bizkarrez besoak eta eskuak astinduz, agur esaten balego bezala, eta horrek barrea ateratzen dizu baina isiltasunak zure barrea entzutea eragiten dizu, eta oso hurbil zaude jada eta indar gehiagorik alde egiten duzu, beste pixka bat, eta beste panpina batek begiratzen du zakuen atzetik eta pistolarekin nola destatzen dizun ikusten duzu eta nola egiten duen tiro eta baita nola urratzen dizun besoa eta erredua sentitzen duzu eta taupada, baina beldurak, geratu orde, harantzago lasterka egin dezazun bultzatzen zaitu, zakuen gainetik jauzi egin eta zu garbitzeko tiro egin dizun panpina esku hutsekin lepotik hartzeko, eta lepoa moztzen diozu eta ez du fitsik esaten, eta susmatzen duzu zure atzean beste arerio batek sablea hartzen duela ezpata-ukaldiz bizkarra ebakitzeko, eta bira egiten duzu hildako panpinaren gorpua ezkutu modura erakutsiz, eta oso hurbiletik ikusten duzu nola sablekadak lepauztaitik bularrezurreraino moztzen duen, aurpegira isilik jariatzen dizun odol-parrasta, eta orduan gorputza lurrera erortzen uzten duzu eta soldaduaren aurrean egiten duzu jauzi sablea haren kidearen odolez bustirik eta plegatzera behartzen duzu hankartean ostiko emanez, eta sablea eskuetatik kenduta bere odola lagunarenarekin nahasten duzu orria garondoa sartu eta lepotik irtenez zintzur-sagarra moztuta. Besoak erreduz egosten dizu baina zure isiltasuna gordetzen duen burbuilak ukitu gabe jarraitzen du, eta poza hartzen duzu jakitean azken parapetoan bizirik dagoen bakarra zarela, eta hilotzak behatzen dituzu eta patxadaz, erosotasunaz, zein neurritaraino han ez beste inongo tokitan egon nahiko ez zenukeen jabetzen zara, zakuen atzean, hildakoen isiltasunak eta lasaitasunak babestuta.

Parapetoan gotortu eta tarte luze batez frankotiratzaileria izatea erabaki nuen, nire armak eta nire arerio hilenak baliatuz, Antoni dukea nire su-lerrotik pasatu nahiko zuen arte. Nire punteria probatzen pasatzen nuen denbora: honi bala bat sartuko diot saihets-hezurretan, beste honi burmuina zapartatuko diot. Ez nuen hutsik egiten eta atsegin nuen hori; baina, gutxi gorabehera ordu bete geroago munizioa amaitu zitzaidan eta Antoniren arrastorik ez. Elur gainean pistolak eta arkabuzak jaurti eta lur-zakuen babesa uztea erabaki nuen haren bila abiatzeko. Sable- eta daga-ukaldiak barra-barra ematen egiten nuen aurrera, nori ematen nizkion begiratzera geratu gabe: berdin zitzaidan batzuk zein besteak hiltzea, dukerarekin topo egin arte bizirik mantentzekotan. Aurkitu nuen azken finean atsegin handiagoa hartzen nuela nire kideetako bat akabatzean: zer-nolako poza, nire isiltasun ederrean kontzentraturik, lepoa egiten niena, gibela edo bihotza ondo emandako kolpe on batez atera eta erraia eskuarekin hartu eta ukabilarekin zukutu eta aurpegi aurrean jartzen niena, edan zezaten, ni nintzela jabetzean ipintzen zuten aurpegia behatzea; zein poz bizia ergel haietako baten presentzia mundutik kendu eta, juxtu hil baino lehen, ulertarazten nienean haien existentzia izan zen iraina. Baina Antoni dukea ez zen inondik agertzen, eta horrek modu txarrean kezkatzen ninduen. Behar bada pare bat ordu edo gehiago igaro ziren, zeinetan kolpatzen, zauritzen, ebakitzen, zatikatzen eta hiltzen jarraitu nuen, eta, hotza eta nekea medio esnatzen hasi nintzenean, eta norbaitek niri aurea hartu eta Antoni dukea hil ahal zuen idea kezkatzen hasi zitzaidanean, geratzen zitzaidan azken desioaz desjabeturik, azkenean, berraurkitu egin nuen.

Ez zuten hil, benetan, baina ez zen asko falta ere. Armada gorriko bost soldaduk zalditik eraistea lortu zuten, eta paraleloan, ia-ia elkarren ondoan, kokaturiko bi harkaitz errektangeluarrez osaturiko zintzur moduko baten barruan zokoratuta zeukaten. Nik ez nuen ahanzten Antoni borrokalari galanta zela, baina argi zegoen, baita ere, goiz ala berant, besterik ezean akiduraz, harrapatu edo hiltzen amaituko zutela. Antoni atrapatuta zegoen zintzurretik hirurehun eta berrogeita hamar bat metro harago nengoen: hirurehun eta berrogeita hamar gizonez armatu eta edonondik iristen zen artilleria handi eta txikiko tiroz inguratuta zegoen. Baina oiheri batekin zeharkatu nituen: nire oiherik basatiena, justu jaurtitzen atzeratu nintzena, Antonirengandik ikasi nuena gure azken entrenamenduan. Bai, hirurehun eta berrogeita hamar metro haiek Antoniren irakaspena behar bezala baloratzen erakutsi zidaten: egun hartan egiten ikusi nuen bezala, nire hankek uzten zidaten indar guztiz korrika atera nintzen, eta besoak astintzen nituen—bat, balaren ukituz narritatuta, sableaz armaturik; bestea daga batekin— molinetea eginez. Nire bidean

gurutzatu zen lehen gizonari belarri bat ebaki nion eta nik korrika jarraitu nuen, nire oihuari eutsiz; bigarrenari beso bat moztu nion, eta are indar handiagoz jarraitu nuen korrika; hirugarrenari begi bat hustu eta pare bat hatz ebaki nizkion, instintiboki aurpegia babesten saiatzen baitzen, eta horrek areagotu egin zuen nire abiadura eta nire oihua; hurrengoari beso bat ebaki nion eskumuturraren parean eta berehala utzi nuen atzean, belauniko odolustuz, nik marrantaraino oihuka jarraitzen nuelarik; beste bati hesteak atera nizkion kolpe bakar batez, eta haren bor-borra entzun nuen une batez, baina jarraian nire oihuak bere estertorea estaltzen zuen. Airearen labana hotzaren atximurra sentitzen nuen aurpegian, gero eta azkarrago are zorrotzago, eta nire besoak eta hankak gero eta indartsuagoak, sinkronizatuagoak ziren nire eztarriak oihuari eusten saiatu ahala, eta, ikusirik nola balek buru ondoan zitzukatzen zuten, eta beren ibilbidean, destaina berberez eta suminduz, gorriak eta beltzak erorrazten zituzten bitartean, soldadu ukiezin bihurtzen ninduela ematen zuen oihu hura. Lehenengoari bizkarrezurra dagarekin ebaki eta zaku huts bat bezala erori zen; bigarrena goitik behera zehatz-mehatz ireki nuen sablearekin, eskubiko lepauztaitik ezkerreko alderaino, giltzurrunen parean. Horrek segundo batez nahastu zituen Antonirenganadik hurbilago zeuden bi arerioak; aski baino denbora gehiago dukeak bat burugabetzeko eta, keinu berberarekin eta bulkada baliatuz, bestea bi arra bete airean altxatzeko sablearen orria haren iztondokoaren kontra palanka finkatua bezala erabiliz. Bosgarren borrokalaria bion artean ergelki sartuta geratu zen; biratu zen suhartsu niri aurre egiteko, eta nik alderik alde zulatu nion bihotza, Antonik, bizkarretik, bere ezpataren muturra zorigaiztokoaren sabeletik aterarazi zuelarik, eta arerioa elur zuriaren gainean xehatuta jausi zen, guk aldi berean egindako bi mugimenduekin, haren gorputz hilaren barrutik burdinak ateratzen genituen une berean.

Hilotzak botekin zapaldu nituen Antonirengana hurbildu eta ukitzeraino eduki arte: gu biotako inork ez zuen ezkututzen bestea akabatzeko xede gozoa. Batailaren erdigunetik urrun geunden, zeinak gu gabe jarraitzen zuen, zintzuraren horma harkaiztsuaren artean oharkabe. Azkenean iritsia zen ordua. Lodi arnasten genuen biok, gure ahoek jarraian disolbatzen ziren aire kondentsatutako hodei ttikiak jaurtitzen genituen, hankak nabarmen dardarti geneuzkan. Ezin izan nion irribarreari eutsi esan nionean:

—Bizitza salbatzen dizudan bigarren aldia da, Antoni.

—Ez dakit nola adierazi nire eskerrona, Puppa —erantzun zuen, aurreikusten asmatu ez nuen mugimendu bikain batez bere daga nire kokots azpian sartu eta lepoko sagarretik eskubiko belarriraino zauria egiten zidan bitartean.

Eskuak zaurira eraman eta ohartu nintzen eztarritik jariatzen zitzaidan hemorragiarekin batera bizi-arnasa zihoakidala, eta hitz egitea zein arnastea eragozten zidala. Altxatzen saiatu nintzen, baina zurrunga nazkagarri bat toteldu besterik ez nuen lortzen, ezpainak likido labainkor baten barruan murgilduta putz egingo banu bezala. Izua eta lotsa sentitzen nuen. Nola izan nintzen hain traketsa, hain oharkabea...? Plegatzen ari nintzen; begi-ertzez begiratuz Antoni ikusi nuen sablea altxatuta, azken kolpea jotzeko prest.

Uste dut besterik gabe ezin nuela onartu. Lurretik aurrerantz egin nuen gorputzarekin, eta horrek ezustean harrapatu zuen Antoni; gerritik besarkatu eta ezezonkortzeko baliatu nuen hura; bera bizkarrez erori eta nik daga ateratzen nuelarik, osteria oihuka hasi nintzen, baina oraingoan minez, heriotzaz kolpatutako animalia zuri handi batek bezala. Antoniren gainean luzatu nintzen, maitale bagina bezala; ahoa oso irekita eta odoleztatuta, nik ulu egiten saiatzen nintzen baina gargarak egiten ari nintzela zirudien. Besoak luzatu eta lepotik hartzea lortu zuen berak, hatzekin nire zaurian zitzatuz: zakur bat bezala zaunka eginez, beso bat altxatu nuen dagari ukabilarekin eutsiz eta geratzen zitzaidan indar guztiarekin jaitsi nuen, Antoniren lepoan daga bero hondoratu eta jugularra ebaki nion; jarraian odol-parrasta handiak busti zuen elurra bere buru azpian baina berak ez zuen gutxitzen presioa nire lepoan, erdibana egiten zuen zaurian hatzekin zirikatuz; aldi berean nik oihuka jarraitu eta daga-kolpe bat eta beste bat eman nion lepoan, bularrean, besondoan, ahoan; Antonik isilik hartzen zituen, isiltasun geldo eta jasanezinki burgoia berea, Mendi Zuriarena bezalakoa, zeinak egoskor kontenplatzen zuen gure konbatea, nik zerri batek hiltzean bezala egiten nuen garrasi, hiltzen ari nintzen jakitun, oraindik ez hiltzeagatik kezkatuta,

baina pozik Antoni nirekin hilgo zen ziurtasunarekin, behar bada ni baino pixka bat lehenago, eta jada zendu baino lehen biotako nork ikusiko zuen bestea hiltzen jakiteagatik soilik borrokatzen genuela. Biok kurrinka egiten genuen eta elkarri aurpegira odola jaurtitzen genion, haren hatzen presioa eztarria irekitzen zidan zuloan gero eta arinagoa zen, eta nire daga-ukaldiak erritmo berberean berandutzen ziren. Biotako nork amore emango zuen lehenago eta betiko; hura zen Antoni dukearen eta nire artean ebatzeke geratzen zen gauza bakarra. Biotako nor izango zen bestea baino lehenago hiltzen uzteko koldarra.

Eta orduan gertatu zen: denbora-etenaldia errepikatu zen, edo perspektibaren errepikapena, edo, bazter batean geratuko banintz bezala, inguratzen ninduen errealitatetik urruntzen ninduen efektu hura sortzen zuen dena delako hura. Baina oraingoan ezberdina zen. Supituan, eta niretzat mirari handiz, nire lepoak ez zuen odolik isurtzen eta ostera ukitu gabe zegoen; bularra betean arnastu ahal nuen eta Antoni ostera hiru urrats urrunago zegoen, lurrean bizkarrez etzanda, agonian izoztuta bezala. Denbora-etenaldia halako suspentsio bat bihurtzen zen oraingoan, mundu osoak, niregandik at, gelditzeko agindu jainkotiar bati men egingo balio bezala. Baina begiak altxatu eta konturatu nintzen gauzak suspentsiotik bolatilizaziora paseak zirela: dena, dena desagertua zen. Mendi Zuria ez zegoen han, eta soldaduak, armak, zaurituak eta hildakoak ere ez. Are isiltasuna, isiltasunaren ideia bera, desagertua zen. Ez zegoen kolorerik, ez denborarik, ez materiari: soilik ni, hutsaren barruan flotatuz. Ez zegoen zentzumenek hauteman, ez memoriak neurtu zezakeen ezer, eta ezer ez zen etorri bat-batean desagertutako munduaren ordezkoa egitera: ni eta batere konsistentzia fisikoa ez zeukan beste presentzia bat besterik ez; aldiz, ordea, oso hautemangarria zen: Maria zen. Bera zen: baina ez bere gorputzaren akzidentea, baizik ez definitzen, ez deskribatzen asmatuko nukeen beraren zati hura, edonon egonda (Errege Jauregiaren atarian matxinadaren egunean, bere dontzeilek inguratuta lo egitera erretiratzen zen bere geletako ganberaurrean, Lorategi Fosforeszentearen hezurren mamuzko tenpluan) nik argitasun osoz hautematen nuen izatearen parte esentzial hura, ezagutu aurretik Morelaren gorputzaren bitartez ere maitemindu ninduen. Edozein arrazoi eta bereizkuntzatik areago maite izan nuen haren espresio esentzialak laguntzen ninduen, eta ez zeukan ni ukitu beharrik, nire espirituaren malko hutsetaraino ukitua sentitzen bainintzen. Desagertua zen mundua. Heriotzatik niregana etorria zen Maria, eta nire garaipena, orain bai, osoa zen. Baina jarraian gauditua ikusi zen, edozein itxaropenetik harago gauditua, honela esaten zidala entzun nuenean.

—Hartu!

Eta nabari nuen zerbait eman zidatela, zentzumenetatik oso urrun. Maria mintzatu egin zitzaidan eta zerbait prestatu zuen nigan, eta, edozer izanda ere —sendakuntza eta ongizatezko esfera hartan, nora bat-batean eramana izan nintzen, begien eta eskuen pertzepzioa huskeria bat baitzen— nik banekien, osotasuneraino kontziente nintzen, eternitatearekin konprometitzen ninduen oinarritzko zerbait zela. Orduan jabetu nintzen nire ahotsa esferaren neurtezinezko espazio barruan entzuten zela, nire bizitzan behingoz, hitz egokiak, zegozkion bakarrak ahoskatuz. —Betiko maiteko zaitut.

Eta nire hitzak esferako oihartzun unibertsalaren barruan entzuten hasi ziren. Artikulatzen hasi orduko, hutsunea irudi eder-ederrez betetzen hasi zen, zeinaren gardentasuna hastapeneko distirak kontrastatuta ikusten zen, haiek esatean, Kreazioaren unea birsortu izan balitz bezala, mundua ezerezetik maitasun gorengoaren lekuko izateko sortu zenean. “Betiko maiteko zaitut”, errepikatzen zuten bailarek eta mendizere; “betiko maiteko zaitut”, xuxurlatzen zuten ordokiek eta arboladiak; “betiko maiteko zaitut” kantatzen zuten haizeak eta eguzki-izpiek eta goiztiriek; “betiko maiteko zaitut”, marmartzen entzuten zen ozeanoetako ur azpian, ibaien hartxingadien ondoan, harkaiztietan behera jausten ziren ur-jauzien zarata basatiaren gainetik. “Betiko maiteko zaitut” errepikatzen zuen nekerik gabe izaki bizidun orok niri jarraika; eta nik, esferaren zentroan bertan Mariarekin batera, emozio trazezendentz entzuten nuen nire hitzen errepikapena munduko txoko hasiberri bakoitzean.

Orduan beste etenaldi bortitz bat gertatu zen, eta, lehen bezain supituki, ostera Mendi Zuriko elur gainean etzanda nengoen. Mugimendu erreflexu batean ezterrira eraman nuen esku bat: konprobatu nuen ukitu gabe zegoela, eta jarraian nire gorputz osoa osasuntsu eta libre zegoela,

patxadatsu eta lasai asko loaldi baketsu baten ondoren bezala. Zutitu eta begiradarekin nire ingurura behatu nuen: bataila amaitua zen, garaileak eta bizirauten zutenak erretiratuak, eta han mendiko isiltasuna eta hotza besterik ez zegoen, eta armada lutertarraren desegitearen ebidentzia, gure zaldi erorien arma-sakabanaketa makabroa eta gure gizon eroriak ikusita. Nire alboan Antoni zetzan, utzi nuen bezala makurtuta, azkenean hila nire daga-ukaldien eraginez, aurpegia desitxuratzen zion imintzioan amorrua adierazita. Lehen bezalako aire izoztu berbera zebilen, hildakoen haragi urratuaren hatsak beteta ordea, zeina gorri eta beltz agertzen zen edonon, gorputzak loratzen baleude bezala. Haizearen kapritxoak garraitutako elur-malutek ekaitzaren beste jasaldi baten berehalakotasuna adierazten zuten.

Zerbait baneukan eskubiko eskuarekin eutsita, eta denboratxo bat bazen oharturik nengoela; baina, beldur edo haur-lakrikunkeria modukoren batengatik, ez nuen hura begiratzeko erabakirik hartzen. Mariak gure enkontruan eman zidan oparia izan behar zuen derrigor, hartaz, egia esan, oroitzapen xehe eta distiratsua geratu baitzitzaidan. Trumoikadaren marmarra urrun baina abiadura handiz hurbiltzen entzuten hasi nintzen. Eskua altxatu eta baietsi zidan bertan eusten nuena, imajinatzen nuen zositako orri-plegu batzuk besterik ez zirela. Haiek aztertu nituen, zer ziren asmatu nuen arren: *Odisea* homerikoaren hamahirugarren kantua, non Ulises, hainbat gorabehera pasa ondoren, etxera itzuli zen beste gizon baten formapean.

Luze berrikusi nituen bertso haiek, begiak malkoz bustitzen zitzaizkidan bitartean. Euri hotzaren lehen tantak haiekin nahastera etorri zirenean, gorantz begiratu eta jabetu nintzen tximistek basati urratzen zutela zerua nire gainean, Mendi Zuriaren burgoitasunari mehatxu eginez. Plegua nire uniformearen txaleko azpian jarri eta hildakoen artean ibiltzen hasi nintzen, ahal nuen beste urruntzeko prest, jada inoiz abandonatuko ez ninduen ekaitzak leialki jarraitua.

*Jahrtausende zegen abwärts in die Ferne, wie Ungewitter. An Ihrem Halse weint ich dem neuen Leben entzückende Thränen. –Es war der erste, einzige Traum– und ers seitdem fühl ich weigen, unwandelbaren Glauben an den Himmel der Nacht und sein Licht, die Geliebte*¹.

Jarraian, armak utzi nituen: sekula ez dut gizonik hil, eta ez dut hartaz pentsatu ere. Gerra, ondo dakizuenez, hogeita hamar urte baino gehiago luzatu zen, aurreikusigabeko norabieedetan, eta gero beste zorigaitz batzuk gertatu ziren. Urte hauetan zehar nik zahartu eta ofizio hau ikasi besterik ez dut egin. Loew errabainoak lehen kausa edo printzipioei buruz transmititutako irakaspenek onduta, konbikzio batek mugitu nau, alegia egunen batean, mundu honetan edo hemendik kanpo, ostera Mariarekin topo egingo nuela, mundua berregiteko zeregina hartu eta edertasunaren bitartez erru orotatik erredimitzeko. Baina egun hura heltzean bere opariari erantzun nahi nion, eta pertseberantziaz hobetu dut nire ofizioa hura prestatzeko gai izateko. Hementxe daukazu, txo: Odiseako hamahirugarren kantua jasotzen duen orri-plegua, zure larruazalarekin koadernatua... Liburuki guztiz ederra suertatu da, ez da? Jakina, ezin bestela izan: ez gara haren aurrean hau baino bitxi kaskarragoarekin aurkeztuko, ez da? Edozein moduz eskerrik asko, eta eskerrik asko baita ere hain gau ilunean nirekin egon eta nire joan-etorrien kontakizuna osatzen laguntzeagatik, zeinarik gabe ez dakit esna mantenduko nintzatekeen. Ez dugu ahaztu errabinoaren adibidea bere Golemarekin, eta egin behar genuena egin dugu, aretoko txokotik begira daukagun katuaren begirada distiratsuen arretapean. Azken finean ona da deabruak kontuan har gaitzan! Zein zaren galdetzen badidazu eta zein den zure natura, txo, esango dizut zure galderaren erantzuna emakumezko baten izena dela: Maria.

Baina presatu beharra daukagu! Berehala etxolatik atera eta pinudia zeharkatuko dugu ametsetan hitz egingo diguten hitzei jaramonik egin gabe; ekaitzari iskin egin eta Pilseneko komentura iritsiko gara: ateetan jo eta monja atsegin hari buruz galdetuko dugu, zeinaren gorputz ederrean Maria itxaroten daukagun. Eta, hura agertzen denean, ez diegu deus esango: begietara

begiratu eta liburuki hau emango diogu, eta hori aski izango da. Arin, beraz! Arin eta ez gaitzen gelditu ezergatik enkargua bete arte! Egin dezagun behingoz historia honek azkenean bere hasiera izan dezan.

*Bartzelona –Maria de la Salut,
2002ko abendua—2003ko ekaina; 2004ko uda*

Excursus

Testu barruan idatzita agertzen diren alemanezko bost zatiak Friedrich von Hardemberg, Novalis bezala ezagunagoa, poeta alemanarenak dira. Haietako lau autore horren idazkien parte dira, *Zatiak* izenez ezaguturik, bosgarrena berriz, *Himnoak Gauean* izeneko zikloko hirugarren poemaren azkenari dagokio. Ez dira funtsezkoak gure kontakizuna irakurtzeko, baina bere jatorriarekin estuki lotuta daude, eta bere presentziak testu barruan borondate argitzaile hutsarekin du zerikusia —eta ez ezein kapritxo pedanterekin, borondate oneko hainbat gizon eta emakumek pentsatu nahiko luketen bezala. Jarraian, kontakizun barruan agertzen diren ordena berberean, Robert Caner-Liese-ek (lau zati) eta Eduard Cairol-ek (*Himnoak Gauean* puska) katalanez egindako itzulpenak eskaintzen ditut²:

Gizaki egitea arte bat da.

Poesia egitea ernalaraztea da. Poetikoki sortutako den-dena bizitzaz betetako norbanakoa da. Agorrezinezko zenbat material ez ote dago gure inguruan banakako konbinazio berriak sortzeko! Misterio hura aurkitu duenari aniztasun infinitua eta plazer hutsa ukatu eta ostera nonbait hasi besterik ez dagokio —erabaki horrek, ordea, askatasun-sentsazioa modu infinituan galtzea dakarkigu, eta adierazpen bakar batera mugatzea eskatzen du. Ez ote dagokigu agian gure existentzia lurtarra halako erabakiari esleitzea?

Inork ez du sekula esan behar bere burua maite duela —aitorpen honen misterioa maitasun benetako eta eternal bakarraren bizi-printzipioa da. Konprentsio honen lehen musua filosofiaren hastapena da —mundu berri baten jatorria—, kronologia berri baten hasiera absolutua nork bere buruarekiko osotasuna, infinituko haziko dena.

Nori ez litzaioke gustatuko jatorria lehen musu batean edukiko lukeen filosofia bat?

Abstrakzioa baino lehen dena da bat —baina bat, kaosa bezalakoa —abstrakzioaren ondoren berriro dena batuta dago —baina batasun hura izaki independente eta autodeterminatuen asoziazio librea da —kaosa mundu anizkoitza bihurtu da.

Milurteak joan dira urruntasunean galtzen diren ekaitza bezala. Hari besarkatuta zoriontasun-malkoak isuri ditut bizitza berriagatik. Hauxe da lehen ametsa eta bakarra —eta orduz geroztik Gauaren zeruan eta bere argitasunean fede eternal eta aldaezina daukat, maitatua.

Egiaztatu nahi dut baita ere eleberrian agertzen diren pertsonaia eta egitate historikoei dagozkien faltsutasun eta manipulazioak nahita eta kontzienteki eginda daudela: batzuek kausa hobeari dagokion suhertasunarekin defendatzen dutenaren kontra, ez dut uste literaturak ezein fideltasun gorde behar duenik historiarekin.

² Argi dago euskarazko bertsioa liburu honen itzultzaile euskaldunak egin duela.

Bestalde hau da tokia Santiago Brugalla maisu koadernatzaileari nire esker on bihozkorrena adierazteko, bere ofizioari buruz eman zizkidan informazio baliotsuengatik, eta baita nire eskura adeitsuki ipini zuen bibliografiagatik ere. Manuel Forcano nire lagun onari ere bai, Loew errabinoaren figura eta Golemen legenda hebrearra hobeto ezagutzen lagundu zidan eskuzabaltasunagatik. Azkenik, ezin dut aipatu gabe utzi nahi Ilya Sedo doktorea, Pilseneko Zapadoceske Museoaren zuzendaria, zeinari samurtasunez eskertu behar diodan bere bulegoan egon ez izana bere bila joan nintzen egunean.

Eleberri hau Marion Rubio eta Eduard Gonzalori eskaini diot, eurak gabe inoiz ez baitzen idatzia izango seguruenik.

S.A.

Maria de la Salut, 2005eko urtarrila.